

Gari Baños  
 masajistari  
 elkarrizketa

Pobrezia  
 energetikoaren  
 errealitatea



## ARRAKASTAREN OLATU EROAN

Brigade Loco talde bergarra, gorenean, Mondragoeko betiko punk-oi! musikaren itzalean / 24

Brigade Loco zuzenean, Rotten XIII-ko Endika Irisorekin batera, Atarrabiako Totem aretoan, duela aste bi.

POLI KARPO



Leintz Arizmendiko infantilak zelai berrian entrenatzen, martitzenean. IBAI ZABALA

**Hasi dira Aretxabaletako futbol zelai berria erabiltzen** / 14

**Bertako babarrunak dastagai Arrasateko Baserritarren Azokan zapatuan, Lehen Babarrun Egunean** / 12

### SINADURAK

|                           |                       |
|---------------------------|-----------------------|
| IGOR ARIZMENDIARRIETA / 6 | JULEN ABASOLO / 16    |
| MIREN ARREGI / 8          | PEDRO GARITANO / 26   |
| GAIKZA ERAÑA / 12         | IDOIA ETXEBERRIA / 48 |

## ALKIDEBA

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

**MAKINERIA ALOKAIKURUA ERAIKUNTZARAKO ETA INDUSTRIARAKO**

Maltzaga - Sorluze errepidea.  
 Tel.: 943 75 15 54 • Sorluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3, pabillola  
 Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

administracion@alkideba.net  
 Saskibaloi taldearen babeslea

**OINTXE!**

**NILFISK-en**  
banatzaile ofiziala



Herritar bat Bergarako hauteskunde mahai batean botoa ematen. MAIALEN SANTOS

# EH Bildu izan da garaile bailaran eta handitu egin du EAJrekiko aldea

Apirileko hauteskundeekin alderatuta aldaketa nabarmenik ez da izan Debagoiengan; sei herritan EH Bildu izan da bozkatuena eta hirutan EAJ –Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Arrasaten–. Eskualde mailan parte-hartzeak lau puntu egin du behera

## Maialen Santos DEBAGOIENA

Espainiako Gorteetarako hauteskundeek apirilekoen argazki nahiko antzerakoa utzi dute Debagoiengan. 12.917 botorekin EH Bildu izan da berriz ere garaile, eta, eskualde mailan parte hartzea lau puntu jaitsi den arren, duela hilabete batzuk baino boto gehiago eskuratu ditu ezker abertzaleak: 308 boto gehiago, hain zuzen. EAJ izan da bigarren indarra, 11.650 botorekin, baina jeltzaleek 405 boto galdu dituzte apiriletik hona.

Sozialistei dagokionez, boto kopuru antzerakoa galdu dute, 410, baina 4.675 bozkarekin hirugarren indarra izatea lortu dute bailaran, eta Elkarrekin Podemosi aurre hartu diote. Hain justu, Pablo Iglesiasen alderdiak izan du Debagoiengan beharakada handienetakoa: apirileko emaitzekin alderatuta

1.007 boto galdu ditu, lehen baino %18 gutxiago eskuratuta.

Alderdi Popularrak, berriz, 40 boto gehiago lortuz mila botoen langa gaintu du Debagoiengan. Boto kopuruari dagokionez, beste alderdiekiko aldea handia den arren, ehunekoan Voxek izan du gorakada handiena: 256 debagoiendarrek eman diote botoa, ia %16 boto gehiago eskuratuta. Ciudadaneosek, aldiz, beharakada handia izan du: botoen ia bi heren galdu ditu aurreko hauteskundeetako emaitzekin alderatuta.

**VOX ALDERDIAK IZAN DU GORAKADARIK HANDIENA: 256 DEBAGOIENDARREK EMAN DIOTE BOTOA**

## EH Bildu nagusi

Herrrikako datuei dagokionez, apirilean bezala, Debagoieneko sei herritan EH Bilduk lortu ditu boto gehien eta hirutan, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Arrasaten, EAJ izan da nagusi.

Azken hauteskundeetako joerari eutsi dio, beraz, Arrasatek. Dena den, EH Bildu geroz eta gertuago dute jeltzaleek, eta domekan, bi alderdien arteko aldea 24 botokoa izan zen. Sozialistek eta Elkarrekin Arrasatek behera egin dute, PPK gora, eta, Voxi dagokionez, Arrasaten lortu ditu Debagoieneko botoen ia erdia.

Bergaran, bestalde, EH Bilduk jarraitzen du lehen indarra izaten. Gora egin du, gainera, apirileko emaitzekiko. EAJ da bigarren indarra, baina botoak galdu ditu. Elkarrekin Podemos, bestalde, hirugarren indarra

izan da, eta PSE-EE laugarrena; biek ala biek botoak galdu dituzte, hala eta guztiz ere.

Oñatin, apirileko hauteskundeekin alderatuta, 122 boto gehiago eskuratuta EH Bilduk irabazi du. Bigarren indarra behera egin duen EAJ izan da eta Elkarrekin Podemosek, botoak galdu arren, hirugarren postuari eutsi dio sozialisten aurretik.

Aretxabaletan, lau boto galdu dituen EAJ izan da alderdi bozkatuena; EH Bilduk bigarren izaten jarraitzen du, apirilean baino 21 boto gehiago eskuratuta. Podemos izan da hirugarrena eta PSE-EE laugarrena.

Eskoriatzan, bestalde, handitu egin da lehen indarra izan den EAJren eta bigarren geratu den EH Bilduren arteko aldea. Sozialistak hirugarren geratu dira eta Podemos, aldiz, laugarren.

Antzuolan, apirilean baino boto bat gehiago eskuratuta, ezker abertzaleak eraman ditu boto gehien. Bigarren indarra EAJ izan da 367 botorekin eta hirugarrena PSE-EE –Elkarrekin Podemosek baino hiru boto gehiago eskuratuta–.

Aramaion alderdi gehienek behera egin badute ere, EH Bildu botoak irabazita nagusi izan –461 boto jaso ditu–. Atzetik geratu da EAJ, 256rekin, eta oraindik atzerago Podemos 78rekin eta PSE-EE 26rekin.

Elgetan, EH Bildu izan da boto gehien jaso dituen eta apirilean baino hamar herritar

gehiagok eman diote botoa. EAJ izan da bigarren eta Elkarrekin Podemos hirugarrena. Alderdi sozialista izan da laugarren.

Leintz Gatzagan, parte-hartzeak ia hamar puntu behera egin ostean, 68 bozka eskuratu ditu EH Bilduk, 35 EAJk eta 10 boto Elkarrekin Podemosek.

## Gipuzkoan, EAJ garaile

Debagoiengan ez bezala, Gipuzkoan EAJ izan da alderdi guztietan bozkatuena. EH Bildu, dena den, gerturatu egin da; izan ere, jeltzaleek botoak galdu dituzten neurrian –portzenta-jeari dagokionez gora egin du–, koalizioak irabazi egin ditu.

Espainiako Kongresurako bina eserleku lortu dituzte lurraldeko bi alderdi nagusiek. PSE-EEk eta Elkarrekin Podemosek, bana; izan ere, behera egin dute biek.

PP eta Vox dira gora egin duten bakarrak, EH Bildurekin batera. Jeltzaleek, dena den, batez beste, gora egin dute –parte hartzeak bi puntu eta erdi egin duelako behera–.

## Kongresuan, sei ordezkari

Gauzak horrela, honako hauek dira Espainiako Kongresuan eserlekua lortu dutenak: Joseba Agirretxea eta Iñigo Barandiaran (EAJ); Mertxe Aizpurua eta Jon Iñarritu (EH Bildu); Odon Elorza (PSE-EE) eta Pilar Garrido (Elkarrekin Podemos). Senaturako, EAJk hiru ordezkari lortu ditu eta EH Bilduk bakarra.

## Gatzagan udal hauteskundeak etzi

Espainiako Gorteetarako hauteskundeetatik astebete igarota, azaroaren 17an, domekan, egingo dituzte udal hauteskundeak Leintz Gatzagan.

Herriko Hautesle Elkarrekin beste herritarrez osatutako zerrenda aurkeztu du: Eugenio Otsoa, Juanito Bengoa, Jon Sasiain, Beñat Agirreurreta eta Garazi Orobengoa izango dira Udala gobernatzeko hautagaiak. Zerrendako ordena eta alkategaia, baina, erabaki gabe daude oraindik.

Duela sei hilabete ez zuten udal hauteskunderik egin Gatzagan, ez baitzen Udal Gobernurako herritarrek osatutako zerrendarik aurkeztu. Inoiz gertatu bako egoera izan zen hura, herrian beste urte batzuetan aurkeztu izan baita herritarrez osatutako hautesle elkarte bat Udalean aritzeko.

Ministroen Kontseiluak errege dekretu bidez onartuta egingo dituzte udal hauteskundeak, beraz, domekan. Gatzagan eta beste herri batzuetan egingo dituzte; hain zuzen ere, maiatzaren 26an hautagairik izan ez zuten herrietan eman beharko dute bozka egun horretan.

*Goiena.eus* atarian emango zaie jarraipena Leintz Gatzagako udal hauteskunderi.

# Miguel Altuna berrian bisitan izan da Urkullu

Iñigo Urkullu lehendakaria eta Cristina Uriarte Hezkuntza sailburua asteon izan dira Lanbide Heziketako eraikina bisitatzeko. Zentro berriari esker, 600 ikasletik gora arituko dira 19-20 ikasturtean erdi mailako zortzi ziklotan prestakuntza jasotzen

## Maialen Santos BERGARA

Jaurlearitzako ordezkariak zabal gerturatu zen astelehenean Miguel Altuna Lanbide Heziketako zentro berria ezagutzera. Iñigo Urkullu lehendakaria buru, Hezkuntza Sailburu Cristina Uriarte, Lanbide Heziketako kontseilariorde Jorge Arevalo eta Administrazio eta Zerbitzuen sailburuorde Olatz Garamendia izan ziren Bergaran.

Zentroko zuzendari Josune Irabazalek ongietorria egin zien iritsi berritan, eta gero, ikastetxe berrituko hainbat gune bisitatzeko aukera izan zuten – atalez atal-. Administrazio gelan hasi zuten bisita, eta ikasleek makina aurreratuekin egiten dituzten produktuak ikusten aritu ziren. Amaieran, ikasleak askotariko zereginak egiten ikusteko aukera izan zuten bertaratutako ordezkariak.

## Zentrokoak, eskertuta

Josune Irabazalek Migel Altunako erabiltzaile guztien izenean

eskerrak eman zizkien bertaratu, zentro berria egiteko baliabideak jarri izanagatik: "Lekuz aldatzeko garaia heldu zaigu, eta hemen daukagu eraikin berria. Orain, ikasleek merezi dituzten instalazioak eta ekipamenduak dituzte". Horretaz gain, "jarritako erronka" bete dutela ere azaldu zuen; eraikin adimentsu bat egiteko erronka zuten, eta zentro berriak pertsona adimentsuen "gaitasunak hobetzea" ahalbidetzen du. Zubiaren sinbologiari ere egin zion erreferentzia Irabazalek: "Lehenengo eskolak bazuen elementu kuttun bat: zubia. Hori horrela, *Zure zubia* leloa aukeratu dugu eskola berriarentzat". Hain zuzen, iragana eta etorkizuna lo-

## IÑIGO URKULLU: "BERGARAKO MIGUEL ALTUNA ZENTRO BERRIA AITZINDARIA DA EUSKADIN"

tuko dituen zubia izan nahi dutela argitu zuen.

Iñigo Urkullu lehendakariak, berriz, adierazi zuen Miguel Altuna ikastetxea "aitzindaria" dela Euskadin: "Bergarako zentro hau Lanbide Heziketan gertatzen ari den paradigma aldatzeko adibide bat da". Azaldu zuenez, prestakuntza "aldatzen" ari da, irakaskuntzak metodologia berriak eskatzen ditu, ikasgelak elkarri lotuta daude eta "ikasleen arteko" lankidetzak bultzatzen da.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko eta soldata arrakala gainditzeko erronkan azpimarra jarri zuen Urkulluk; estrategia bat garatzen ari direla iragarri zuen.

## Zentroaren eskaintza

2019-2020 ikasturtean 600 ikasletik gora ari dira Miguel Altuna zentroan formakuntza jasotzen. Guztira, erdi mailako zortzi prestakuntza ziklo ezberdin egiten dihardute bertan.



Preso gaixoen etxeratzea eskatzeko ekintzen aurkezpena. JONE OLABARRIA

## Preso gaixoak etxeratu ditzatela eskatuko dute azaroaren 30ean

Larrialdi egoerari "presentzia" emateko asmoz, ekintza ugari antolatu dituzte azarorako; tartean, manifestazioa

## M.S. ANTZUOLA

Larriki gaixo dauden presoen eskubideak aldarrikatu eta haien kaleratzea exijitzeko hainbat ekintza antolatu ditu datozen asteetara begira Deba bailarako Sarek, Ez Dot Moztuko Bizarra taldearekin elkarlanean.

Talde horretako kide Mikel Jauregik Antzuolan egindako agerraldian adierazi zuenez, "hogei dira larriki gaixo dauden euskal preso politikoak"; eta horien artean dago Jose Luis Aroztegi antzuolarra –herrian *Eltzikorta* izenez ezaguna–.

Presoek berमतuta izan behar-ko lituzketen eskubideak "urratu" egiten direla salatu dute agerraldian. "Preso gaixoen zaintza baldintzak ez dira legeak dioen bezala betetzen", azaldu du Jauregik. Hala, euskal preso gaixoei jasaten dutenari "presentzia" emateko asmotan ekintza ugari eramango dituzte au-

rrera. Hain zuzen ere, Antzuolan izango dira horiek guztiak.

## 30ean, manifestazioa

Azaroaren 30ean egingo dute ekintza nagusia, bailara mailako manifestazioa, 18:30ean hasita. Horren aurretik, hilaren 19an, Olaranen izango da Jaiki Hadi taldeko Fernando Arburua, *Gaixotasunen tratamendua eta osasun zaintza kartzelan* hizpidet hartuta. Azaroaren 23tik abenduaren 1era bitartean, bestalde, preso eta preso ohiek egindako artelanak jarriko dituzte ikusgai. Azaroaren 29an, bailarako zenbait ospitalean bertaratzeak egingo dituzte, preso gaixo larrien "egoera salatu" eta haiek "etxean behar dutela" aldarrikatzeko. Azkenengo elkartasun ekintza abenduko lehen egunean egingo dute, Joxe Mari Karrera ipuin-kontalaria izango baitute herrian.

## Movember-en baitan, Elorregira ibilaldia egingo dute bihar

Barrabiletako eta prostatako minbiziaz kontzientzia zabaltzeko eta bizitza osasuntsua eramaten aldeko apustua egiteko asmoz, Elorregira ibilbidea egingo dute bihar, zapatua, Oñatitik, Bergararik eta Arrasatetik. Mondravier eta Movembergara taldeek antolatu dute irteera, eta asmoa da Elorregira 12:00etarako iristea: hori bai, "era osa-

suntsuan" iristea dute helburu, Movembergara taldeko kide Joxe Aranak azaldu duenez. Hain zuzen, oinez, bizikletan zein korrika –norberak nahi duen moduan– joan ahal izango da Elorregira. Behin ibilbidea amaituta, Sanprubusean txokolate beroa hartzeko aukera izango da. Horretaz gain, 12:30ean DJ Exhile izango da bertan musika jartzen. Musika entzunez mokadutxoa jan ahal izango da, gainera: txorizo-pintxoak eta salda banatuko dituzte guztientzat.



Iñigo Urkullu lehendakaria eta Cristina Uriarte sailburua, zentroko irakasle baten azalpenak entzuten. XABI GOROSTIDI

# Argiteria publikoaren jasangarritasunerantz

Mankomunitateak led erara aldatu ditu Debagoieneko 4.178 lanpara, guztira, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundearen bi deialdi aprobetxatuz –Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin–; 2.163.176 euroko inbertsioa egin du

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentzia eskualdeko kanpo argiteria led motara pasatzeko esku-hartze plan bat bukatzean da abenduan, eta horren bitartez 4.178 lanpara berrituko dituzte guztira, "eskualde osoko lanparen %35-40 inguru", agentziako arduradun Koldo Azkoitiaren esanetan. "Oso ondo burutu da programa hau, eta ekonomiko-ki oso positiboa izan da udalentzat", azpimarratu du.

IDAEk, Espainiako industria ministerioaren baitako Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundeak, deialdi bat publikatu zuen 2015ean, argiteria tradizionaletik led argiteriara pasatzen laguntzeko. "Eskaera egiteko, gutxieneko bolumen bat behar zen, eta udalak euren kabuz ez ziren gutxieneko horretara iristen. Beraz, eskaera mankomunitate bezala aurkezteko aukerak aztertu genituen, eta udalei planteatu genien ideia hori, baita baldintzak ere". Bost udalerrri sartu ziren lehenengo eskaera horretan: Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñati. "IDAEk 10 urteko finantzaketa bat egiten du eta lehen urtea ez, beste bederatziru urteak inbertsioa amortizatzen



Led motako argidun lanpara bat, Arrasaten. IMANOL SORIANO

dira. Mailegua %0 da, interes bakoia; beraz, oso interesgarria iruditu zitzaigun. Udalek zorpetze maila handitzeko arriskua zeukaten, eta aukera polita ikusi genuen Mankomunitatearen bitartez eskaera aurkezteko, mankomunitatearen zorpetze maila baxua zelako".

## Abendurako, guztiak bukatuta

2016an eskaera egin eta tramite guztiak burutu ostean, 2017an bukatu zituzten lehenengo deialdiko instalazio lanak. 2.870 lanpara aldatu zituzten modu tra-

dizionaletik led erara, eta 1.464.779 euroko inbertsioa egin zuen Mankomunitateak. "Hori egiten geundela, 2017an, beste deialdi bat publikatu zuen IDAEk", azaldu du agentziako arduradunak.

Hala, 2018an beste eskaera bat egin zuen Mankomunitateak, baina bigarren honetara lau udalerrri aurkeztu ziren, Oñatik ez zuen-eta parte hartu, "bere kabuz ere bazebilelako lanean".

Bigarren deialdi horretan, 1.308 puntu aldatuko dira. "Berez, 1.400 inguru ziren, baina esleipen

prozesuan Eskoriatzako lotea kanpoan geratu zen".

Orain ari dira argiteria berria jartzen puntu horietan, eta abendurako bukatuta izatea aurreikusten du Mankomunitateak. Inbertsioa 698.396 eurokoa izan da bigarren deialdian.

## Dirulaguntzak, mesedegarri

Azkoitiak azpimarratu duenez, Eusko Jaurlaritzaren baitan dagoen Energiaren Euskal Erakundeari dirulaguntzak eskatu dizkio Mankomunitateak, eta, "bateragarriak" direnez, onartu egin ditu eskaerok. "Beraz, lehen programan 65.000 euro jaso genituen, 2017an, eta bigarrenean 60.000 euro, aurten. Horrek murrizten du, baita ere, udalek Mankomunitateari egin beharreko ekarpena, Mankomunitateak mailegua ordaindu dezan".

## %70 aurrezten da led argiekin

Gainera, Azkoitiaren esanetan, led motako argiak instalatzen diren momentutik aurrezten hasten dira udalak, bai ekonomiko, bai kontsumoari dagokionez, eta baita CO2 isurketei dagokionez ere: "%70 inguru aurrezten da led argiekin".

Mankomunitateak emandako datuen arabera, lehenengo deialdiko instalazioak egin aurretik, 2.870 lanpara horiek 2.259.816 kilowatt kontsumitzen zituzten orduko eta led motako argiek, berriz, 640.473-1.619.343 kilowatt gutxiago-. CO2 isurketei dagokionez, lehen, 768.337 kilogramo isurtzen ziren, eta orain, 217.761-550.576 kilogramo gutxiago-. Urteko kostua ere asko murriztu da. Lehen, 327.183 eurokoa zen, eta orain, 93.921eko-233.262 euro gutxiago-.

Bigarren deialdiari buruzko datuak ere eman ditu Manko-

munitateak. 1.308 lanpara horiek 998.904 kW kontsumitzen zituzten lehen, eta orain, 242.617-756.287 kW gutxiago-. CO2 isurketa 339.627 kilogramokoa zen lehen eta 82.489koa orain-. Kostuari dagokionez, azkenik, 145.526 eurokoa zen instalazioaren aurretik, eta orain, 36.087koa orain -109.439 euro aurreztu ditu bigarren deialdi honetan-.

## Gainontzeko herriak ere, abian

Arrasaten, guztira, 1.710 lanpara aldatu dituzte bi deialdi hauetan, 2016tik hona. Bergaran, 866; Aretxabaletan, 807; Eskoriatzan, 676 eta Oñatin, 119.

Antzuolak, esaterako, halogenuroaren aldeko apustua egin zuen deialdi hauek iritsi aurretik, eta horregatik ez du parte hartu deialdi hauetan. "Inbertsioa egin berri zuten oraindik, eta amortizatu gabe", dio Azkoitiak.

Elgetaren kasuan, udaletxearen esku dagoen argiteria publiko guztia led motakoa da dagoeneko -diputazioarena den argiteriaren zati bat oraindik ez-, eta Oñatin ere badoaz apurka-apurka argiteria publikoa mota horretakoa jartzen.

Leintz Gatzagan, berriz, kontsumo baxuko fluoreszenteak dituzte herri osoan, baina aurrera begira, led motakoak jartzeko asmoa dute.

Aramaion, azkenik, materiala eskatuta dute eta iritsi bezain pronto, Pedro Ignacio Barrutia eta Aita Gabirel Jauregi kaleetan jarriko dituzte led argiak.

**2017AN, 2.870 LANPARA ALDATU ZITUZTEN LED ERARA ETA 2019AN, 1.308 ALDATUKO DITUZTE**



**AZAROAK 16 | 19:00 | SEMINARIOA**

**ANTZERKIA**

"Erradikalak ginen, gara eta izango gara".  
Antolatzailea: Jardun

**AZAROAK 21 | 18:30 | UNED**

**HITZALDIA** "Estado de derecho y violencia de género"  
Ixusko Ordeñana Gezuraga (UNED-eko irakaslea)

**AZAROAK 25**

**KONTZENTRAZIOA**

**12:00** Duintasuna Taldearen kontzentrazioa

"Emakume helduetan indarkeriarik ez" lelopean.

**EKIMENA**

**19:00** Martxanterak talde feministak antolatutako ekintza.

**ZINEKLUB ZIKLOA**

"Indarkeriatik haratago,  
emakumea protagonista"

**ASTEAZKENA | 20:00 | SEMINARIOAN**

**Azaroak 6**

"Figuras ocultas"

**Azaroak 13**

"En Femme"

**Azaroak 20**

"Custodia compartida"

**Azaroak 27**

"Chicas nuevas 24 horas"



**Eneko Azkarate Laspiur** BERGARA

Nere Arrieta eta Xabier Berasategi. Bikotekide. Lehenak displasia fibroso gaitza du. Gaixotasun arraroa. Estatistiken arabera, 30.000 lagunetik bati eragiten dio. Hazkunde ezohikoa duen eskeletoaren lesio bat da; hezuraren ohiko ehunaren ordez zuntz-ehuna garatzen da. Eta, ondorioz, hezurra ohikoa baino hauskorragoa da. Gaixotasuna ezagutzera emateko Displasia Fibrosa Elkarteak sortu dute. Arrieta bera da presidentea. Asteburuan egingo dute lehen kongresua, Burgosen.

"Duela urte bi jakin nuen 5 urteko mutikotxo gipuzkoar bati displasia fibrosoa diagnostikatu ziotela eta sentitu nuen zerbait egin beharra. Mutiko honek eta bere gurasoek ezin zuten pasa nire gurasoek eta nik pasatu duguna", dio Arrietak.

Gaixotasun arraroekin edo populazioaren zati txiki bati eragiten dioten gaixotasun guztiak bezala, displasia fibrosoarekin ere diagnostiko egokia egitea zaila da. Arrietari 5 urte zituenean diagnostikatu zioten. Gaur egun, 52 urte ditu. Medikuek uste zuten tumore bat zeukala: "Azken finean, tumoreak hazkunde ezohikoak dira". Gurasoen lagun batzuek lortu zuten gizarte segurantzaren bidez Nafarroako Opuako ospitalean sartzea. Biopsia egin ostean, medikuak besotan hartu ninduean hezurra hautsi zitzaidan. Txikitari sarri hausten zitzaizkidan hezurak. Igeltsua ipintzen zidaten eta hiru hilabetera sendatzen zitzaidan hezurra... Baina hazkunde unean nenbilenez, hanka bat hazten zitzaidan eta bestea ez. Horregatik daukat hanka bat bestea baino luzeagoa", dio. Gaur egun aurreratu egin da asko eta halako kasu aurrean, hezuraren barruan iltze teleskopikoa sartzeko dute eta hezurra hazten doan heinean iltzea ere hazten doa.

Gaixotasunarekin lotutako sintomak honako hauek dira: mina, hezurren deformazioa, min kronikoa, askotariko hausturak eta ibiltzeko zailtasuna; are gehiago, displasia fibrosoak garezurreko hezurretan eragiten duen kasu batzuetan, entzumen eta ikusmena galtzeko arriskua dago. Horrez gain, edozein hezurretan eragin dezakeenez, gaitzak jota dagoen hezuraren arabera edota lesioen hedadu-



Nere Arrieta eta Xabier Berasategi, Bergaran, oraingo eguaztenean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

# Gaitz ezezaguna bistaratzen

Txikitatik displasia fibroso gaixotasuna daukan bergarar baten ekimenez, bertako eta Espainiako gaixoak eta haien senideak batzeko zein gaixotasuna ezagutzera emateko elkarteak sortu dute: Displasia Fibrosa Elkarteak

raren arabera sintomak eta larritasuna oso aldakorrak dira.

Ez da gaitz kutsakorra, jatorri genetikoa dauka, baina ez da herentziazko gaixotasuna, eta, "zoritxarrez, gaur egun ez du sendabiderik".

## Elkarteak eta kongresua

Espainian gaitz honekin kalte-tuta dauden talde bat ezagutu zuen Arrietak sare sozialetan. Hala, Erresuma Batuan egin zen nazioarteko kongresu batera joateko aukera izan zuten Arrietak eta Berasategiak. Gaitzaren adituak diren punta-puntako

**30.000 LAGUNETIK BATI ERAGITEN DIO DISPLASIA FIBROSOAK, ETA EZJAKINTASUN HANDIA DAGO**

hiru mediku estatubatuarrek eman zituzten ponentziak. Handik itzuli ziren hemen ere elkarteak sortzeko gogoz. Nazioarteko mailako elkarte bateko kide izateko Espainia mailan egin beharko zuten. Horrela sortu zuten, Bergararik, Displasia Fibrosa Elkarteak, Espainia osoko gaixoak batu nahi dituen elkarteak. Gaitza duten pertsonen, haien senideen eta orokorrean prebalentzia baxuko gaixotasun honen arazoarekin sentsibilizatu dauden pertsonen osatzen dute irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua.

Asteburu honetan Burgosen egingo dute lehen kongresua eta haien asmoa da nazioarteko kongresu bat Bergaran antolatzea hemendik urte batzuetara. "Gaixotasuna diagnostikatu berritan dagoena bakarrik, triste, laguntza bila aurkitzen da, ez dakizu

nora jo... Elkartearen helburua da horiei laguntzea, harrera egitea, entzutea... Bakardadetik aterata eta taldean sartzeko gonbita egitea, bakardadea une hori hausteko", dio Arrietak. "Ama errudun sentitu da beti. Haurdunaldian, fetuan, sortzen den gaixotasuna delako. Mutazio genetikoa da. Amak uste zuen berea zela arazoa. Eta medikuek ez zekiten arazoaren benetako arrazoa", dio.

Horregatik, gaixoei eta haien ingurukoei laguntza eskaintzeaz gain, gaixotasunaren gaineko informazioa -ikerketen berri,

**BI BERGARARREK ELKARTEA SORTU DUTE ETA LEHEN KONGRESUA EGINGO DUTE ASTEBURUAN**

aholkuak edota berriak -batzen duen webgunea sortu berri dute elkarteak sortzeaz bat: [www.displasiafibrosa.es](http://www.displasiafibrosa.es). Oraingoz gaztelaniaz bakarrik dago, baina euskaratzeko bidean ere bada biltza. Gaurtik domekara bitartean Burgosen egingo duten kongresua prestatzen burubeltari ari dira Arrieta eta Berasategi. Gaixotasun arraroen zentroan egingo dute. Eta gaixotasunaren alor ezberdineko mediku adituek hartuko dute parte. "Diziplina asko batzen ditu gaixotasunak. Ni traumatologoak artatu nau beti. Baina ez da hezuraren arazo hutsa. Orain, nerbio optikoa, entzumen... dena zaintzen edo begiratzen dut".

Herritarrek, oro har, eta instituzioak kontzientziatzeko helburua ere badu elkarteak. Horretaz gain, arlo soziosanitarioan profesionalak eta ikasleak trebatu nahi dituzte "jardueraildoak eta protokoloak ezarri ditzaten. Eta, honekin batera, gaixotasun honetan adituak diren profesionalen sarea ere sortu nahi dugu. Modu berean, ikerkuntza sustatu eta piztu ere bai".

## Gaixotasunari ikusgarritasuna

Elkarteari ikusgarritasuna emateko, hedabideen bidez hasi dira zabaltzen mezua. Baita sare sozialetan ere. "Ahalik eta jende gehienaren elkarlana eskatzen ari gara. Oso erraza da, hiru edo lau segundoko bideo txiki bat grabatu behar da gure elkartearen logotipoa eta webgunea bistan dagoela, motibagarri bezain erraza den esaldi bat errezitatu behar da: 'Displasia Fibrosa Elkartearekin bat egiten dut'. Edo antzeko esaldi bat". Dagoeneko hainbat pertsona ezagunen babesa eta lankidetzara jaso dute, hala nola Mikel Laskurain, Anabel Alonso eta Iñaki Miramon aktoreena, eta Asier Garitano futbol entrenatzailearena.

Aurrera begira, bultzagile bergararrek nahi dute lortu elkarte onuragarria izatea. Era berean, gaitza duten pazienteen europar erregistro bat egitea; eskoletan orientazioa ematea; ikerketa sustatzea; liburu zuri bat argitaratzea, non ingelesez publikaturik dauden gaixotasunari buruzko artikuluak gaztelera eta euskarara itzuliko diren; "haurrekin gaixotasuna landu, gure geroa baitira"...



ZABALIK

IGOR ARIZMENDIARRIETA

## Lehengo lepotik burua

Azkenengo aldiz iritzi artikulua idatzi nuenean, hauteskunderen jirabiran tokatu zitzaidan. Oraingoan, berriz ere, testuinguru berean egokitu zait idaztea.

Izan ditugun emaitzei erreparatuta, lehengo lepotik hazi da burua. Agian, esango nuke zeozer aldatu dela... baina zer aldatu da? Bada, gure poltsikoetatik 140 milioi euro lapurtu dizkigutela beraien negoziatio gaitasun eskasagatik. Edo, beste modu batean esateko 4,99 euro pertsonako. Zerbait fundamentuzkoa egingo genuke, bai, ustez alferrik xahutu den diru mordo horrekin... Baina, beno, ez da beraien dirua eta horrelakoetan errazagoa da kudeaketa egitea.

Aurtengoan, pasa egin zait etxera bozkak eta propaganda ez bidaltzeko eskaera egitea. Ea, ba, hurrengoan garaiz nabilen.

Baina lasai, berdin-berdin ikusiko ditugu parlamentariak Parlamentuan mokoka, gezurretan, txistuka, iseka egiten... haur

jolas-tokia balitz bezala. Gizartearendako primerako eredu.

Gainera, oraingoan, zalaparta gehiago egongo den susmoa daukat, sartu diren 52 berdeak aintzat hartuta –eta ez naiz ekologistez ari–.

### BERDIN-BERDIN IKUSIKO DITUGU PARLAMENTARIAK MOKOKA, TXISTUKA, GEZURRETAN...

Sarri ikusiko dugu baita ere Parlamentua erdi hutsik saioaren batean, parlamentariak beraien mugikorrek jolasten, beste batzuk kanporatuak, eta abar. Piper egiten ere nahiko abilak, gaia interesekoa ez denean; zertarako joan Parlamentura?

Zer gertatzen zaio ikasle bati, iseka egiten, mokoka, gezurretan, piper egiten, mugikorrarekin klasean harrapatzen edota kanporatua izaten denean? Ba, ondorioak dituela; neurriak hartzen direla, alegia...

Bitartean, gure hezkuntza legea onartu eta betearazten dutenei hori guztia egiteagatik ez zaie inongo ondoriorik ez neurririk ezartzen. Eta hori ez da bidezkoa, baina horrela da.

Ea, ba, hurrengo artikulua idaztea egokitzen zaidanean ez dugun hauteskunderik inguruan; Espainiakoak ez, behintzat, ez litzateke-eta seinale ona izango.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Harrotasuna

#### GOIZALDE LANDABASO

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Suomiera hizkuntza goxoa da, ia-ia xuxurlaka hitz egiten dena Helsinkiko zeru amaiezinean.

Lantzean behin osterantzeko hizkera gogorragoak entzungo badituzu ere, oro har, suomiera da Helsinkiko –eta Finlandiako– biztanleek hitz egiten dutena.

Ehuneko gutxi batek suedieraz hitz egiten du; izan ere, mende luzeetan Suediako zati izan zen Finlandia.

Esolan ikasten da suediera; ez, berriz, samiera, Laponian milaka bakar batzuek berba egiten dutena.

Kareliera ere ez da Finlandiako Karelian ofiziala.

Ezta Finlandiako ijitoek darabilten erromaniaren kutsu nabarmena duen hizkuntza ere.

Hauez gain, ingelesez mintzo dira Helsinkiko biztanleak; ederto baten, egin ere.

Hain eredugarria den eskolan oso txikitan irakasten hasten dira, eta telebista publikoan (Yle) zein pribatueta ikusten dituzten film, erreportaje, dokumental, telesail edota publizitatea azpituatua dute.

Belarria eginga dute, beraz.

Giroa hotza den arren, abegikorrek dira kanpotarrekin.

Gero, luzaroan bizitzera gelditu nahi duenak ikasi egin

beharko du bertako hizkuntza. Hamburg-en bezala, Amsterdamen edo Napolin legez.

Zerorrek egokitu behar duzu zoazen tokira.

Beharbada, horixe da ikasi beharko genukeen lezioa: gurea atek zabaldu eta datorren orori sartzen utzi, abegikorrek izan gu ere; baina gurean harrotasunez erakutsiz, garen horri traizio egin barik.

Izan ere, joan-etorrian asko etorriko dira, eta joan ere bai.

Berton geratzen garenok, ordea, behar dugu gure identitatea ahaztuko ez dituen tresnak eta elementuak.

Post gehiago 10. orrialdean.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.  
**Administrazioa**  
Ane Bereizbar,  
Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.

**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

## BERBAGAI

# "Erakundeak eta eragileak batera joatea emankorra da"

**GARBIÑE MENDIZABAL** HIZKUNTZA BERDINTASUNeko ZUZENDARIA

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria *Harira* saioan izan da. Euskaraldiaz, euskararen normalizazioaz edota euskalgintzako herri eragileen eta erakundeen arteko elkarlanaz jardun du. **Zure aurrekoa, Mikel Irizar, erakundeen eta herri eragileen arteko zubi-lana egitearen aldekoa izan da. Nolako da elkarlan hori?**

Euskalgintzan ari diren eragileen eta erakundeen arteko bidea urratu izana oso emankorra izan da. Ezarri da lan egiteko modu bat. Euskararen biziberritzerako funtsezkoa da eta horretaz konturatu gara bai erakundeak eta baita herri eragileak ere.

**Zertan gauzatzen da elkarlana?** Proiektu bat jartzen denean mahaiaren gainean, erakundeetatik edo herri eragileetatik datorrena, bakoitzak bere esperientzia jartzen du proiektua osagarri



Garbiñe Mendizabal, Goiena telebistan, martitzenean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

izan dadin. Adostasun batera heltzen gara proiektua aberastuz.

**Ze aurkitu duzu euskalgintzan, euskaraz eta euskara bultzatzen lanean diharduten gizarteko talde edo elkarteetan?**

40 urte igaro ditugu, bai erakundeak eta baita gizarte eragileak, egiturak sortzen, eraikitzen, bakoitza bere aldetik egiten... Gauza asko lortu dira, baina heldu da momentua nolabaiteko

desordena hori ordenatzeko. Bikoizketak saihesteko, indarrak batzeko eta eraginkorrakoak izateko. Lan egiteko moduak ere profesionalizatu behar dira... **Zein izango da legegintzaldi honetako lehentasuna, ze utzi nahi zenuke eginda?**

Batetik, Foru Aldundiaren eta Aldundiaren gainerako erakunde euskararen erabilera plana eginda uztea. 2023an erabat euskaraz funtzionatu duen erakundea izan dezagun. Bestetik, kirolaren esparruan beste jauzi bat eman beharra dago, eskolaz kanpoko gainerako jardueretan bezala. Eta lan munduan ere bai.

**Euskaraldia bueltan da. Balio izan zuen lehen edizioak?**

Bai, bai, oso balorazio positiboa egiten dugu. Jendeari sortu dio ilusioa eta indarra eman dio euskaraz aritzeko. Esaterako, bada egunerokoan lantokian txaparekin aritzen denik, batzuk lantokia dutelako euskaraz aritzeko gune bakarra.

**Foru Aldundiaren ekarpena zein izango da Euskaraldian?**

Esaterako, Intxaurrendon dagoen Foru Aldundiaren Txarako eraikinean arigunea sortu da. Froga modura, egun batzuetan Euskaraldia

praktikan jarriko da orain eta ondorioak aterako dira, zerk funtzionatu duen eta zerk ez jakiteko eta datorren urtera begira erakundeetan aplikatzeko. Erabat motibatuta daude langileak.

**Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek euskarazko hedabideekin adostutako laguntzak zeren arabera banatuko dira aurrerantzean?**

Hiru urterako zein diru-laguntza jasoko duten badakite hedabideek eta hori berme bat da proiektuei egonkortasuna emateko. Kostu estandarrak hartuko dira aintzat. Foru aldundiek banatuko dituzte papereko argitalpenen diruak eta Jaurlaritzak ikus-entzunezkoenak, webguneenak eta nazio mailako hedabideenak.

**Kultura sorkuntza ere laguntzen da Hizkuntza berdintasunerako zuzendaritzatik. Horrela izango da beti?**

Aipatutako 40 urteko desordena horretan, euskarazko kultura bultzatzeko, erakunde bakoitzak eta sail bakoitzak ahal izan duena egin du. Orain, euskarazko kultura nondik bultzatu behar da, Hizkuntza berdintasuneko zuzendaritzatik ala kultura alorretik? Hor dugu eztabaidea.

## ITURRI ONETIK

## Lehendakaria, Ederlanen lantegi berrian

Bergarako San Juan auzoan duen behe presioko aluminio galdaketarako eta mekanizaziorako teknologian espezializatutako lantegia inauguratuko du astelehenean Fagor Ederlanek. Iñigo Urkullu lehendakaria, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua eta Mondragon Korporazioko lehendakari Iñigo Uzin izango dira, Fagor Ederlaneko buruekin batera. Bergarako eta Arrasateko lantegiaz gain, Mexikon eta Txinan ere baditu lantokiak Ederlanek.

## ALBISTE IZAN ZEN



2008-11-10

## 'Bikain' ziurtagiria Debagoieneko bost enpresak

**Bikain** euskara ziurtagiria jaso zuten ibarreko bost enpresak; tartean, Goiena Komunikazio Taldeak. Bost horietako hiruk, gorenekoa, urrezkoa: Elay taldeak, Emunek eta Goienak berak. Beste biek, Eroskik eta Fagor Etxetresnek, zilarrezkoa. Erkidegoan 30 enpresa eta erakundeak jaso zuten saria. Euskara eguneroko lan jardunean normaltasunez erabiltzeko duten konpromisoaren eta emaitzen aitortpen gisa jaso zuten saria.

## HAU BE BADOGU!

## Tsunamiak Euskal Herrira heldu da

Katalunian azken asteetan *#tsunamidemocratic* traola erabili dute independentziaren aldeko mugimendu eta ekintzekin bat egiteko, eta asteon, *#tsunamidemokratikoa* heldu da gurera, Behobiako muga oztopatzeko dei egin ostean:

*@teketen*: "Eta orain pentsatu Smart kotxeekin *#TsunamiDemokratikoa* (GPS, Internet eta egindakoaren datu historiko eskuragarri batekin) edo okerrago kotxe autonomoekin... Ia ezinezkoa litzateke. Teknologia kontrolatzen ez badugu, boterea dutenek kontrolatuko dute".



## DEBAGOIENA ERALDATZEN

MIREN ARREGI / KAZETARIA ETA D2030 EKIMENEO KIDEA

# Etorkizunari aurre hartu, bakarrik ala batera?

Etengabe entzuten dugu etorkizunak erronka konplexuei erantzun beharra ekarriko duela. Etengabe ikusten ditugu komunikabideetan, erronka global horiei munduko beste tokietan emaniko erantzun eredugarriak erakutsiz egiten diren erreportajeak, edo erronka horiei erantzun egokiak aurkitu ezean gizakiak aurkituko duen eszenatoki apokaliptikoak hitz egiten duten albisteak. Etengabe entzuten ditugu politikariak –denbora gehiegi pasatu da hauteskunde kanpainak hasi zirenetik– etxebizitzaren alokairuen neurrigabeko prezioak jaisteko emango dituzten pausuez berbetan; edo elikadura burujabetzaren mesedetan hartuko direnez, edo inklusio sozialaren alorrean dauden hutsune larriez, edo entzuten ditugu euskararen egoera nola hobetu eztabaidatzen, klima aldaketaren inpaktua gutxitzera etorriko diren erabakien gainean, edo migrazioaren dramari erantzun gizatiarrak ematera bideraturiko proposamenak egiten. Hori bai, bakoitzak beretik.

## Pertsonak, gakoak


Eta erronka ez da edonolako. Ingurugiro ingeniaria den Lander Jimenez irakurri nion tarte honetan bertan, nola larrialdi klimatikoak bizitzak ipintzen dituen arriskuan, biztanleak herri batetik bestera mugitzera behartzen dituen, eta mundu osoko biztanleak Debagoieneko biztanleak bezain besteko isurketak sortuko balituzte, nola lau planeta beharko genituzkeen berotegi efektuko gasen eragina asetzeko. Tarte honetan irakurri nion baita ere Nagore Iñurrategi MUko irakasle eta ikerlariari dis-gaitasuna duten pertsonen aurrean jartzen garenean,

pertsona ikustera iristen garenean soilik hasiko garela onarpenerako urratsak egiten, eta begirada aldatzea dela ezinbestekoa, inklusioa egongo bada. Eta garun paralsiaren aurrean, edo osasun mentalak dituzten pertsonen aurrean, edo adimen urritasuna duen pertsona baten aurrean jartzen garenean nor ikusten ote dugun, dis-gaitasuna, edo pertsona. Oñatiko Natur Eskolako kide Aimar Uribealgok jarri gintuen krisi ekologikoak hartu duen protagonismoak, berrikuntza sozialaren beharraz eta berdintasunaren, kooperazioaren, komunitatearen garrantziaz, edo zaintzaz gogoeta egiten. Adibide batzuk besterik ez dira, ditugun erronkei erantzunak bilatzeko bidean gako izango diren pertsonen mahai gainean ipini dituztenak. Pertsonok izango baikara, bide horretan gakoa.

## Pertsonatik taldera

Adibide batzuk besterik ez dira, dagoeneko klabe horretan aspaldi pentsatzen hasi zen gizarte baten isla direnak; izan ere, ziur nago gure ingurune hurbileko udal, elkarte, industria, hezkuntzako eragile, herri mugimendu eta gehiago jarriak direla erronka sozial askotarikoei erantzunak bilatzeko klabean. Haiek badituzte esku artean halako edo bestelako proiektuak, kezka horretatik abiatuta sortuak. Ekuazioa honela gelditzen zaigu, beraz. Hor daude herritarrak, norbanakoak, eta hor daude herritarrak antolatuta eratzen diren eragile, herri

**ETORKIZUNAK  
ERRONKA  
KONPLEXUEI  
ERANTZUN BEHARRA  
EKARRIKO DIGU**



ITZIAR LARRAÑAGA / GMIK

mugimendu, enpresa zein erakunde publikoak. Eta galdera da ea horiek guztiek, bakoitzak bere aldetik eta elkarren arteko lotura barik, izango duten behar adinako indarrik esku artean ditugun erronkei tamainako erantzunak emateko.

## Debagoiena, lanerako prest

Klabe horretan pentsatzen jarrita, eskualdeari begira jarri naitzaio, izan ere, alferrikakoa izango da erantzunak elkarrekin eman behar direla defendatzea, horretarako desiorik ez badago. Beraz, ba al dago elkarlanerako nahirik? Ikusten al da beharrik? Debagoienean, ba al dago lehengairik? Kezkatzen gaituzte gure seme-alabei utziko diegun etorkizunak? Gertu gaude emateko? Gertu gaude elkarrekin eraldaketa bultzatzeko?

Batzuek pentsatuko dute ezetz, nahiago dutela euren egunerokoan sortzen

**BAKOITZA BERE  
ALDETIK JOANDA,  
IZANGO DUGU  
INDARRIK ERRONKEI  
ERANTZUTEKO?**

zaizkien arazoak kudeatu, nork bere ziborrera begiratu eta indarrak euren ongizate ekonomiko baten alde xahutu. Beste asko, eta eskualde honetan ez dira gutxiengoak, lanerako eta ekintzarako gertu egongo dira, erronkak identifikatu, ideiak mahai gainean ipini eta proiektuen mesedetan ahal dutena emateko.

*Bailara ekintzailea izan da gurea; beti jakin izan dugu egoera zailetan aurrera egiten, edo kooperatiben bailara da hau bezalako esaldiek ohartarazten digute bailara langilea, ekintzailea, berritzailea eta kooperatzailea izan dela gurea, eta oraindik ere izaera horretatik tiraka emateko asko izan genezakeela.*

Adibide bi emango ditut elkarlanaren bidea lantzeko nahia eta beharra dagoela defendatzen dutenak eta orain oraingoak direnak, gainera. Joan den astean,

**ESKUALDE HONETAN  
ASKO DIRA LANERAKO,  
BERRIKUNTZARAKO  
ETA EKINTZARAKO  
GERTU DIRENAK**

Bergaran egin zen Eskualdeko Sarearen I. Topaketan ikusitakoa da lehenengoa. Ia 80 eragile elkartu ziren bertan, eskualde saretu eta batu batek etorkizuneko erronkei erantzuna emateko izan dezakeen ahalmena balioan ipintzeko. Ia 80 eragile batu ziren, udazkeneko arratsalde ilun eta euritsu baten, eskualdean lankidetzatik eraldaketa ahalbidetzera datorren proiektu baten babesean. Ez da gutxi!

Bide beretik mintzo da joan den astean Goiena teibestak eskaini zuen *Debagoiena eskualde batua* erreportajea ere. Alegia, lankidetzarako eta kooperaziorako urratsak egiteko beharra dagoela eta bide horretatik etorkizun itzaropentsua ikuskatu genezakeela esatera. Oraindik ere bide emankorra dagoelako lantzeko eta horrek aukeraz beteriko eszenatoki bat zabaltzen digulako. Egindakoa nahikoa ez delako, eta egitekotan, elkarrekin eta ikusmira zabaltzetik egin beharko delako. Beraz, egingo dugu ahalegina, elkarrekin eta norabide partekatuan, erantzunak bilatzeko?



## GUTUNAK

## Txistulari Eguna

IGOR HERRARTE

UDALAXPE ARRASATEKO TXISTULARIEN  
IZENEAN  
ARRASATE

Orain dela aste bi, Leintz Balarako Txistulari Eguna ospatu genuen Arrasaten.

Eguraldi ederra eta giro aparta izan genituen lagun, eta baita gure bailara honetako txistulari mordoa ere.

Udalaxpe txistulari taldetik eskerrak eman nahi dizkizuegu egun hau antolatzen lagundu diguzuen guztioi: Ibai-arte, Udala, inguruko herrietako txistulariak...

Bereziki eskertu nahi dugu Leintze elkartekoen eta SUDCekoen laguntza.

Askotan geratzen da euren lana oholtzaren gortinen atzean eta fokuetatik urrun.

Hori bai, euren lanagatik ez balitz, herri honetan egiten ditugun ekintza askok ez lukete distira bera izango.

Jarraitu horrela.

Eskerrik asko!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HANDIK ETA HEMENDIK

## 'Heidi' Martzillan

AINGERU EPALZA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

"Iruñekoek *Heidi* dirudizue.

Berdea baizik ez duzue maite". Horra Erriberako biztanle baten kexa, hiriburuko jendeari.

Arrazoiz. Iruindarrak, eta berdin iruñerriarrak, oro har, "berderako" du isuria, "hori-gorrirako" gabe.

Iparraldera aiseago jotzen du hegoaldera baino. Nekez du Erriberriko marra gurutzatzen. Areago euskalduna bada. Erribera gabe dena konponduta legokeela uste dutenak ez dira lau txoropito hiri buruzagiko euskaltzaleen artean.

Nire inguruko gazte bat ez zebilen ustekeria horretatik urrun. Iruñeko alaba petoa. Euskalduna, etxetik. Aita-amen eskutik Sakana eta Larraun ezagutu ditu. Baztan eta Bortziri. Ultzama. Aezkoa. Iruñerriko gainerako herriak, kuadrillarekin. Tafalla eta Lizarra, udako besta-egutegiari esker. Haratagorik ez.

Etxean jakinarazi zuelarik Unibertsitatean Martzillako mutil bat ezagutu zuela, eta hura "arrunt-arrunt majoa" zela, halako ezinegon bat sumatu zien gurasoei.

Berrikitan, ferietara gonbidatu du, larunbat eta igande. Hartara, gure neska gauza aunitzetan estreinatuta da asteburuan. Ez dira denak hemen kontatzekoak. Orain badaki zer den *pipero* bat, nolako zaporea duen

ajoiarrieroak barraskiloak gehitzen zaizkiolarik edo zer soinu klase duen bazkalondoko kafe-kontzertu batek, bestondoak jota zaudenean. Herriko gaztelua gustatu zaio. Betizuen tenorean harritu egin da animaliei gehien hurbiltzen ziren gazteei jendeak Osama eta Moha erraten ziela ikusita.

Igande gauaz, etxean, ez da samurra izan aita-amekin. "Zergatik ez nauzue inoiz alde horretara eraman?", galdegin die, haserre antzean.

## Noiz arte gaude?

IZARO ANDRES

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Kontzertua izan dugu duela gutxi BECen, Belako eta Rural Zombies-ekin batera. Azken hauen azken kontzertua izan da Euskal Herrian, taldea desegitea erabaki dute. Ezin diotela gehiago eutsi. Nekagarriegia dela *benetako lana* eta musika uztartzea, ordu eta gastu gehiegi. Osasuna kolokan jartzeraino, mentala eta fisikoa. Zoritxarrez ezin dutela beste lana utzi, musikara dedikatzeko. – Kostata– alokairua ordaindu ahal izatea erabaki dute, eta, bide batez, jan. .

Jaione Dagdrommer-en hitzak irakurri ditut *Berria*-n: "Zenbat abesti geratu ote dira sortu gabe lanbide beharrean afizio huts zirelako?"

Zorionekoa sentitzen naiz ni, gaur-gaurkoz eusten diodalako, beste lan

batzuekin uztartuta –irratia, ekitaldi pribatuak, han eta hemen idatzi, etab.–, baina *Izaro*-pean eusten diodalako. Eta ni diodanean, ni naiz, nik eusten diot *Izaro*-tik, ezingo genituzke bi pertsona eutsi. Dozena bat pertsonak egiten dute niretzat lan, baina ez niretzat bakarrik. Ezer propiorik ez daukat, gitarra, mikrofona, ordenagailua eta mugikorraz gain. Baina alokairuak ordaintzen ditut, bi: etxekoa eta entsegu lokalekoa. Eta oporretan joaten naiz –bekatua!–. Hala ere, jakin badakit ingurukoek mesede asko egiten dizkidatela, eta nik beraiei, erdi ofizio erdi ekonomia zirkular batean. Lantzean ondo, lantzean zenbaki gorrietan –eta hemendik eskerrak dirulaguntza preziatuei–. Nahiago nituzke gauzak bere balioz ordaindu. Helduko da hori ere, nolabait heltzen dabil eta. Baina helduko al da?

Foku bat itzaltzen da sortzaile bati amore ematea besterik geratzen ez zaion bakoitzeko. Ezin biziraun. Eta pentsatzen dut nik, biziraungo al dugu besteok, zonbiek ere ez badute biziraun?

## Beharra

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/OXFRE

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Amagoia Mujika Tolaretxipik atzoko bere analisisian zioen "... baina besteak beste eskuin muturraren gorakada izugarriaren ondorioz, gauzak

aldatu egin dira eta gehiago alda daitezke.

Espainiako ezker blokeak horregatik bilakatu omen du 'aukera historikoa' zena 'behar historiko'.

Temaren atean ere beharra gako.

Beharra irakasle.

Ez genuen oraintxe ikasi ez dela irakasle hoberik.

Google poeta ona da.

Tekla bati kalka, eta ez dakizu nondik irtengo zaizun.

Ni, Espainiako ezkerrena azaltzeko atsotitz baten konfirmazio bila nenbilen.

Betidanik esan izan baitugu "beharra irakasle ona da".

"Beharra irakasle" idatzi dut, errefraua hedadura eta sakonera maila neurtzeko.

Eta Googlek figura poetiko bat itzuli dit, kiasmo bat oparitu.

Hitzen ordena aldaketa xume batek esanindar handia izan dezake.

"Beharra irakasleren" bila nenbilen eta Googlek erakutsi dit "irakasle beharra" handiago dela.

Gotzon Garaterengana iritsi baino lehen egin dut topo euskara zein ingeles irakasleen beharrekin; irakasle beharra Tafallan eta Euban; irakasle beharra Iralen...

"Irakasle beharra" "beharra irakasleri" gailendu zaio sarean.

Zerbaitengatik.

Nik ere nahiago nuen Pablo Iglesias irakasle, Pablo Iglesias presidenteorde baino.

Post gehiago 6. orrialdean.

## HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



# Aurten ere, 250.000 euro herritarren proiektuetara

Arrasatearrek hilaren 24ra arte eman dezakete botoa aurrekontu parte hartzaileetan. Guztira, 113 proposamen daude eta 18 urtetik gora dituztenek hiru gustukoenak aukera ditzakete: lehenari bost puntu, bigarrenari bi eta hirugarrenari bat

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Herritarrek proposatutako proiektuetara 250.000 euro bideratuko ditu Udalak bigarrenaz, eta horiek aukeratzeko parte hartze prozesua martxan dago. Hala, azaroaren 24ra arte, 113 proiekturen artean hiru gustukoenak aukeratu ahalko dituzte. Iaz egin ziren lehen aurrekontu parte hartzaileak, eta bertatik atera ziren Txikitxikoa, bizikletak garbitzeko gunea eta Erguingo igogailu proiektua idazteko ekimenak, besteak beste.

Atzo egin zuten aurtengo aurrekontuen aurkezpena. EAJko Anuska Ezkurra, EH Bilduko Mainer Morras, Elkarrekin Arrasateko Igor Urizar eta udal webgunea kudeatzen duen Jon Eguren izan ziren bertan. Ekimenak Udaleko alderdi guztien babesa du, baina alderdi sozialistako ordezkariak ezin izan ziren agerraldian egon. Ezkurrak adierazi zuen iazko ekitaldian "parte hartze handia" izan zela proposamenak egiteko orduan -352 proposamen jaso zituzten-, baina "ez hain handia" botatzeko orduan. Hori dela eta, atzo ireki zen botaketa fasean parte hartzera gonbidatu zituzten herritarrek, eta hori errazteko sei botaketa-gune jarriko dituzte aurten: BAZ, Kulturate, Musa-



Jon Eguren, Anuska Ezkurra, Igor Urizar eta Mainer Morras, astelehenean. X. GOROSTIDI

kolako kiroldegia, Santa Marinako liburutegia, Etxaluze erretiratuaren etxea eta Gazte Bulegoa. Hala, astean lau egunez udal langile bat egongo da gune horietan, ordenagailu batekin, herritarrei botoa emateko prozesuan laguntzen.

Aurrez aurreko botoaz gain, udal webgunean ere eman ahalko da. Beharrezkoa izango da 18 urtetik gora edukitzea -2019ko azaroaren 11ko datarekin- eta Arrasaten erroldatuta egotea. Norbere nortasun agiri zenbakia eta jaiotza-data finkatu ostean,

hiru proposamen gustukoenak aukeratu beharko dira: lehenari bost puntu, bigarrenari bi eta hirugarrenari bat. Balidatu aurretik, puntuen banaketa aldatu nahi izanez gero, aukeraketa desegitea posible da.

**lazkoak eta aurtengoak**

Iaz, 101 proposamen geratu ziren egin gabe eta aurten berriz botatu ahalko dira. Horiez gain, beste hamabi proposamen berri egin dituzte aurten arrasatearrek; beraz, guztira, 113 aukera egongo dira botatzeko.



Udal langile bat, Kulturaten jarritako boto gunean. XABI GOROSTIDI

## Bulegoak martxan, astelehenetik

Arrasatearren parte hartzea areagotzeko sei gune jarri dituzte astean lau egunez, jendeak boto fisikoa emateko: BAZ, Kulturate, Musakolako Kiroldegia, Santa Marinako liburutegia, Etxaluze eta Gazte Bulegoa. Orduetegi zehatzak, *Goiena.eus*-en ikus daitezke.

## Aurten, hamabi proposamen berri

Hauek dira aurten arrasatearrek 2019an egin dituzten eta onartuak izan diren proposamen berriak.

- **Garapen komunitarioa** Herrian egiten diren aktibitateak bateratzea.
- **Garbitasuna** Zigarrokinak botatzeko edukiontzia jartzea kaleetan.
- **Garbitasuna** Herriko zaborrontzi kopurua bikoiztea.
- **Ingurumen ekintzak** Deba ibaian bizia emateko ekintzak antolatzea.
- **Irisgarritasuna** Jose Luis Iñarra kalea zabalago egitea, espaloiak konpontzea, zuloak kentzea eta zebra-bideetako koxkak kentzea.
- **Irisgarritasuna** Jose Luis Iñarra kaleko espaloiak konpontzea eta bertako ziburuak konpontzea.
- **Hobekuntzak** Santa Marina auzoa berritzea: loreak jartzea, horma-irudiak margotzea...
- **Hobekuntzak** Kanean komun publiko gehiago jartzea.
- **Hobekuntzak** Adituak ez diren entzuleentzako moduko hitzaldiak egitea.
- **Kultur ondarea** Herriko eskulturrei balioa ematea.
- **Kultur ondarea** Herriko eskultura industrialei balioa ematea.

## Udalatxi bira eta Meatzerekan bisita, zapatu goizean

Arrasateko mendi altuena inguratzeko ibilaldia egingo dute bihar. Hitzordua: Udalako apar-kalekuan, 09:00etan. Horrez gain, Meatzereka eta San Balerio hobeto ezagutzeko bisita gidatua ere egingo dute bihar goizean, Arrasatek altzairuaren munduan izan zuen garrantzian sakontzeko. Hitzordua: 10:00etan Herriko Plazan edo 11:00etan San Balerion.



Udalatxeko paraje bat. ARRASATEKO UDALA

## Gaztaina-jana, hilaren 22an

Udazkenaren hoztasuna goxatzeko gaztaina-jana egiten dute aspalditik Arrasate Herri Eskolako lagunek; ez Eskolako haurrentzako baizik. Aurtengoa gaur egitekoak ziren, hasieran, baina arazo batzuegatik astebete atzeratu dute. Beraz, azaroaren 22an, barikua, gaztaina usaina nagusituko da Herriko Plazan.





2014an babarrun lehiaketa egin zuteneko argazkia, non Danok Bat elkarteak irabazi zuen. XABI GOROSTIDI

# Babarrunek geldialdia egingo dute Seber Altuben

Baserritarren Azokan askotan izaten da protagonista sasoiko produktu bat; bihar, zapatua, azarokoa egingo dute, eta oraingoan, babarrunari tokatuko zaio. Bezeroen artean kalitatezko lekalez osatutako Eusko Labelen hamar otarre zozketatuko dituzte

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Baserritarren Azokaren baitan, I. Babarrun Eguna antolatuko dute Udaleko Garapen Iraunkorreko Sailak eta Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak.

Urteko sasoi honetan hain ondo sartzen den babarruna askotariko koloretan ikusteko eta erosteko aukera zabalago izango da, beraz. "Gure lurretara eta gure klimara bikain egokitzen den produktua da babarruna. Akaso, ezagunena Tolosako babarrun beltza da. Gure inguruan badaude era horretako babarrunak ekoizten dituzten baserritarrak, eta horien produktuak erosi ahaliko dira. Baina ez beltza bakarrik; baita Araban oso preziatua den pinta babarruna eta *arrocina* izenez ezagutzen den babarrun zuri txikia ere bai", azaldu du Landa Garapenerako Elkarteak Agurtzane Diazek.

Babarrun moten arteko ezberdintasunei eta antzekotasunei buruz galdetuta, hona Diezen erantzuna: "Landatze prozesuan

ez da apenas alderik. Maiatzean sartzeko dira eta urri inguruan batu, eta tratamendu bera jasotzen dute guztiek: ereiteko, jasotzeko, mantentzeko... Aldea kolorean dago; baina, batez ere, zaporean". "Behin erosituta, kristalezko poteetan edo telazko poltsetan mantentzen dira hobereen. Denbora luzean mantendu daitezke bertan, baina babarrunekin lotutako edozein zalantza izanez gero, baserritarrei zapatuan zuzenean galdetzea da aukerarik onena", azaldu du Udaleko Garapen Iraunkorreko teknikari Nerea Lazpiurrek.

**Ikusi, erosi eta dastatu**

Azokak hiru aditz horiek praktikan jartzeko balioko du.

**ARRASATEKO HIRU BASERRITAKO BABARRUNAK ETA AZAK DASTATU AHALKO DIRA BIHAR**

12:00etan, Arrasateko babarrunak dastatu ahaliko dira euro baten truke, erositako horrek nolako zapora gozoa eduki dezakeen irudikatzen. Herriko hiru baserritak eroandako babarrunak prestatuko dituzte Lanbide Has-tapeneko Sukaldaritza moduluko ikasleek. Bata Tolosako babarruna izango da, baina Askasibar baserriko Arabako pinta eta Elkorro baserrian batutako baba zuri txikia ere prestatuko dituzte. Ez da goizaldeko ekintza bakarrik izango, ordea. Ordubete lehenago, 11:00etan, haurrentzako tailer bat egingo dute bertako baserrietako sasoiko produktuekin.

**Babarrunak eta gehiago**

Arrasaten ekoiztutako babarrun- ez gain, ingurutik etorritako bost ekoizle txikiren lekaleak ere egongo dira salgai. Lekale horien artean egongo da babarrunekin primeran moldatzen den aza, baina baita dilistak eta garbantzuak ere.



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

## 'Ta ezer ez da berdin'

Arrasateko kale batian ume bat hurbildu eta "*Señor me dice la hora?*" esaterakuen, derrepentien, konturaketan gare gaztaruek, ezer esan barik, alde egin dauela. Kolpien, beste begi batzuek hasten gare geure inguruai begire: antxiñako txima luziak, arropa estuak eta bota makarrak desagertu, eta haretxen lekuen, burusoilak, alkandorak eta zapatak dauzela akordetan gare. Mutaziñue larrixau da seme-alaba izatetik, guraso izatera salto egin douela ikusterakuen, eta hori gutxi balitz, arau danak zalantzan jarri eta kontra egittetik, araujartze amorratu izatera pasau gare. (Seme-alabei galdetu). Ebalten dittuauen argumentuak be mutaziño edo aldaketa horren seiñale die: gaurko gaztiek ez dauela erantzukizunik hartzen, sufrimendurako gaittasunik ez daukiela, entzuten dauien musikie ez dala musikie, gure sasoiak gauzak oso bestelakuek ziela ... Kinttadetarako deialdixe oso pista ona dan arren, atzeneko hillaletan tanatorixuari einddako bisitten kopurua da, zalantza barik, gaztaruak aspaldi fan danaren pistarik argixena. Hertzainak taldian abestixek esaten euen letxe: *Ta ezer ez da berdin*. Ala bai?

## Adindunen bakardade egoerak identifikatu nahi ditu Udalak

Arrasatearren %24,4k 65 urtetik gora dituztela ikusita, bakarrik eta babesgabe sentitzen diren horiek identifikatzeko programa bat jarriko du martxan Udalak. *Begirada aktiboak* izena jarri diote, eta boluntariotzan oinarritutako ekimena izango da. Horretarako, Udalak herriko erretiratuen, pentsiodunen edota pertsona helduen elkarteekin,

erakundeekin, taldeekin zein plataformekin lankidetzan aritzea du helburu, guztien artean bakardade egoerak ahalik eta azkarren identifikatzeko, horien berri gizarte zerbitzuetan emateko eta, azkenik, beharrezkoa den kasuetan egoera horiei aurre egiteko dauden errekurtsoak beharra duten horien eskura jartzeko.

Etkez etxeko laguntza zerbitzua ematen duen Grupo SSI kooperatibarekin batera garatuko dute ekimena.



ARRASATEKO UDALA

## Gesalibarko parkea, aukeratuta

Urriari jarri zen martxan gure horretako parkea aukeratzeko parte hartze prozesua, eta asteon jakinarazi ditu Udalak horren emaitzak. Irudian agertzen den diseinua izan da irabazlea, 69 botoekin. Guztira, 133 lagunek eman dute botoa eta horien erdiak baino gehiagok egin dute irudiko diseinuaren alde: %51,8k, hain justu.



Aloze herriko Basaburu ikastolako umeak, pozarren. SEASKA

# Otarre goxoak, Zuberoako ikastolei laguntzeko

Eperra eta Basaburu ikastolek martxan dute berriz 'Ikaskoli' egitasmoa. Bertako produktuz betetako otarreak saltzen dituzte, eta batutako dirua ikastolara bideratu; ia 15.000 euro batu zituzten 1.400 otarre salduz, eta aurtengoak, jada eska daitezke

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Ikastola guztien laguntza-premia ez da berdina. Hego Euskal Herrian euskara ofiziala da, baina Zuberoan, ordea, ez, horrek dakarren guztiarekin: egoera ekonomikoa zaila eta erakundeen babes falta.

Egoera zail horri aurre egiteko, gurasoak otarreak saltzen hasi ziren 2003an, eta 2013an Hego Euskal Herrira hedatu zuten kanpaina. Ikastolako haurren gurasoek egindako produktuz betetako otarreak dira: gazta, ezti, bixkotxak, pateak... Hauek salduz lortutako irabaziak ikastolaren behar ekonomikoak estaltzera bideratzen dituzte, eta horri esker, besteak beste, ikastola handitzea lortu dute. Baina egoerak larriak izaten jarraitzen du eta euskaltzaleen laguntza beharrezkoa dutela azpimarratu dute: "Zuberoako bi ikastolak oso nekez bizi dira eta aurten ere zuen laguntza behar dute. Zuberotarrek euren herrian sinesten dute, nola ez!

Baina Euskal Herriko anaia txikiena izanez, badugu beste anaia gehien behar gorria", azaldu dute *Ikaskoli*-ren antolatzailleek.

## Zuberoan, Lehen hezkuntza

Seaskak bi ikastola ditu Zuberoan: Basaburu ikastola Alozen eta Eperra ikastola Sohütan. Lehenean 36 ume daude eta bigarrenean, aldiz, 103.

Lehen Hezkuntzako ikasketak Zuberoan bertan egiten dituzte, baina Bigarren Hezkuntza euskaraz ikasi nahi badute, Nafarroa Beherera joan behar dute, Ziburuko Lartzabal Ikastolara, hain zuzen. "Erabateko murgiltzea lortzeko Bigarren Hezkuntza Zuberoan eskaintzeko aha-

leginetan ari gara, nahiz eta diru eta lan asko eskatuko digun. Horregatik, Euskal Herrian zehar kanpaina ahalik eta gehien zabaltzeko ahaleginak egiten ari gara aurten".

## Euskararen erabilera, "behera"

"Luzaroan izan da Zuberoa herri euskalduna, zuberotarrak euskaraz mintzatzen baitziren. Egun, maskaradak eta pastoralak bizi dira, baina ohartu behar dugu hizkuntza galtzen ari dela azkar", azaldu dute antolatzailleek. Berriki kaleratu diren erabilera inkestek hori frogatu dute, eta, azaldu dutenez, euskararen transmisioa ikastoletan egiten da, etxean baino gehiago.

## Otarreak, abenduaren 2ra arte

Bi otarre dituzte salgai: *Ahüzki* -40 euro- eta *Irati* -52 euro-. Eskariak [www.ikaskoli.eus](http://www.ikaskoli.eus) webgunean eta [nikere@ikaskoli.eus](mailto:nikere@ikaskoli.eus) helbidean egin daitezke eta abenduaren 13tik aurrera AEDn edo Ereindajan-en jaso.

**OTARREK HILAREN 2RA ARTE ESKATU AHAL DIRA, ETA ABENDUAREN 13AN BANATUKO DITUZTE**

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Petardoak, modu "arriskutsuan"



Duela hiru aste, ezkontza batean, petardoak modu "arriskutsuan" bota izana salatu dute. "Bi ekintza zeuden plazan eta eszenarioko musika ekipotik gertu bota zituzten; jende asko izutu egin zen".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## OHARRAK

### Pentsiodunak

Biharko mobilizazioen ostean, astelehenean berriz batuko dira; 12:00etan, Herriko Plazan.

### 1967an jaiotakoekin kintada

Azaroaren 23an batuko dira berriz. Joateko gogotsu daudenek 60 euroko diru sarrera egin beharko dute ES12 2100 1972 0102 0013 4059 kontu zenbakian.

### 1974an jaiotakoekin kintada

Azaroaren 30ean elkartuko dira, 12:30ean Herriko Plazan. Bazkaria egingo dute eta sorpresentzako tartea ere izango da. Joateko, sartu 50 euro ES36 3035 0001 51 0010143906 kontuan.



JUAN RAMON GARAI

## Albina Madinabeitia, sakonean

Arrasatek eman duen biolin-jole trebeenari buruz jardun zuten Arrasate Zientzia Elkartearen *Iragana astintzen* hitzaldi zikloaren bigarren saioan. Hari buruz asko ikertu eta idatzi duen Jose Mari Velez de Mendizabalek gidatu zuen saioa, eta oraingoan ere arrasatearrek ez zuten hutsik egin; Kulturate txiki geratu baitzen, beste behin.

# "Oso garrantzitsua da ikertzaileen lana azaltzea"

**ARKAITZ CARRACEDO IKERLARIA**

Arkaitz Carracedo CIC Biogune Zentroko ikertzailea azaroaren 27an Arrasaten izango da Markel Irizar txirindulariarekin batera hitzaldia egiten

**Amaia Aranegi** ARRASATE

Mondravember ekimenaren barruan, gizonezkoen minbiziaren inguruko hitzaldia antolatu dute. Aurreko urtean azaroan antolatutako ekintza desberdinekin jasotako dirua Arkaitz Carracedok zuzendutako laborategira bideratu zuten eta aurten ere horrela egingo dute. Izan ere, hark zuzentzen duen 25 pertsonako lantaldeak prostata minbizia ikertzen du.

**Biologia ikasi zenuen; nolakoa izan da zure bilakaera profesionala?**

Biologia ikasi nuen Euskal Herriko Unibertsitatean eta espezializazioa biomedikuntzan egin nuen, Madrilen. Nire asmoa ez zen tesia egitea edo ikerkuntzara bideratzea, baina horretara motibatu ninduen irakasle batekin egin nuen topo. Bere laborategira joateko eta bertako lana ezagutzeko animatu ninduen. Bere jarrerak eta laborategian lantzen zituzten gaiak ezagututa, tesia egitea erabaki



Arkaitz Carracedo, Mondravember taldearekin batera. GOIENA

nuen. Eusko Jaurlaritzan beka bat eskatu, eta Madrilen egon nintzen lau urtez. Hurrengo pausoa Ameriketako Estatu Batuetara joatea izan zen, eta bertan, minbiziaren inguruan ikertzen egon nintzen. Lerro hori

hartuta, Bilbora, CIC Biogunera, bueltatzeko aukera izan nuen. Bertan *IkerBasque* titulua eskuratu, eta horrekin ikerkuntza egiteko plaza bat daukat.

**Nondik lortzen dituzue dirulaguntzak?**

Laborategi-buru guztiok Estatu proiektu bat izan behar dugu, ezinbestekoa da diruagatik eta prestigioagatik. Ezberdintzen gaituena Europa arloko dirua da. Europako Batzordeak ERC proiektuak ditu; Europa arloan proiekturik garrantzitsuenak dira. Orain dela sei urte, laborategia hasten dutenentzako proiektua lortu nuen, 1,5 milioi 5 urterako, eta iaz beste bat lortu nuen. Minbiziaren aurkako elkarteak ere finantzatzen du ikerketa, eta hor beste proiektu kolaboratibo bat daukagu. Leku eta mota ezberdinetatik lortzen ditugu dirulaguntzak. Baina egia da azkenaldian murrizketak egon direla.

**Gizartea kontzientea da ikerkuntzak duen garrantzia?**

Oso garrantzitsua da gizarteari jakinaraztea eta jendeari azaltzea zer egiten dugun, zergatik den garrantzitsua ikerkuntza. Ikertzaileok isolatuta gaudela pentsatzen du jendeak, gauza konplikatu eta ulertu ezin direnekin lanean, baina hori ez da horrela. Nire laborategian, etengabean minbizia zer den azaltzen saiatzen gara, eta dauden aurrerapenak testuinguruan jartzen. Maila ezberdinetan egiten ditugu hitzaldiak: ikastoletan, gaixo eta familiar taldeekin, kolektibo ezberdinekin...

**Nolako aurrerapenak egon dira orain arte?**

Duela 40 urte, minbizia zuten lau pertsonatik hiru hiltzen ziren. Gaur egun, lau horietatik bi bizi dira eta helburua da hemendik hamar urtera lau pertsonatik hiruk bizirautea. Gainera, gaur egun sartzen diren berrikuntzak gero eta azkarrago mugitzen dira, eta hori ere eskertzekoa da. Gero eta azkarrago dakigu tratamenduek funtzionatzen duten ala ez. Gure teknologia merkeagoa da; hortaz, errazagoa da minbizi bati molekularki NA zenbakia ateratzea, eta hau oso garrantzitsua da tratamendu pertsonalizatuak egiteko. Gainera, teknologia indartsuagoa daukagu, laborategian ordenagailuekin egiten dugu lan inteligentzia artifiziala erabiliz. Beraz, etorkizuna itxaropentsua da.

**Azaroaren 27an hitzaldia egingo duzu Arrasaten.**

Amaia Zabala lankidearekin batera -Arrasateko ikerlaria- egingo dut hitzaldia. Minbizia zer den azalduko dugu, nola sortzen den, zeintzuk diren oinarriak eta gaur egun ezagutzen ditugun kontzeptuak azalduko ditugu. Hitzaldi interaktiboa izango da eta parte hartzea sustatzen saiatuko gara.

**"MINBIZIA BIZITZAREN PARTE DA ETA GIZARTEAK HORI ONARTZEA EZINBESTEKOA DA"**

## 'Emakumeen aurkako biolentziak ez du adinik' hitzaldia martitzenean

Emakundek eta Oneka plataformak antolatutako hitzaldia azaroaren 19an izango da, Kulturaten

**A. A. ARRASATE**

Oneka plataforma, Euskal Herriko emakume pentsiodunen elkarte, duela bi urte sortu zen eta orduz geroztik hainbat ekintza antolatu ditu, helburu bakarrarekin: emakume helduen eta pentsiodunen arazoak ezagutzera ematea.

Guztira, 300 emakume inguru daude platforman eta esparru desberdinetatik iritsi dira: sindikatuak, boluntarioak... baina feminismoak eta pertsona helduen arazoak aldarrikatzeko nahiak batzen dituzte. 65 urte-



Nerea Alias, Farapiko kidea. GOIENA

tik gorako emakumeek pairatzen dituzten arazoei aurre egiteko plataforma da Oneka: emakumeen eta gizonen soldaten eta pentsioen arteko arrakala, bakardadea, prekarietatea, biolentzia, zaintzak, autonomia... Arazo horiek guztiak gizartearen "ikusezinak" direla salatzen dute.

Azaroaren 25ean Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, hitzaldia antolatu dute Euskal Herriko hainbat herritan. Arrasaten azaroaren 19an izango da, 18:30ean, Kulturaten; dinamikoa izango da eta bertara gerturatzeko diren guztiak arazo larri honen inguruan hausnartzeko aukera izango dute. Hitzaldia Farapi antropologia aplikatuko enpresako bi kidek emango dute: Nerea Alias eta Leire Kortajarenak.

## Emakume ekintzaileen eskutik, '11 kafe' ekimena Arrasaten

Azaroaren 19rako, martitzena, Emakume Ekintzaileen Nazioarteko Eguna dela eta, emakume ekintzaileen euskal elkarteak *11 kafe* izeneko *world* kafea antolatu du. Jarduera hau Euskal Herriko hamaika herritan aldi berean egingo da, emakumeek gidatutako ekintzailetzari ikusgarritasuna emateko helburuarekin. Arrasaten goizeko hamaietan Gelmako Ogiberri kafetegian egingo da, eta negozioaren buru diren emakumeek beren beharrak erdigunean jartzeko eta hamaika gai ezberdini buruz mintzatzeko aukera izango dute. Talde txikia izango da eta izen ematea elkartearen sare sozialen bidez egin daiteke.

## Ane Irazabalek dokumentala estreinatuko du

*Awlad, hesiak gainditu* dokumentala estreinatuko du Ane Irazabal kazetariak Cosimo Caridirekin batera azaro amaieran.

Ume errefuxiatuak eskolartzeak duen eragina kontatzen du Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren laguntzarekin ekoiztutako dokumentalak. Protagonistak lau ume dira eta bakoitza herrialde batean kokatua dago: Berlin, Samos uhartera (Grezia), Jordaniako Zaatari kanpalekua eta Oñati. Toki bakoitzak ihesaldiaren etapa bat islatzen du.

Estreinaldia Zinexit jaialdian izango da: azaroaren 28an Bilbon, Golem Azkuna Zentroan; eta azaroaren 29an Gasteizen.

# "Mondra ezin da hor egon, maila hobea du"

**ASIER OLAIZOLA** MONDRA FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

Zarautzen kontra zuzendu zuen getariarrak talde zuri-morea, lehen aldiz joan den asteburuan; bihar Mojategin arituko da, etxeko zaleen aurrean. Ilusioz dator

**Oihana Elortza** ARRASATE

Zapatuan Real Union taldearen aurka (Mojategin 16:30ean) irabazi egingo duen sentsazioarekin zuzenduko duela ziur dago Asier Olaizola entrenatzaile berria. Hala izanez gero, denboraldiko lehen garaipena litzateke Mondrarendako etxean.

**Une honetan, ez da erronka erraza Mondra zuzentzea.**

Ez, ez da batere erraza, baina zuzendaritzari eskerrak eman gura dizkiot nitaz akordatu direlako. Taldea ezagutzeko prozesua hasi berri dut baina argi daukat Mondrak duen mailarekin ezin dela dagoen lekuan egon. Baina futbola hori da, dinamika txar baten sartzean asko kostatzen da irtetea. Hori ez izango da lehen helburua, mentalitatea aldatu eta egoerari buelta ematen hastea.

**Biharko partidua da hurrengo erronka zuzena?**

Gure zelaian jokatu dugun partidua izango da eta, gure lanari garrantzia emanez eta arerioa errespetuz hartuz, partidua irabaztera joango gara. Irabazitakoan gauzak beste modu batean ikusiko direla ziur nago. **Mondrak etxean ez du oraindik irabazi.**

Etxeko partiduetan erosoago zaudela suposatzen da eta lasaitasun horren barruan hobeto lan egingo duzula pentsa daiteke. Baina puntuak berdintsu balio dute eta ongietorriak izango dira edozein tokitan. Egia da jendea eskaini nahi dizkiogun garaipenak etxean izango direla, herritarrek errazago joango dira ikustera eta etxeko partidua. Zapatuan partidua irabazi egingo dugulakoan nago.

**Zaleei pazientzia eskatzeko moduan zaudete?**

Bai, bai. Oraindik hasi baino ez gara egin. Bederatzigarren jardunaldia jokatu dugu eta 36 dira, laurden bat egin dugu. Askok dugu egiteko, partidu ba-



Asier Olaizola martitzeneko entrenamenduan Mojategin. O.E.

## "ZIUR NAGO ZAPATUAN IRITSIKO DELA DENBORALDIKO LEHEN GARAIPENA ETXEAN"

### Bi hamarkada aulkietan

Asier Olaizola (Getaria, 47 urte) gaztetatik hasi zen aulkietan esperientzia pilatzen, eta bi hamarkada egin ditu batera eta bestera taldeak zuzentzen: "Nahiz eta denak ez diren jarraian izan, atsedean urteak ere izan ditut. Baina asko bizi dut futbola".

Ohorezko erregional mailan, besteak beste, Zestoa edo Zumaia zuzendu ditu, eta Allerru kategorian horretara igo zuen. Hirugarren mailan ere badu esperientzia, Lagun Onak eta Elgoibar taldeetan jardun zuen eta.

tzuk alde eta beste batzuk kontra joango dira, eta zaleei lasaitasuna izatea eskatuko nieke. Baita taldea animatzea eta babesa ematea ere.

**Entrenatzaileoi taldea zuen gustura antolatzea gustatzen zaizue. Denboraldia hasita dagoela hartu duzu zuk taldea. Zer egingo duzu?**

Taldea dena da, dagoena. Jokalariak ere daudenak dira eta ezin gara edozer eskatzen eta gauzak aldatzen hasi. Badakit jokalariek badutela maila futboleko gehiago egiteko, eta, jakinda zer dagoen, mentalki hasiko gara lan egiten, jendeak konfiantza hartzeko eta dituen estres eta puntu negatiboak kendu eta euren joko ona ateratzen hasteko.

**Egoerari psikologikoki buelta ematea da zailena?**

Bai, bai. Gai teknikoak edo taktikoak neurtu daitezke, objektiboak dira, eta hobetu eta landu daitezke. Arlo psikologikoa ere landu daiteke, noski, baina neurtzen zailagoa da. Denok emaitzari begiratzen diogu eta horrek esaten digu aurrera goazen edo ez. Baina emaitzaren influentzia zuzena lanarekiko ez da hain-hain zuzena.



Batzar orokorrean egondako hainbat bazkide. ISEI BARBERO

## "Trantsizioko" denboraldia izango da errugbi taldearena

Taldearen egoera ekonomikoa "egonkorra" dela adostu dute astean egindako urteko batzar orokorrean

**O.E.** ARRASATE

Urteko ohiko batzar orokorra egin du aste honetan Arrasate Errugbi Taldeak, eta kirol zein diru kontuak izan dituzte hizpide, besteak beste. Baita datorren maiatzean izango diren hauteskundeak ere.

**Hauteskunde prozesua**

Kirol kontuei dagokienez, lehen taldeak burututako denboraldia izan dute mintzagai, eta aipatu dute "lan asko egin eta gero" ezin izan ziola mailari eutsi. Zentzu honetan, "trantsiziokoa" bezala definitu dute denboraldia, "18 urtez azpiko kategoriatik igotako jokalaririk ugarirekin eta baita entrenatzaile berriarekin ere". Helburua berriz Euskal Ligako Lehen Mailara igotzea dela azpimarratu dute eta harrobi mailan egindako lana ere goraiatu du zuzendaritza batzordeak. Baita erakartze kanpainak nahi

beste arrakasta eduki ez izanda ere, errugbia herritarrengana gerturatzeko aldera lanean jarraitzeko prestutasuna adierazi.

Arlo ekonomikoari begira, egungo egoera ekonomikoa "egonkorra" dela definitu dute: "Diru-sarrerak ia zuzen antzekoak izan dira, dirulaguntzetan ez baita goerarik izan, eta gastuen kasuan ere ez da aldaketa handiegirik egon; goeraren bat, agian". Diru-sarreretan ikasturte honetan ere Garagardo Azoka klubaren diru-iturri nagusienetakoa izatea aurreikusten dute.

Bestalde, datorren maiatzean hauteskundeak egingo ditu ARTk; apirilean jarriko dute martxan prozesua. Ane Agirre egungo presidentea ez du baztertu karguan jarraitzea: "Betiere, lantalde baten babesarekin".

Asteburuari begira, domekan Iruñearen kontra jokatu du ARTk Mojategin.

## Iturripen jokatu du MU saskibaloitza taldeak domekan

Iturripen kiroldegian jokatu du jardunaldi honetako partidua MU saskibaloitza taldeak. Eta etxeko partiduetan ohikoa den moduan, domeka arratsaldean izango da norgehiagoka, 18:00etan. Burgosko Miraflores taldea izango da parez pare izango duena. Egun, sailkapen orokorrean, puntu bat gehiago du kanpoko taldeak.

## Leioan jokatu du partidua asteburuan Mondratek

Etxetik kanpo du partidua asteburuan areto futboleko Mondrate taldeak. Leioa taldearen kontra jokatu du, hango Sakonetas kiroldegian. Domekan da partidua, 18:15ean. Arrasateko taldea Leioaren aurretik dago sailkatuta, bosgarren, egun; talde bizkaitarrak baino bost puntu gehiago ditu, bederatzigarren.

# 25 urteko ibilbidea, kantuen bitartez

Goikobalu Txiki Abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko, kontzertu berezia eskainiko dute zapatuan, 19:00etan, Kulturateko klaustroetan. Emanaldian, gaur egungo abeslarietz gain, 25 urte hauetan abesbatzako kide izan direnak ere egongo dira

## Amaia Aranegi ARRASATE

Goikobaluren harrobia izateko asmoarekin jaio zen, 1994an, eta gaur egun indartsu jarraitzen du Goikobalu Txikik.

Aurten 25 urte betetzen dituzte, eta ospatzeko, Goikobalu Txiki osatzen duten eta osatu izan duten abeslariak elkartzeko dira emanaldi hunkigarria egiteko. Abesti zerrenda luze batek aukeraketa bat egin eta estilo eta garai desberdinetako abesti berezienak abestuko dituzte. Zuzentzeko makila eskuz esku pasako da. Izan ere, garai-ka antolatu dute ibilbidea eta garai bakoitzeko zuzendariak hartuko du zuzendaritza lana.



Goikobalu, Errenteriako Gabon Kanten Txapelketan. GIPIZKOAKO ABESBATZEN FEDERAZIOA

## Abeslari ohiak, gogotsu

25 urte hauetan Goikobalu Txiki-kiren parte izan diren asko bueltan izango dira zapatuan. Irail hasieran hasi ziren beraiekin kontaktuan jartzen eta ilusio handiz jaso zuten berria. "Kontzertu bat egiteko asmoa zutela esan zidatenean, oso pozik jarri nintzen", dio Iraitz Gutierrezek. Bi hilabete egon dira entseguetan murgilduta eta kantuen tartean bizipen desberdinak gogorazteko denbora ere izan dute. "Taldekideekin berriz ere egoteak oroitzapen oso onak ekarri dizkit. Batez ere, egindako bidaiak gogorazi ditugu, momentu politak izan ziren. Nik, bereziki, Bartzelonara egin genuen bidaiak gogoratzen dut. Euskal Etxean abestu genuen; oso berezia izan zen".

Alaiñe Olabarriak unibertsitateko ikasketak hasi eta kanpora joan zenean utzi behar izan zuen Goikobalu, eta oso gogotsu dago zapatuko kontzerturako: "Asko gustatzen zait abestea eta Goikobalu berezia da niretzat. Abesti gehienak gogoan nituen, eta zapatuan asko disfrutatzea espero dut".

## Arrasate Musikaleko Bandaren Santa Zezilia kontzertua

Azaroaren 17an, 12:30ean, Arrasate Musikaleko Bandak Santa Zeziliaren omenez ohiko kontzertua eskainiko du San Franzisko elizan, Mikel Markiegiren zuzendaritzapean. Kontzertuaren aurretik, 11:30ean, kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar, kaleak musikaz girotzeko. Kontzerturako sarrera doakoa izango da.

## 'La trinchera infinita' filma asteburuan Amaia antzokian

Asteburu honetan, *La trinchera infinita* filmaren hiru saio eskainiko dira Amaia antzokian: zapatuan 19:30ean eta 22:15ean –ordu aldaketa egon da, 15 minutu atzeratu da– eta domekan 19:30ean. Domekako saioan, Aitor Arregi filmaren zuzendaria egongo da aurkezpenak egiten. Sarrerak leihatilan soilik erosteko aukera egongo da.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### AHOLKULARITZAK

#### ANDRA MARI AHOIKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### GARRAILAN

BERGARA / Mabilategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgo@uribesalgo.es

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usatxe plaza 1, behe  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

#### LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa  
Tel.: 636 89 92 11  
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

# Komentuaren erabilera aldatzeko lehen pausoa

Agustindarra izandako eraikinean kulturarako aretoa egokituko dute, Basotxoren egoitza izango da eta eguneko zentroari eta adinekoendako tutoretzapeko etxeei ere egingo diete lekua; hori abian jartzeko aldaketa onartu du udalbatzak osoko bilkuran

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Mojen komentuaren eraikinak beste erabilera bat izan dezan lehen pausoa eman zuen udalbatzak eguaztenean egindako osoko bilkuran.

Orain arte ikastetxe eta etxebizitza erabilera izan du Errekabarren 12ko eraikinak. Udal Gobernuaren asmoa da kulturara eta adinekoen zerbitzueta bideratzea; hala jakinarazi zuen aurreko agintaldian eta horri ekingo diote orain. "Erabilpen aldaketa egiteko lehen onarpena egin dugu, proiektuarekin hasteko derrigor egin beharrekoa", zioen Unai Elkoro alkateak. Aho batez onartu zuten prozesuari hasiera ematea, nahiz eta EH Bilduk informazio falta egotzi Udal Gobernuari.

Lehen fasean, beheko solairuari helduko diote; eliza izandako gunean kulturarako aretoa egokituko dute -horretarako proiektua dagoeneko eginda dago- eta Basotxo erretiratuen elkarteari -taberna barne- eta eguneko zentroari ere egingo diote lekua. "Proiektua lehenbailehen egin eta asmoa da datorren urtean exekutatzea eta bukatzea", argitu zuen Elkoro. Tutoretzapeko pisuak geratuko lirarteke aurrerago heltzeko, bigarren fase baterako.



Mojen komentua izandako eraikina. MIRARI ALTUBE

## Plan orokorra, lantzen hastear

Plan orokorraren bueltan lanean hasteko aholku kontseiluaren araudia ere onartu zuen udalbatzak. Horren ardura EH Bilduk hartu du, Udal Gobernuaren oniritziz, eta Ion Albizuk gidatuko du. Kontseiluak aholkulari lanak egingo ditu, eta herriko eragileak gonbidatuko dituzte. Ondoren, kontseilu horrek egindako proposamenari Udal Gobernuak oniritzia eman behar dio aurrera egiteko: "Plan orokorra garatzeko lehen pausoa izango da, eta hortik ekin diogu

lanari. Ondo joan dadin ezinbestekoa izango da bi alderdion arteko adostasuna edo, behintzat, akordioetara heltzeko gaitasuna", zioen Albizuk. EAJko kideek eskatu zuten eraginkortasuna bermatzea, "parte-hartzeak ez dezan moteldu prozesua".

Asmoa da agintaldia bukatu aurretik hasierako onarpena ematea, eta horretarako lehenbailehen hasiko dira lanean: "Arkitekto bat kontratatuzko prozesua abian dago eta hori sartzeraoan hartuko dugu abiadura, bi-hiru astean".



NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO

## Kontraesanak

Ikasketen arue faten eta lanien hasteko sasoie bertan. Egongo ote da niretako zerbait?

Lana, asko dau. Eskerrak kanpotarrak etorri dien geuretako gure ez dittugunak egittera, ala erosuau bizi gaittezen; izen be, horrei ordainketako beste diru badaukou.

Geure lana dakigun onduen egin bihera daukou, horixe diotzet neure buruei eta edozein lan parien suertatuta be hastera doiazenei. Ondo egindako lanaren poza norberana da lehenengo, eta, horrez gain, batek daki ze aukera egon leiken begire.

Atxabaltan, oingo udal ordezkarietatik hiruk hortatik bizittie aukeratu daue, aurrekontuek utziko dauela uste dot. Holako goguek ikusitte lau-urteko benetan oparue espero dot gure herrirako. Ikusiko dogu.

Antza danez, herriko kulturagune ofizial nagusixen, Arkupen, langiliek egonkortu ezinien dabilte. Kulturaren ingurua beti eskasian.

Eta buketetako, kuartelaren inguruan zerbait ixotu da. *Dana ez da futbola*, esan daue. Aurrera, ba.

## Aretxabaletako Sarek deitutako agerraldia bihar, mojetan

Beste espetze politika bat eskatzeko eta horren alde lanean hasteko dinamika abiaraziko dute

**M.A.** ARETXABALETA

Agerraldi erraldoia eta zabala deitu du biharko, azaroaren 16rako, Aretxabaletako Sarek; mojetan izango da, 12:00etan. Giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako dinamika bat abiarazi gura dute horrekin, aretxabaletarrek ere espetze politika aldatzen hasteko aletxoak jar ditzaten.

Dinamikaren ardatza da giza eskubide guztien errespetua: "Denon ardura da, eta gizarte modura dagokigu horren alde lan egitea. Biktima guztien erre-

konozimendua eta aitortza aldarrikatzen ditugu", adierazi dute antolatzaileek.

Iraganetik datozen minak sendatzea helburu izanik, espetze politika errotik aldatu beharra nabarmendu dute: "Sufrimendua eragiten duelako oraindik". Garikoitz Garcia Arrieta preso aretxabaletararen egoera zein den gogorarazi dute: "Picassenteko espetxean, Valentzian, Aretxabaletatik 600 kilometrora. Eta horrek dakarrenarekin diru galera, familiarendako bidaiak, arriskua errepidean...".

**SANER**

Iturgintza, gasa eta berogailuak  
Zelaikoa Baserria, 20 • Apotzaga auzoa  
20540 Eskoriatza - Gipuzkoa  
943 71 52 51 / 605 71 66 92

Bainuontziaren  
ordez dutxa  
jarriko dizugu  
**EGUN BATEAN!**

Galdarak  
aldatzen  
ditugu

Komunen eta sukaldeen zaharberitze-lanak • Iturgintza-lanak • Energia berriztagarriak





Leintz Arizmendi taldeko infantilak futbol zelai berrian entrenatzen, martitzenean. IBAI ZABALA

## Zelai berria estreinatu dute herriko jokalariek

UDAKoak eta Leintz Arizmendikoak astelehenaz geroztik dihardute entrenatzen zarpiko futbol zelai berrian. Atzerapenak atzerapen, gustura geratu dira emaitzarekin Udaleko eta UDAko ordezkariak, baita erabiltzaileak ere

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Zarpiko futbol zelaiak hainbat buruko-min eman dizkie azken hilabeteetan udal ordezkariak zein UDAko arduradunei, baina dagoeneko bukatu dituzte lanak. Astelehenean hasita, han dabilta entrenatzen neska-mutikoak.

Zelaiaren neurriak dira 52x32 metro, belar artifiziala jarri diote eta hori ureztatzeko sei aspertore ditu: "Drainatze sistematik primeran funtzionatzen

duela frogatu ahal izan dugu egunotan, euri mordo egin arren ez delako arazorik izan", adierazi du, irribarretsu, Unai Elkoro alkatea. Aterpedun aulkiak daude jokalariaendako, eta ikusleendako eserleku luze bat ere bai. Ondo baino hobeto argiztatuta dago, led motako lau proiektore dituzten hamabi metroko lau zutaberen bitartez. Iturria ere badago, eta guztia inguratzen bi metro inguruko hesia.

Hainbat gorabehera izan ditu obrak, eta, horren ondorioz, uztailean beharrean azaro erdian sartu dira jokalariai entrena-tzera. Udalak zigorra jarri zion, hain zuzen, Sports & Landscape enpresari atzerapenagatik.

**Aldagelak, "laster"**


Aretxabaleta kirol elkarteko kideek egutegia osatu dute txandekin, eta Ibarra futbol zelaiaren osagarri izango da hori

### Gustura futbol zelai berriarekin?



**UNAI ELKORO**  
ALKATEA

"Egunotan ibili gara proba batzuk egiten, argindarra egokitzen, esaterako, baina esan genezake erabat bukatuta dagoela. Erabiltzaileek, gainera, gustura daudela esan digute. Orain, horren erabilpena arautzea komeni dela uste dut, ondo zaindu dadin".



**AGURTZANE ELKORO**  
UDA-KO PRESIDENTEA

"Inguru horrek guztiak irabazi egin duela uste dut, bizitasuna eman dio eta itxura erakargarria du orain. Era berean, kirolerako sekulako azpiegitura dugu. Gure nahia da entrenamendu orduetatik kanpo herritarrei zabalik egotea, eta, errespetua lagun, ea hori posible egiten dugun".

entrenatzeko orduan; azpiegitura berriarekin, ordu eta erdira luzatu dituzte saioak.

Lehen erabiltzaileak oso gustura agertu dira zelaiarekin: "Belarra luzetxoa da eta baloiari indartsu eman behar zaio, baina oso ondo dago", adierazi zuten martitzenean entrenatzen zeuden Leintz Arizmendiko infantil mailako jokalariek, eta UDAko presidente Agurtzane Elkoro berretsi egin du: "Horixe pozik daudela; gustuko duten kirolean jarduteko sekulako azpiegitura dute eta ordutegi luzeagoarekin". Entrenamenduetarako bakarrik erabiliko dute zelai hori, eta partiduen aurretik beroketa saioak egiteko.

Zelaiak, baina, badu gabezia bat: aldagelak. "Hurrengo proiektua izango da hori. Ibarra zaha-

rrean bi aldagela berri egokitzea gura dugu, ea urtarrilerako den", azaldu du Elkoro. Alkatea ere arazoa konpontzearen alde agertu da: "Ea luze barik konpontzen dugun, non jarri erabaki ostean".

**Araudia zehaztear**

UDAK erabiltzen ez duenean herritarrei zabalik izango dela zelai hori iragarri zuten proiektua aurkezterakoan, eta asmoa hori bada ere zalantzak sortu ditu: "Zikinkeria pilotzen hasi da... Araudi bat zehaztuko dugu datozen egunotan eta ikusiko dugu zelan funtzionatzen duen", dio alkatea, eta UDAko presidentek ildo beretik adierazi du: "Azpiegitura zabalik egotearen aldekoa naiz, edozein aretxabaletarrek kirola egin dezan".

## Ezkontza baten gaineko kontuak ohol-tza gainean gaur, Arkupen

Hika teatroak 'Txarriboda' antzezlan eskainiko du, aktoreen artean Kepa Errasti aretxabaletarra dela

**M.A.** ARETXABALETA

Hika teatroak iaz urtarrilean estreinatu eta ordutik hona txalo mordo jaso dituen *Txarriboda* antzezlan izango da gaur, egubakoitza, 20:00etan, Arkupen -sarrera 4 euro da-. Aurre-sal-

mentako sarrera guztiak saldu-ta daude eta leihatilan hoge jarriko dituzte. Kepa Errasti kantuan eta dantzan ikusteko aukera izango dute herrikideek.

Ezkontza baten bueltan -eta era berean, gizartean bertan-

dauden gehiegikeria eta itxurakeria erakutsi gura izan du istorioa idatzi duen Agurtzane Intxaurreagak, eta hori guztia kabaret erritmoan kontatua -bederatzi abesti sartu dituzte, garai guztietako euskal kantugintzakoak-, komedia basati baten itxura hartuz. "Ondo baino hobeto ezagutzen dugu dagoeneko lana eta une onean gatoz. Dena ematen dugu ohol-tza gainean, eta ikusleek eskertzen dute hori; gozatu egiten dute", adierazi du Errastik.

Jou Diaz  
Karakina

Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

Mobiliario  
ARENZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia I - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# Indarkeria matxista salatzeke hainbat ekitaldi

Azaroaren 25a da Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta, hain zuzen ere, bi hitzaldi eta tailer bat izango dira. Lehenengo hitzordua azaroaren 19an izango da, Arkupen: 'Indarkeria matxista Kolonbian' izeneko hitzaldia

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25ean, eta, horren bultzatzean, bi hitzaldi eta tailer bat izango dira egunotan Aretxabaletan. Horrekin batera, hilaren 25erako kontzentrazioa deitu dute Atxabaltako Mugimendu Feministako kideek.

Emakumeen kontrako indarkeria motak, gertakizunen kontakizun moduak, feminismoaren begirada zabaltzea... horien gainean hausnartzeko tartea hartuko dute saio hauetan. Hori horrela, antolatzaileek dei egin dute horietan parte hartzeko.

**Indarkeria motak aztertuz**

Azaroaren 19an, *Indarkeria matxista Kolonbian* izeneko hitzaldia izango da Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan, 19:00etan. Pertsonen, herrien eta kulturen arteko harremanetan giza eskubide indibidualak eta kolektiboak lehenesten dituen Setem gobernu kanpoko erakundeak gonbidatuta, Combos hezkuntza elkarteak kideak izango dira, Kolonbian bizi duten indarkeria matxistaren gainean argibideak emateko. "Ikuspuntu ezberdinak ezagutzeko eta biziaren partekatzeko saioa izango da. Hala, zenbait indarkeria mota identifikatu eta aztertuko dituzte. Aurretik, baina, bertara datozen hizlariak zein indarkeria jaso zituzten adieraziko dute...", adierazi du Garañi Artuñedo Berdintasun teknikariak.

**Barjolaren azalpenak Zariaian**

Bigarren hitzaldia, berriz, azaroaren 21ean, 19:00etan, izango da. *Microfísica sexista del poder* liburua idatzi du Nerea Barjolak eta horren gaineko azalpenak emango ditu Arkupeko Zariaia aretoan.

1992an ikusmin handia sortu zuen Alcasserko krimenari esa-



Martxoaren 8an egindako manifestazioa. MIRARI ALTUBE

## 'INDARKERIA MATXISTA KOLONBIAN' HITZALDIA IZANGO DA AZAROAREN 19AN

nahi berria eman dio liburu honetan Barjolak, emakumeen bizitzarako garrantzi handia duen kontakizun politiko gisa aurkeztuz. "Nerea Barjolak bere liburuaren aurkezpena egingo du. Alcasserko hiru nesken hilketen inguruan komunikabideek egindako tratamendua baliatu du Barjolak sexu-izuari buruzko kontakizunak nola sortzen eta zabaltzen diren aztertzeko. Alcasserko hilketak gertatu zirenean zenbait komunikabidek emakumeen erruduntasunean oinarritu zuten errelatoa, eta horretaz jardungo du Barjolak, besteak beste".

**'Gure arteko arrazakeria'**

Azaroaren 22an, berriz, Atxabaltako Mugimendu Feministak antolatuta *Gure arteko arrazakeria* lantzeko tailerra izango da Arkupen, 18:00etan. Luciana

Alfarok bideratuko du saioa, eta euskaraz eta gazteleraz izango da. Izena aurrez emateko komeni dela adierazi dute, antolatze lanak errazteko. Horretarako azken eguna azaroaren 20a izango da, eta parte hartzeko bidea *atxabaltakofeministak@gmail.com* da.

Atxabaltako Mugimendu Feministako kideek adierazi dute gai hori lantzeko beharra ikusi dutela Durangon egin diren jardunaldi feministen ondoren: "Horren gaineko kezka bagenuen, baina jardunaldien ostean areagotu egin da". Tailerra gidatuko duen Luziana Alfarok landuko duten gaiaren gaineko zertzelada batzuk ere eman ditu: "Feminismoaren gaineko begirada zabaltzea da asmoa. Eta horretarako, beste ikuspegi batzuk ezagutzera emango ditugu; gure kasuan, emakume migratzaileen egoerak. Generoan bakarrik ez gara geratuko, emakumeek bizi dituzten beste indarkeria egoera batzuetara joko dugu, bereziki arrazismoa ardatz hartuta".

Horrekin batera, azaroaren 25ean, kontzentrazioa deitu dute Atxabaltako Mugimendu Feministako kideek. 19:00etan izango da, herriko plazan.

## 'Andre eta jabe' ikuskizuna antolatu du Lekaixokak

Euskal emakume poeten bizitzak eta ahotsak ezagutzera emateko antolatutako proiektua da

**I.B. ARETXABALETA**

Euskal emakume poeten bizitzak eta ahotsak jasoko dituzte azaroaren 23an, datorren zapatuan, udaletxe zaharrean egingo duten *Andre eta jabe* ikuskizunean. Lekaixoka bertso-eskolak antolatuta, 19:00etan hasiko da saioa, eta emakume poeten bizitzak plazaratzea izango du oinarri ekitaldiak.

Poesia musikatu saio honetan, euskal literaturako emakume ahaztuen ahots ahaztuak plazaratuko dituzte, sasoi bateko bertsolarietatik hasi, Emakume

Abertzale Batzako andreetatik pasatu eta gaur egungo poetetara bidea eginez. Lan horretan, Eider Perez eta Leire Etxezarreta –soinu-jolea eta gitarrista– izango dira emanaldia bideratuko dutenak, eta eskainiko duten zuzeneko musikarekin batera, bat egingo dute poesia errezeitaldiek, bertso kantuek eta antzerkiak.

Ordubete inguruko emanaldi intimista izango da, zenbait bitxikeria kontatuz eta ahalik eta eszenaratze soil eta zainduenarekin antolatu dutena.

## Bizitzaren amaieran hartu beharreko erabakiak hizpide

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua hainbat saio antolatzen ari da gaixoen, familien eta osasun langileen arteko komunikazioa sustatzeko. Hori horrela, azaroaren 20an, 17:00etatik 18:30era bitartean, Basotxo erretiratu eta pentsiodunen elkartearen izango da saioa.

*Pentsatu, hausnartu...* lelopean, Jose Felix Garcia erizaina eta

Jesus Millas medikua izango dira hitzaldia eskaintzen, eta bizitzaren amaieran hartu beharreko erabakietan laguntzeko zenbait argibide emango dituzte, besteak beste.

Gaixoen eta profesionalen arteko komunikazio kanal bat eratuz pazienteek dituzten nahiak, balioak, arreta-lehentakunak eta tratamenduak arbuia nahi dituzten edo ez ezagutzea izango du helburu saioak. Gero, medikuaren erregistrora txertratzeke.

## Euskaraldia martxan, Euskararen Eguna begirakoak prestatzen

2020ko Euskaraldia lantaldea hasi da martxan. Hala, lehenengo ekintza nagusia abenduaren 3an izango den Euskararen Nazioarteko Eguneko jarduerak prestatzea izango da. Lehenengo bilera eginda, ekintzak zehazten jarraitzeko hurrengo bilera azaroaren 20an izango dela jakinarazi dute, 18:30ean, udaletxe zaharrean.

2020ko azaroan etorriko da bigarren Euskaraldia, eta oraingoan, bi lagun arteko elkarriketaz gain –*ahobizi* eta *be-larriprest* rola hartuta–, modu kolektiboan, taldeetan, ere egin ahal izango da ariketa; horretarako, ariguneak izendatuko dituzte.

## OHARRAK

### Elikaduraz

Gaur, elikadura osasungarriari buruzko hitzaldia eskainiko du Sabeletik Mundurako Nahia Alkortak Kuku Miku Elkartearen, 17:00etan.

### Santa Zezilia

Leizarra musika eskolako neska-mutikoez azaroaren 19an Oskorri taldearen lau kanta abestuko dituzte Herriko Plazan, 17:30ean.

### Zinea Arkupen

Hilaren 16an eta 17an *Angry Birds 2* filma izango da ikusgai, 17:00etan. 19:30ean, berriz, *La directora de orquesta* filma proiektatuko da, bi egun horiez gain, baita azaroaren 18an ere; kasu honetan, 16:00etan.



Azalpana, azal guztia izeneko erakusketa ikusgai dago atzo ezkerreko Ibarraundi museoan. IMANOL BELOKI

## Pero Lope artistaren lana ikusgai dago Ibarraundin

Askotariko diziplinak batzen dituen 'Azalpana, azal guztia' erakusketa inauguratu zuten atzo Ibarraundi museoan. Sexualitatearen normalizazioa lortzea oinarri duen lan-bilduma azaroaren 26ra arte izango da ikusgai, museoak duen ordutegian

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Ibarraundi museoan erakusketa bat inauguratu zuten atzo. *Azalpana, azal guztia* izenpean, Debagoieneko Ezker Kultur Guneak eta FECEK (Europako Hiritarren Aldeko Fundazioa) elkarlanean antolatu dute, Eskoriatzako Udalaren babesarekin. Bertan, Pero Lope diziplina askotariko artistaren bildumako zenbait lan batzen dira, eta azaroaren 26a arte izango da ikusgai, Ibarraundin duen ordutegian.

Ibilbide luzeko artista da Pero Lope. Zenbait lehiaketan parte hartutakoa, eta erakusketa jarritakoa. Beraren lana saritua eta publikoaren partetik txalotua izan da. Askotariko diziplina artistikoak ezagutu eta lantzen dituen arren, eskultura da bere bildumako piezetatik adierazkorrena dena. Izan ere, edertasuna adierazteko, konposizio garbi eta orekatuak bilatzen ditu, forma leunak erabiliz, betiere, sentsazioak eta emozioak transmititzeko helburuarekin.

**Askotariko diziplinak**

Ibarraundi museoan ikusi daitkeen erakusketaren gai nagusia genero identitatea eta berdintasuna da, artistaren ikuspuntutik jasota dagoena. Hala, gai hori ardatz hartuta, eskulturak, margoak, marrazkiak, argazkiak eta Elia Barcelo idazlearen testuak batzen ditu lanak.

Zeramikazko 22 pieza daude ikusgai Ibarraundi museoako aretoan, eta horietako bat egurrean zizelkatuta dago. Horrekin batera, mihisearen gaineko akrilikoez eta *gouache* margo teknikaz bi dimentsiotan irudikatutako hamar lanetako sorkuntza dago ikusgai. Baita analogikoan ateratako zuri-beltezko bost argazki eta zazpi

**LAN-BILDUMAK IDENTITATEA ETA GENERO BERDINTASUNA DITU OINARRI**

marrazki ere batzen ditu *Azalpana, azal guztia* bildumak.

**Taburik gabe erakutsiz**

Pero Lope artistaren erakusketako lan-bildumak identitatea eta genero berdintasuna ditu oinarri, eta bere lanetan sexualitatearen normalizazioa bilatu nahi du, tabuak alde batera utzita erakutsiz.

Ahaztu barik irudikapen ikonografiko primitiboak, aspaldiko ohitura kulturalak eta elkarretribalak irudikatzen saiatu dela, sentsualitatea eta edertasun moduak adierazi guran. Emakumea bizi-zikloaren iturri moduan jarrita.

**Azaroaren 26ra arte ikusgai**

Erakusketa ikusi nahi duenak ordutegi honetan izango du aukera horretarako, azaroaren 26a bitartean: astelehenetik egubakoitzera 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitartean eta domeketan 12:00etatik 14:00ak arte.

## Landagunean argiteria jartzeko dirulaguntzak eskatu daitezke

Azaroaren 29ra arte bitartean egin daitezke eskaerak; informazio gehiago Eskoriatzako udal webgunean dago

**I.B. ESKORIATZA**

*Landa guneetako bizi kalitate hobetzeko martxan* programaren barruan, gune nagusitik isolatuta dauden eraikinen kanpoaldean argiak jartzeko dirulaguntza oinarriak jendaurrean egoteko epea bukatuta alegaziorik egon ez denez, oinarriak behin betiko onartuta gelditu dira eta laguntzak eskatzeko deialdia publikatu du Eskoriatzako Udalak.

Laguntza horri buruzko zenbait xehetasun ere publikatu dituzte udal webgunean: Udalak isolatutako eraikinen fatxadetan edo horien inguruan argi puntu bat jartzeko obrak egin eta finantzatu dituzte. Baina argi puntu horien argi-elikatzea auzotar bakoitzak bere kabuz egin behar duenez, argi puntu horiek kontsumitutako energia finantzatzeko laguntzako dirulaguntzak

emango dira. Hain zuzen, eskaera egiteko azken eguna azaroaren 29a izango da.

**Aurkeztu beharrekoak**

Dirulaguntza jasotzeko honako hau aurkeztu behar da: Eskaera orria beteta, eskaera gehigarria *—online* eskaeretan soilik—, bankuaren ziurtagiria kontu korronte baten jabe dela egiaztatzeko, helburu bererako jasotako edo eskatutako dirulaguntzei buruzko aitortpen sinatua, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea eta argi puntuak pizteko sistemak funtzionatzen duela, baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatuz. Azken hori Udalak egingo du, ofizioz.

Dirulaguntza kopurua, 30 eurokoa izango da argi puntuko. Eskaera-orriak Eskoriatzako udal webgunean daude eskuragai.

## Odola emateko autobusa egongo da martitzenean

*Eman odola, nigan bizi* kanpainaren barruan, Arabako odol emaleen elkarteak eta Osakidetza antolatuta, astelehenean izan zen odola emateko egokitura duten autobusa Fernando Eskoriatza plazan. Hala, azaroaren 19an berriz izango dira, odola eman nahi dutenei zuzenduta, leku berean, 16:30etik 20:15era bitartean.

Odola eman gura duena, 18 urtetik gorakoa eta 70 urtetik beherakoa izan behar du. Gutxienez, 50 kilo izan behar ditu, eta nortasun agiria eraman behar du autobusera doan. Ez dago baraurik joan beharrik, baina odolik ezingo da eman otordua hartu eta bi ordu baino lehen... Hala ere, argibide gehiago emango dizkiete autobusean bertan odola ematera animatzen diren herritarrei. Hori horrela, bertaratzeko dei egin dute Arabako odol emaleen elkarteek.

## Zine-zikloaren bigarren proiektzioa solasaldiarekin batera

Pasa den egubakoitzean hasi zen Eskoriatzako Udalak antolatutako jasangarritasunari buruzko zine zikloa. Hala, gaur, segida emango diote, *Bide berriak, elikadura burujabetza Euskal Herrian* izeneko dokumentalarekin.

BiziLur-ek eta EHNE Bizkaiak ekoiztitako dokumentala da, eta elikadura subiranotasune-

rako bide berriak ditu oinarri ikus-entzunezkoak. Hori horrela, 19:30ean izango da proiektzioa, Zaldibar antzokian, eta, horren ostean, ikusitakoari eta gaiari buruz hitz egin edo hausnartzeko solasaldia egongo da Ane Gorosabelekin. Emanaldia euskaraz da, gaztelaniazko azpituluekin, eta, hain zuzen, 52 minutu irauten du.

Azaroaren 29an emango zaio amaiera zine zikloari, *Energia trantsizioak, piztu aldaketa!* dokumentalarekin.



Enaitz Testa eskoriatzarra Euskadiko txapelketako azken lasterketan jauzia egiten. RUBEN TESTA

# Euskadiko txapelduna da Enaitz Testa eskoriatzarra

Euskal Motoziklismo Federakuntzak antolatzen duen Euskadiko txapelketako zazpi lasterketak irabazi ditu motorzale eskoriatzarrek. Denboraldia amaituta, datorren urtean 85 zentimetro kubikoko motorren modalitatean hasiko da lehiatzen

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Enaitz Testa 12 urteko Eskoriatzako motorzalea txiki-txikitatik ari da motorrean, eta, zenbait txapelketatan aritu ostean eta emaitza bikainak lortu eta gero, Euskadiko moto-kros txapeldun berria da, 65 zentimetro kubikoko modalitatean.

Euskal Motoziklismo Federakuntzak antolatzen duen Euskadiko moto-kros txapelketa indartsu hasi zuen motorzale gazteak, eta ez du bere maila jaitsi urte osoan zehar. Izan ere, otsailean hasita, zazpi lasterketak irabazi ditu –azkena, urriaren 20an, Burgosen, Quintana Marian jokatuakoa—. Hala, bosgarren lasterketatik matematikoki irabazita zeukan txapela, baina, lehiatzen jarraitzeko asmoz, ez zioten pilotu gazteari ezer esan etxekoek. Hone-ladierazi du bere aitak, Ruben Testak: "Txapelketa guztian zehar oso ondo aritu da. Emaitzei begiratu besterik ez dago. Lasterketa bakoitzean 15-20 pilotu



Enaitz Testa txapelarekin. RUBEN TESTA

artean batzen dira eta, maila altua dagoen arren, guztiak irabazi izana ederra izan da. Bost lasterketa lehenengo postuan amaitu zituenean, Euskadiko txapelduna zela bagenekien, baina pixka bat itxaron dugu txapelketa amaitu arte, berari esan eta orduan ospatzeko. Hala ere, sariak abenduan edo urtarrean emango dizkiotela esan digute federakuntzatik".

**Mailaz igoko da datorren urtean** Bigarren urtez lehiatu da Enaitz Testa Euskadiko txapelketan. Iaz, lehenengo aldiz, eta sailkapen orokorrean bigarren postuan geratu zen. Hala, aurten, 65 MX modalitatean lortutakoarekin, datorren denboraldira begira 85 MX modalitatean arituko da. "Oso pozik eta gogotsu dago Enaitz kategoria berriari ekiteko; izan ere, hasi da 85 zentimetro kubikoko motorraz, eta entrenatzeko, asteburuan, Kataluniara joango gara, Yamahak Lleidan antolatzen dituen bi lasterketatan probatzera".

**Anaia gazteak etorkizun oparoa** Enaitz Testaren anaia gazteak 9 urte ditu –Aratz Testa–, eta maila berean ari da, 65 MX modalitatean. Denboraldiaren hasieran izan zuen kolpe handi baten ondorioz, lasaiago aritu da, baina, hala ere, sailkapenean bosgarren postuan amaitu du txapelketa, etorkizun handia duela demostratuta.

## Argazkilaritzan hasteko saioa zapatuan kultura etxean

Ekaitz Zilarmendi aretxabaletarrak hastapeneko argazkilaritza ikastaroa eskainiko du zapatuan

**I.B. ESKORIATZA**

Reflex kamerak erabiltzen hasi nahi duten guztientzako ikastaroa izango da zapatu honetan kultura etxean. 10:00etatik 13:00etara bitartean, Ekaitz Zilarmendi argazkilaria aretxabaletarrak zenbait gomendio emango dizkie bertaratzen direnei, argazki kamera modu manualean erabiltzeko.

Argazkigintzaren munduan lehen urratsak egin nahi dituen orori zuzendutako saioa izango da, eta horretarako, oinarrizko zenbait kontzepturen inguruan

arituko da Zilarmendi: diafragma, obturadorea, konposizioa, ISOak...

Hala, 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena hastapeneko argazkilaritza ikastaroan, eta horretarako, 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu, kultura etxera joan edo [kultura@eskoriatza.eus](mailto:kultura@eskoriatza.eus) helbidera idatzi daiteke. Saioaren prezioa bost euro da eta, plaza kopurua mugatua den arren, oraindik lekua dagoela adierazi dute antolatzaileek. Gaur izango da azken eguna izena emateko.

## Aloñara irteera izango da domeka honetan

Eskoriatzako *Makila eskuen eta ibili basuen* taldeak hiru urte daramatza hileroko mendi-irteerak antolatzen. Hala, oraingoan, Oñatiko Aloña mendira irteera antolatu dute, eta domeka honetan izango da, hilak 17. Interesa duen edonork joan daiteke, eta bertara joateko bi aukera izango dira: batetik, 09:00etan, Eskoriatzako Huzezi

unibertsitateko aparkalekuan batuko dira zenbait lagun. Bestetik, 09:30ean, Oñatiko Urtiagaingo aparkalekuan batuko dira beste zenbait.

Parte hartu nahi duenak ez du izenik eman behar, baina hurrek heldu batekin lagunduta joan beharko dute. Egingo duten ibilaldiaren iraupena lau ordu ingurukoa izango da. Eta, hain zuzen ere, hitzordu hau amaitzean erabakiko dute datorren hilera begirako irteera zein izango den.

## OHARRAK

### Siroka kontzertua

Azken orduko arazoengatik, gaur, Inkernun izatekoa zen kontzertua bertan behera geratu da. Hurrengo, abenduaren 6an, izango da, Unidad Alavesa taldea.

### Kebab eguna

Eskoriatzako eta Aretxabaletako gaztelekuetako kideak Auzoko egitasmoarekin batera, azaroaren 22rako prestatutako ekintza; 17:00etan, Arrasateko Kebab-era irteera.

### IV. Pintxo Lehiaketa

Azaroaren 29tik abenduaren 1era izango da, biak barne. Aurten, gainera, bost tabernek hartuko dute parte, inoiz baino gehiagok.

## Santa Zezilia eguna ospatuko du musika eskolak

Azaroaren 22an da musikarien patroia den Santa Zezilia eguna, eta, urtero moduan, hutsik egin barik, Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolak bat egingo du egunarekin; eta hori gauzatzeko, nola ez, musika emanaldiak izango dira.

Batetik, urtero moduan, musika eskolako ikasleek egunerako prestatutako kantuak eskainiko dituzte. Emanaldia azaroaren 21ean, egunean, izango da, Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan. Eta, bestetik, azken urteotan egin duten moduan, musika eskolako bandak Santa Zezilia eguneko kontzertua eskainiko du azaroaren 22an, 20:00etan, Zaldibar antzokian.

# Herriko mugikortasunean pausoak emateko bidean

Leintz Gatzagako mugikortasunaren garapenean zenbait hobekuntza egin gura dituzte Leintz Lotzen ekimeneko kideek. Horretarako, Foru Aldundian batzartu dira, eta garraio publikoa eta Gatz Bidea hizpide zenbait proposamen helarazi dituzte

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Azken urteotan, garraio publikoa, bidegorria, bizikleta bideak... hobetzeko lan handia egiten ari dira gatzagarriak. Horretarako, Leintz Lotzen herri egitasmo kideek eta Gurel Guraso Elkarteek zenbait lan egin dituzte Gatzaga bailararekin lotzen duen bidea mantendu, berreskuratu eta jendeak erabiltzeko bidean. Horrekin batera, autobus zerbitzua ere izan dute hizpide zenbait herri bileratan, eta mugikortasunaren bueltan aurrerapausoak emateko txosten bat prestatu eta Foru Aldundian aurkeztu dute Gurel Elkarteek. Hala, Rafaela Romero diputatuarekin batu ziren urriaren 29an, herrian identifikatu dituzten arazoez hitz egiteko

"Esperantzaz" irten ziren batzarretik; beraien esanetan, "arretaz" entzun zituzten beraien eskaerak, eta baita "beharrak ulertu ere". Horren adierazle da Gipuzkoako Foru Aldundian Mugikortasun eta Lurralde-Antolaketarako ahalduen Rafaela Romero abenduan izango dela Eskoriatzatik Gatzagarainoko Gatz Bidea oinez egiten, ibilbidea ezagutzeko, Leintz Lotzen egitasmo eta Gurel Guraso Elkarte kideekin batera.

## Herri batzarretan hizpide

Dorleta Elkorobarrutia Leintz Lotzen egitasmo kideak adierazi du Gatzagan egin izan diren herri batzarretan mugikortasuna izan dela bertakoek jasaten duten desabantaila handienetakoa: "Guraso elkartetik eta inguruko herritarren laguntzarekin mugikortasunaren inguruko azterketa egin eta proposamen batzuk landu nahi izan ditugu, eta horiek Foru Aldundian aurkeztu: Alde batetik, garraio publikoaren hobekuntza, eta, bestetik, errepidea ekidinez oinez zein bizikletaz mugitu ahal izateko eskubidea lantzea".



Gatz Bidearen lehen ibilaldi ofiziala egin zuteneko. IMANOL SORIANO

## ABENDUAN, RAFAELA ROMERO IZANGO DA, BESTEAK BESTE, GATZ BIDEA EZAGUTZEKO BISITAN

Garraio publikoari dagokionez, hobekuntza batzuk eskatu gura izan dituzte, honako hau argudiatuz: "Herritik pasatzeko autobusen orduategia asko zabaldu den arren, zerbitzu hau optimizatzeke hobekuntza minimo batzuen beharra ikusi dugu. Autorik ez duten gazteentzat zuzendutakoa, batez ere. 12 urtetik gorako herriko gazteek ez dute Eskoriatzan herrian bertan ikasten, Almen-Arizmendi ikastolara edo Aretxabaletako Kurtebarri eskolara mugitzen dira, eta, hori dela eta, eskolaz kanpoko ekintzak eta lagunak ere sarritan Aretxabaletan izaten dituzte. Horregatik, ezinbesteko ikusten dugu orduategi konkretu batzuetan zerbitzu hau Aretxabaletatik izatea. Bestalde, Eskoriatzaraino heltzen diren gaintzeko lineen eta Leintz Gatzagara heltzen diren arteko

koordinazioa ahal den neurrian hobetzea nahi genuke".

## Gatz Bidean badago zer egin

"Herri ekimen gisa hasi eta Udaletik ere bultzatzen ari den oinezko eta bizikletazkoen bidea da Gatz Bidea. Azken bi urteetan asko hobetu den arren, oraindik zeregin handia dago bertan, urteko edozein sasotan gazte zein nagusientzat erabilgarri egoteko. Horrelako alternatiba gabe, Gatzaga mugikortasunetik kanpo geratzen da, etorkizun jasangarri horretatik at. Beraz, bidea zain-tzea eta hobekuntzak egitea eskatzen dugu".

## Eskerrak laguntzaileei

Proiektu honetan lagundu dutenei eskerrak eman gura izan dizkiete Leintz Lotzen egitasmo kideek. "Eskerrik asko ideia hau lantzen eta aurrera eramaten lagundu diguzuen Debagoieneko elkarte eta norbanako guztiei, inguruko baserriar eta auzokideei, herri ekimenean parte hartzen dutenei, eta udalei, emandako pausoengandik. Ametsa proiektu bihurtu dugulako eta proiektuari behar den oihartzuna ematen lagundu diguzuelako".



IMANOL BELOKI

## Herriko nagusiena hil da

Matilde Arrese Aranburuzabala, Leintz Gatzagako pertsona nagusiena, astelehenean zendu zen, 102 urterekin. Zenbait urtez egin izan diote Toki Eder erretiratuen elkarteek eta baita Sorginak Elkarteek omenaldia herriko emakume nagusiena zelako. Maitatua herrian, bere hutsunea sumatuko dute ezagutzen zuten guztiek.



IBAI ZABALA

## Dantza giroan sanmilixanetan

San Milixan eguna izan zen pasa den domekan, eta Gatzagan izan zituzten zenbait hitzordu. Gatz Bidea eginda joan ziren asko, eta herrian bigarren eskuko azoka izan zen. Mokadutxo bat jateko bertan egindako piper gorri pintxoak eta txistorrak ere izan zituzten bertaratutakoek, eta larrain dantza egin zuten herritarrek, Aretxabaletako gaiteroen musikaz lagunduta.

## Seme-alabak testuinguru digitalean gidatzeko tailerra

Astelehenean, *Zer egin dezakegu gurasook testuinguru digitalean gure alaba-semeak gidatzeko?* izeneko hitzaldia izan zen Leintz Gatzagako kultura etxean. Hain zuzen, Instagram, Facebook eta Whatsapp sare sozialen erabileraz, bideo jokoetan aritzen diren ordu kopuruaz, *youtuber*-en fenomenoaz, haurren emozioak tresna digital batekin

erregulatzeaz edo etxeko arauak eta estruktura planteatu behar diren garrantziaz aritu izan ziren bertan batutakoak.

Horretarako, Emoki Elkarteko Ainhoa Arruabarrena izan zen saioa gidatzen, eta, gurasoek zituzten kezkek transmititzeaz batera, zenbait gomendio eman zizkien, beraien haurrek teknologiek dituzten harremanak hobetzeko eta, era berean, aurrera begira, dituzten adimen emozionalak era egokian maitatu dituzten.

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Aramaio eta Legutio arteko errepidearen erabiltzaile baten keza –ez da lehenengo– dago datozen lerroon jatorrian. Aldameneko argazkiari lagun eginez, ondoko mezua bota zuen Twitter sare sozialean Liher Larreak: "Kruzeta eta Legutio artean ezaguna egin da behi familia hau gidarion artean. Baina ematen dizkigun sustoei konponbidea aurkitu beharko diegu, ezta?".

Aramaio Udala aipatzen zuen mezuak, eta Goienak Lierni Altuna alkateari galdetu dio gaiaren gainean. Baina baita Arabako Foru Aldundiko bi sailetako arduradunei ere, Abeltzaintzakoari eta Errepideetakoari; izan ere, Aldundiaren jabetzakoa da Gorbeialdeko bi herriak lotzen dituen A-2620 errepidea.

Hasteko, Lierni Altunak dio aspalditik datorren kontua dela hau: "2000. urtearen bueltan itxiturak jarri ziren. Udalak jarri zituen itxiturak, Aldundia-rengandik laguntza bat jasota, eta hitzarmen bat sinatu zuten jabeekin horretarako. Epaiketa bat ere egon zen tartean, jabe batek ez zuelako halakorik egin nahi. Garai hartako udal ordezkariak galdetu beharko litzaieke, baina ulertzen dut Udalak hori egin zuela arrisku bat zegoelako. Dena dela, Foru Aldundiaren bidea da, eta bertako segurtasuna bermatzea Aldundiari dagokio, gure bideetan guri dago-kigun bezala".

Kontua da 2000. urte buelta hartan jarritako itxiturak hondatu egin direla denborarekin, "narrak, desbrozadora... tarteko", alkatearen arabera, eta hondatutako itxitura haietatik irten da agertzen da ganadua errepidean, dakarren arriskuarekin. "Hori ikusita, Aldundiarekin harremanetan ibili gara, Errepideen Sailarekin. Lehenengo eta behin, jabeek bidali zieten jakinarazpen bat beharrezko konponketak egin zitzaten eskatuz; egiten ez bazituzten, euren egingo zituztela eta gero kostua kobratu egingo zirela esan zieten jabeek. Eta, orduan, jabeek gugana etorri ziren kexu. Diputazioarekin egon ginen eta esan genien hori ez zela bidea. Jabeek ez dute hori egin behar; ze, gainera, bide kontrari lurrak dituzten jabe gehienek ez dute animaliarik, agertzen diren



Behia, errepidean, Aramaio eta Legutio artean. LIHER LARREA

## Kruzetako ganaduarena konponduko ahal da ezer larria gertatu aurretik

2019an 28 esku-hartze egin ditu Ertzaintzak ganadua errepidean ezbeharren bat eragiteko moduan zegoela eta. Hainbat itxitura konpondu beharrean dagoela da kontua. Aldundiak eta Udalak elkarri eskatzen diote irtenbide bila gehiago egiteko

animaliak beste batzuenak dira", dio alkateak.

### Aldundiak zer dioen

Lierni Altunak zioen Diputazioari dagokiola Aramaio eta Legutio arteko errepidearen segurtasuna bermatzea, eta Diputazioak dio bere esku dagoen "dena" egiten duela horretarako: "Eskatu diegu jabeek itxiturak jar ditzaten, eta, hortik aurrera, errepidea behar den bezala seinaleztatu [arriskuaz ohartaraziz] beste ezer ezin dezakegu egin", dio Aldundiko Bide Segurtasun eta Ustiatze buru Roberto Diezek;

### "ANIMALIEN JABEAK DIRA GAI HONETAN ARDURADUN NAGUSIAK"

LIERNI ALTUNA, ARAMAIOKO ALKATEA

horrekin batera, Diputazioak "errepide zaintzailea handik bueltara" ibiltzen dela ere badi Diezek.

Bide Segurtasuneko buruak dio Aldundia ere "asko" arduratzen duen gaia dela hau, eta presente du egunen batean "ezbeharren bat" gerta daitekeen mamua. Itxiturak behar den bezala jar zitzaten eskatuz euren jabeek bidalitako "errekerimendua" berriz ere gogora ekarri –alkateak ere aipatzen zuena–, gai honetan Aramaio Udala saiatu behar lukeela gehiago iradokitzen du Diezek; Udalak

### "ERREPIDEA SEINALEZTATU BESTE GAUZARIK EZIN DEZAKEGU EGIN GUK"

ROBERTO DIEZ, ALDUNDIKOIA

bultzatu behar lituzkeela jabeak arazoa konpontzeko bidean jartzera.

Kontua da alkateak aurretik aipatzen zuena: jabeak; ze jabe? "Gure zaintzaileak ikusten badu ze itxituratik egin duen ihes ganadua errepidera iristeko, jarri izan da harremanetan jabearekin, eta jaso izan du erantzun hau: *Nik, nik ez nekien ganadua zebilenik nire lurretan*". Alkateak zioena, errepide bazterreko lurren jabeena ez dela izaten bidean agertzen den ganadua; hortaz, zertan hasi behar dute errepide bazterrekoek,

### "DIRULAGUNTZA ESKATUKO BALUTE, ZIURRENIK EMANGO LITZAIKE"

KOLDO PEREZ, ALDUNDIKOIA

euren aldetik itxituretan dirua gastatzen? "Hemen, arduradun nagusiak dira animalien jabeak", dio Altunak: "Baina ez dakigu animaliak zeinenak diren. Ze, noski, identifikazioa belarrarian egonda, harrapatu egin behar duzu animalia zeinena den jakiteko".

### Ertzaintzaren esku-hartzeak

"Guk ez dakigu zer gehiago egin", dio Aldundiko Roberto Diezek: "Errepide zaintzaileak ganadua ikusten duenean, Ertzaintzari pasatzen dio abisua; ez dakidana da hortik aurrera zer gertatzen den, Ertzaintzak salaketarik jartzen duen edo ez jabeen aurka...".

Segurtasun Sailean galdetuta, halako kasuetan nola jokatzeko duten azaldu diote Goienari; salaketa konturik ez da aipatzen igorritako azalpenean –espresuki galdetu arren–: "Ertzaintza iristean ganadua oraindik tokian eta errepidean egonez gero, bidea libre uztea izaten da lehenengo egitekoa. Ondoren, animaliak identifikatzen saiatzen gara belarrietako identifikatzaileen edo bestelako marken bitartez, nahiz eta egiteko hau, arriskutsua izateaz gain, zaila ere baden, animaliek ihesera jotzen baitute agenteak ikustean. Identifikatzea posible denean, animalien jabearekin jartzen gara harremanetan, eta gertatutakoaren berri ematen diogu, errepikatu ez dadin hartu beharreko neurriak har ditzan; eta Arabako Foru Aldundiaren dagokion zerbitzua ere jakinaren gainean jartzen dugu".

Honekin batera, Segurtasun Sailetik diote urteetan helarazi dietela "arazo hau eta irtenbide bat topatu beharra" Arabako eta Bizkaiko (sic) foru aldundiei, eta baita "udalei" ere.

Gai honekin lotuta 2019. urte honetan Kruzeta inguruan egingo esku-hartze kopuruari buruz galdetuta, Segurtasun Sailetik jakinarazi dute 28 izan direla, denera: hemezortzi, behiengatik; bederatz, zaldi edo behorregatik; eta bat, ahuntzengatik.

### Egoera, "ataskatuta"

Egoera "nahikoa ataskatuta" dagoela dio Lierni Altuna alkateak, eta "nahikoa jasanezina" dela. Diputazioak Udalarri gehiago egin dezan eskatzen dion bezala, Udalak Diputazioari



GOIENA

## "Beti ganadu bera dela esango nuke"

LIHER LARREA  
ERABILTZAILEA

Sarri erabiltzen du A-2620 errepidea, eta behin baino gehiagotan egin du topo ganadurekin.

### Sarri izaten da ganadua errepidean?

Bai; Kruzeta pasatu eta Legutiora bidean egon ohi dira. Beti ganadu bera dela esango nuke. Askotan, ez duzu jakiten nola jokatu ere, Ertzaintzari abisatu edo ez...

### Arreta deitu eta hau konpontzeko ezer egiten ari diren jakin nahi izan duzu, ezta?

Bai. Beti esaten den moduan, baten bati zerbait larria gertatu arte, istripuren bat gertatu eta zerbait gogorra pasa arte, hildakoren bat tarteko, agian, ez dute ezer egingo. Eta egia da, hor gabiltzanok badakigu, eta argi joaten gara, jakinda edonon topatu dezakegula halakoren bat, baina...

eskaten dio gauza bera: "Guk ikusten duguna da, batetik, Diputazioak bere aldetik jarri behar duela eta itxiturak konpondu, eta hor ari dira Nekazaritzarekin-eta... eta, bestetik, zerbait egin behar dela animalia horiek hobeto identifikatzeko. Belarrietakoarekin asko hurbildu behar da horietan jartzen duena ikusteko".

Eta gauza are gehiago korapilatzen duen beste faktore bat: ez da bakarrik errepidean arriskua eragiten duten animalia

horiek ez direla bide bazterreko lurren jabeenak; Aramaioko alkatearen arabera, animalioak ez dira herriko abeltzainenak ere; ez izateagatik, ez dira Arabakoak ere, Altunak dioenez: "Animalia horiek, gehienak, Gipuzkoatik datoz. Eta Gipuzkoako abeltzain batzuek erabiltzen dute 1409ko mugarritzea. Garai hartan, hitzarmen bat sinatu zen zeinen arabera aramaiokarrek Marin ingurura-eta eraman zezaketan ganadua, eta baita alderantziz ere. Eta horrekin babesten dira. Baina nahiz eta euren animaliek eskubidea eduki -eta, gainera, gaur egun, animaliak sobera ez ditugu eta ondo datoz basoa mantentzeko ere-, arauak bete egin behar dituzte, eta identifikatuta egon behar dute eta hori guztia. Eta hori Foru Aldundiari [Arabakoari] esan diogu, Nekazaritza sailari, batetik: *Probintziako arauak betearazi animalia horiei!* Eta, beste aldetik, itxiturena dago: nik pinuak baditut edo, berdin zait, ez badut animaliarik, zergatik itxi behar ditut lurrak, zergatik gastatu behar dut dirua; nik hori ulertzen dut jabeen partetik. Beraz, Diputazioak jarri behar du dirua eta konpondu behar ditu itxiturak, segurtasuna bermatzeko, jabeei baimena eskatuta".

### Abeltzaintza zerbitzuko burua

"Nekazaritza" Saila aipatzen zuen alkateak. Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza zerbitzuekin ere jarri da harremanetan Goiena, eta Koldo Perez zerbitzuburuak ere, Aramaioko alkateak moduan, gogora zekarren "duela urte asko" dirulaguntza eman zietela abeltzainei eta basoen jabeei "itxitura berezi batzuk" jartzeko. Orain, berriz ere beharra egonda, "dirulaguntza eskatuko balute, ziurrenik" emango litzatekeela zioen Perezek: "Baina, dakidanez, halakorik ez da izan azkenaldian".

Aramaioko alkate Lierni Altunak dio Udalak gai honetan lanean jarraitzeko asmoa duela: "Ea lortzen dugun Arabako Diputazioarekin aurrera pausoak ematea. Gu, laguntzeko prest gaude, ze, azkenean, guk erabiltzen dugu bide hori, baina hortik aurrera... Izango litzateke gu sartzeko moduan autobide bateko kontuetan. Espero dut ezer pasa aurretik konponduko dela gaia".



ARAMAIOKO UDALA

## Izar Elortzarentzat sari nagusia

Hari eman dio epaimahaiak Aramaioko argazki lehiaketako lehen saria, egun hodeitsu batean ateratako erretratuagatik. Elortzarekin batera, Uxue Balantzategi, Ramon Ormaetxea, Asier Castellano eta Eider Ballina saritu dituzte, negutik udazkenean, urtaro bakoitzeko argazki onenengatik. Dozena osatu eta hurrengo urteko egutegia aterako dute argazkiokin.



Julen Olaizola. IMANOL SORIANO

## Sanmartinetako finalean, Olaizola eta Arriolabengoa nagusi

Mailarik gorenean, kadeteetan, jokatu zuten aramaiokarrek -herriko bikote bakarra izan zen finaletan-, eta Amurrioko Sanz eta Arauzo izan zituzten aurkari. Olaizolak eta Arriolabengoa irabazi zuten, 22-9. Julen Olaizolak adierazi zuenez, partidua polita izan zen: "Lan ona egin genuen Arriolabengoa eta biok, gustura sentitu gara". Eskueta- eta ere ondo amaitu zuten.

## Hainbat ekintza azaroaren 25aren bueltako egitarauan

Hurrengo barikuan, hilak 22, emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak izango ditu hizpide Norma Vazquezek, 18:00etan, kultura etxean. Hilaren 25ean, kalejira zaratsua egingo dute, 17:30ean kultura etxetik irtenda. Hilaren 30ean, azkenik, *Custodia compartida* izeneko filma emango dute, 21:00etan, kultura etxean.

## OHARRAK

### Untzillako bideak

Untzillako bideak itxita egongo dira domeka honetan, mendiko duatloiak irauten duen bitartean.

### Bikoizketa lehiaketa

Bigarren edizioa izango da aurtengoa. Azaroaren 28an aurkeztuko dituzte lanak; aurrez, prestaketa tailerra egingo dute, hilaren 19an, 18:00etan, udaletxean.



Soto, Aperribai, Arteaga, Aznal eta Egaña, Atarrabiako Totem aretoko lehen kontzertua amaitu berri, urriaren 31n. POLI KARPO

# Arrakasta eroa, eta aurrera doa

2017an sortu zenetik, lehen diskoa aurkezteko bira Gasteiz Calling jaialdian amaitu du Brigade Loco taldeak; punk-oi! eszenan horren gazteak izanda aurrekaririk ez duen arrakasta ulertzeko, taldekideekin eta beste lau ahots esanguratsurekin egon da GOIENA

## Jokin Bereziartua BERGARA

Ukaezina da Brigade Loco talde bergararra fenomeno bat bihurtu dela. Ez dago aurrekaririk Debagoiengan, punk-oi! taldeen artean, behintzat, bi urte eskaseta halako arrakasta lortu duenik. Iaz azaroan kaleratutako *Ekintzek dute hitza* diskoaren salmentak itzelak izan ziren; 2018ko urriaren 24an kaleratu zuten *Aurrera doa* abestiaren bideoklipak ia 461.000 ikustaldi izan ditu Youtuben; eta 2019ko urriaren 9an argitaratu zuten *Bultzada* kantuen bideoklipak hilabete batean ia 120.000 ikustaldi izan ditu.

*Ekintzek dute hitza* diskoa aurkezteko bira amaitu zuten joan den zapatuan, hilak 9, Gasteiz Calling jaialdi entzutetsuan. Birak 56 kontzertu izan ditu eta Gasteiz Calling-aren aurretik eman zituzten bi kontzertuetan,

betiere, Des-kontrol arrasatearrarekin eta Rotten XIII tafallararekin batera, Atarrabiako Totem aretoan bi egunez jarraian sarrera guztiak saldu zituzten. Bi gau haietan 2.400 bat lagun elkartu zituzten, guztira, belaualdi ezberdinak nahastuta –eta makina bat kamiseta saldua–.

## Lau ahots, ulertzen laguntzeko

Hau guztia aintzat hartuta, non dago Brigade Locoren arrakasta ero horren gakoa? Askotarikoak izan daitezke erantzunak: teknologia berriei esker musika sortzeko orduan beste garai bala-

**'EKINTZEK DUTE HITZA' DISKOAREN BIRAK 56 KONTZERTU IZAN DITU; DISKO BERRIA 2020KO APIRILEAN IRTENGO DA**

tzuetan baino baliabide gehiago daudela egun, sare sozialak ezin hobeto erabili dituztela, punk-oi! estiloak azken hamarkadetan izan dituen beste olatu edo bolada horietako bat bizi dugula...

Faktore ezezagun horretara ahalik eta gehien hurbiltzeko, Brigade Locorekin egoteaz gain, beste lau ate jo ditu GOIENAK: aspalditik kontzertuak antolatzen eta musikariekin lanean diharduen Iker Barandiaran kazetari arrasatearra; 1996an Des-kontrol sortu eta ordutik etenik gabe jotzen diharduen Oier Beitia *Magu*; Bergarako eta inguruetak *mobida* ondo ezagutzen duen Kaleko Urdangak taldeko baxu-jole Asier Kortabarria *Moto*; eta taldea eratu berri duen eta Brigade Locorekin entseatzeko lokala partekatzen duen No Limits taldeko baxu-jole Erik Heran –ikus hurrengo orria–.

## "Amets bati begira egin dugu lan, baina olatu hau ez da normala izan"

### BRIGADE LOCO

Kamerinotik, Gasteiz Calling jaialdi ezagunean *Ekintzek dute hitza* birarekin amaitu berri dutela, erantzun dituzte GOIENAREN galderak. **Zelan Gasteiz Calling-en? Erreferente asko backstage-an?** Izen handiko jaialdi baten jotzea beti da esperientzia polita. Kontzertu motza izan zen, baina gozatu genuen. Gu moduko taldeak sortzeko ezinbestekoak izan diren musikariak ezagutzea oso berezia izan zen. **Nolako izan da bira? Kontzerturik nabarmenduko zenukete?** Abentura ederra bezain gorabeheratsua izan da. Bidaia abiatzean ez genekien zer emango zuen; ia dena izan da berria, eta pozik iritsi gara helmugara. Zein nabarmendu? Jimmy Jazz aretoan Cock Sparrer handiekin emandakoa, Atarrabiako Totem-en Des-kontrol eta Rotten XIII-rekin batera bizitako bi gau ero haiek, lehen kontzertua... Baina guztien gainera Larragan emandakoa dago; Rotten XIII-ko Javiren omenezko jaialdia ez dugu ahaztuko. **Inor gutxik esperotako arrakasta izan duzue. Zein da gakoa?** Auskalo zein den formula magikoa. Lan egin dugu, ordu asko sartu ditugu. Ilusioa izan dugu bidelagun eta sinistu dugu egiten genuen horretan. Oztopoi lanarekin eta ilusioarekin erantzun diegu. Hasi ginenean inork ez zuen sinistuko Gasteiz Calling moduko jaialdi baten joko genuenik, diskoak halako harrera izango zuenik. Urte asko behar izaten dira gu heldu izan garen lekutara heltzeko; amestu genuen eta amets horri begira egin dugu lan, baina olatu hau ez da normala izan. **Nola daroazue ezagun izatea? Kalean geratzen zaituztete?** Ondo daroagu, ez gara oso ezagunak. Lehen aldietan arraroa egiten zitzaigun argazkiak-eta eskatzea; babesa da, ondo ari garen seinale. **Hemendik aurrera zer? Noiz aterako duzue bigarren diskoa?** Urte bukaerara bitartean abesti berrietan zentratuko gara, sorkuntzan. Bigarren disko luzea 2020ko apirilera gertu egotea espero dugu.



Brigade Loco taldekoak Jimmy Jazz aretoko kamerinoan. BRIGADE LOCO

## "Kabroi kutun hutsak gara"


"Euskaldunak, gazteak, bihurtuak eta bromazaleak gara. Kabroi kutun hutsak". Halaxe deskribatzen dute euren burua Mikel Sotok, Oier Aperribaik, Alex Artegak, Lander Aznalek eta Manex Egañak. Soto, Arteaga eta Aperribai bergararrak dira, Aznal debarra eta Egaña hernaniarra. Hala ere, Bergara dute topaleku, taldea sortu zutenetik goiko estazioko lokalean entseatzeko dute-eta astero-astero: "Asteburua badatorrela-

eta motibatuta egoten garenez, eguenero elkartzen gara entseatzeko. Gure musikarentzat eta taldearen osasunarentzat oinarritzko zutabea dira entseguak".

## Realzale amorratuak

Bergarako Arrano tabernan erein zen Brigade Locoren lehen hazia: "Oier eta Alex ezagutzen ziren eta gero Soto ere sartu zen. Oierrek eta Landerrek talde bat egiteko proiektua zuten aurretik, eta Lander entsegu batzuetarako etorri zen. Entsegu batzuk izan





I.B.

## "Bergara hardcorearekin lotzen dut nik"

IKER BARANDIARAN  
KAZETARIA, MUSIKAN ADITUA

Brigade Loco ikusteke ere, urte luzetako esperientzia du bertako musikariek lanean. **Nola uler daiteke Brigade Locoren arrakasta?** Zaila da azaltzeko. Euskal gazteriaren zati batek mezu borrokalaria du oraindik; gainera, badago nolabaiteko nostalgia eta miresmen bat hemen izan ziren punk-oi! taldeekiko. Bestalde, euren jarraitzaileek hurbileko ikusten dituzte, eurak izan zitezkeen; eta konektatzeko asko laguntzen du horrek. Ez dakit zer duten punk-oi!-ak eta punk-rockak hemen, baina harapatu egiten dute. **Ze musika estilorekin lotuko zenuke Bergara?** Hardcorearekin lotzen dut nik Bergara, nire gustuetatik gertuago dagoen estiloa da. Bergarakoak izan dira Bost Axola, Fly Shit, Supercools eta beste batzuk; Bergaran, orain arte, ez da puntako punk-oi! talderik izan. Hori bai, egon dira beste herri batzuetako talde sendoetan aritu izan diren bergararrak.




J.B.

## "Pozgarria da haria eten ez dela ikustea"

OIER BEITIA 'MAGU'  
DES-KONTROL

Urriaren 31n eta azaroaren 1ean Brigade Locorekin jo zuten Des-kontrol; 1996tik eten barik ari da jotzen *Magu*. **Non dago Brigade Locoren arrakastaren gakoa?** Ez dakit esaten, faktore asko izan daitezke. Izan dira urte batzuk ez dela punk-oi! talde gazte indartsurik irten. Gero, hitzek gazteriarekin konektatu dute. Argi dago gogoia eta jarrera badutela, eta hori da inportanteena. **Arrakasta beranduago iritsi zizaitzuen zuei...** Garagardoaren truke jotzen genuen eta kontzertuetara autostopean joaten ginen. *Duintasunez eutsi!* izan zen gure inflexio-puntua; disko hori asko zabaldu zen. **Harremanik baduzue?** Duela urtebete ezagutu genuen elkar. Des-kontrol hasi zenean, ume-mokoak izango ziren... Melodia batzuetan antzematen diet eragina; pozgarria da haria eten ez dela ikustea. Itzela izan zen Totem aretokoa; zenbat gazte dena ematen...




A.K.

## "Balio dezala olatuak eszena indartzeko"

ASIER KORTABARRIA  
'MOTO' KALEKO URDANGAK

Los Angelesko Vis Vires oi! taldearekin diskoa eta *Morts Pour La Patrie* abestiarekin bideoklipa kaleratu berri dute; hazten ari da *Kaleko* ere, hemen eta atzerrian. **Nola azaldu dezakezu herrikideen arrakasta?** Debagoienean beti egon izan da punk-oi!-a. Olatu ezberdinak egon izan dira; Des-kontrol fenomeno bat izan zen, Arkada Social ere bai... Orain harritu nauena da adin guztietako jendea mugiarazi duela *Brigade*-k. Ohikoena ez den publiko batekin konektatu dute eta gauzak oso ondo egin dituzte. Baina ez dakit neurtzen publiko horrek benetako interesik baduen eszenarekin. Olatuak balio beharko luke mugimendua indartzeko; denborak esango du fruiturik emango duen. **Nola dago mugimendua?** Hau ez da Arrasate, oso esanguratsuak diren taldeak eman dituen herria, baina Bergaran azken 20 urteetan egon da ia beti talderen bat.



E.H.

## "Abestiak eta zuzenekoak bereziak dira"

ERIKER HERRAN  
NO LIMITS

Duela urtebete taldea sortu eta martxoan eman zuen lehen kontzertua Bergarako taldeak. Debutean goraino bete zuten kartzela zaharra. **Nolako harremana duzue Brigade Locorekin?** Oso ona. Musika aldetik eta materialarekin asko lagundu digute; entseatzeko lokala partekatzen dugu, gainera. **Zergatik uste duzue izan dutela halako arrakasta?** Oso onak direlako eta euren abestiek entzuleari zerbait berezia eskaintzen diotelako. Zuzeneko bikainak eskaintzen dituzte, igartzen da dena ematen izugarri gozaten dutela. **Nola dago punk-oi! eszena egun Bergaran?** Gorabeherekin, baina esango nuke beti egon dela punk-oi! mugimendua Bergaran. Gaur egun, asko entzuten da eta talde berriak sortzen ari dira; pozgarria da. Guk zazpi kontzertu eman ditugu eta igarri dugu asko hobetu dugula; egurra ematen jarraituko dugu!

bitartean, gutxi gorabehera, punk-oi! taldeak batu zituen eszena izan zen. Dagoeneko adin bat duten punk-oi! jarraitzaileek modu berezian gogoratuko dituzte *Holidays in Bardulia* izenarekin urtean behin egiten ziren kontzertuak. Brigade Locoren arabera, mugimendu hori egon izan ez balitz, seguruenik eurek ez zituzten instrumentuak hartuko: "Taldea horiek guztiak egongo izan ez balira, ziur gaudete ez zela berdina izango. Horiak dira gure lehen erreferenteak; aipatu ditzakegu Cock Sparrer [oi! musikaren aitzindaritzan koka daitezkeen talde horrekin jo zuten apirilean Gasteizko Jimmy Jazz aretoan], Social Distortion eta atzerriko beste talde batzuk, baina guretzat benetako eragile izan direnak ondoko herrietako talde horiek dira. Apunta edo Never Surrender moduko taldeak, besteak beste. Pena da orduko mugimendurik ez dagoela egun".

### Gogotsu bigarren faserako

*Ekintzek dute hitza* biran 56 kontzertu eman dituzte. Euskal Herrian izan dira gehientsuenak, eta Euskal Herritik kanpo lau eman dituzte: Bartzelonan, Valladoliden, Mostolesen eta Erroman (Italia). Amaitu da lehen bira, baina bigarren diskoari begira lanean daude jarrita dagoeneko. "Hurrengo urtearen hasieran sartuko gara grabatzera; Iruñeko Sound Of Sirens estudioan grabatuko dugu berriro, Julen Urzaizekin. Oso eroso egon ginen eta oso gustura geratu ginen emaitzarekin".

Badakite hartu duten arrakastaren olatua edozein unetan apurto daitekeela; olatuaz eder to gozatu dute, eta orain gogotsu daude bigarren faseari ekiteko.

behar ziren, baina ikusi non bukatu dugun...". Gero Anoetan gorpuztu zen taldea, Realak pisu handia duelako haiengan: "Oho-rea, maitasuna eta harrotasuna esan nahi du Realak guretzat".

### 'Brigadetarren' garrantzia

Brigade Loco ez dago ulertzerik atzean dituzten *brigadetarrek* barik. Taldearen lehen urratsak oso gertutik jarraitu zituen Iosu Herranek: "Beti izan dituzte ideiak oso garbi. Jende asko sentitu da identifikatuta euren abestiek, eman dituzten kontzertuekin eta erakutsi duten jarrerarekin; horregatik, arrakastak ez nau askorik harritu. Dena ez da polita izan, une oso zailak ere bizi izan ditugu; Javiren heriotza, kasu [Rotten XIII-ko baxu-jolea bat-batean hil zen lanean, 2019ko urtarrilaren 16an]. Familia bat sortzen joan gara poliki-poliki eta horrek une zailak eramangarriagoak izatea ahalbidetu digu".

Taldekideentzat "oso garrantzitsuak" dira *brigadetarrek*: "Kua-drillakoak, senitartekoak, neska-

lagunak, hasierako kontzertuetatik jarraitu gaituztenak, Tafallako familia, kontzertuz kontzertu ezagutu ditun taldeak... Hori guztiak dira *brigadetarrek*, ibilbide ero honetan jarraitu gaituztenak. Daudenak, baina baita joan direnak ere". Agertoki eta areto handietan jotzea zer den badakiten arren, lehen bi urte hauetan gaztetxeak eta txosnak izan dira Brigade Locoren zuzenekoetarako agertoki ohikoena. Kontzertuetarako zenbat jende mugiarazten duten jakitea ez da

erraza: "Valladoliden 40 lagun aurrean jo genuen, Kalera Rock jaialdian milaka pertsonaren aurrean... Lekuaren eta antolakuntzaren arabera izaten da; batez beste, 600 bat lagun elkartu izan dira gure kontzertuetan. Ezin gara kexatu".

### Barduliari aipamen berezia

Erreferente musikalak zeintzuk diren galdetuta, hasteko eta behin, Bardulia izeneko mugimendua aipatzen du Brigade Locok. Berezik Gipuzkoan eta 2004tik 2012ra

## 'Zut'-en lehen zenbakian

Azaroaren 21ean irtengo da *Zut* aldizkari digital multimedia; ADMK -tartean dago GOIENA- eta Gaztezulok elkarlanean sortutakoa da, nerabeentzat. Euskal Herri mailakoa da aldizkaria. Lehen zenbakian, Brigade Loco bergararrak izango dira protagonista.



Astelehenean egindako aurkezpenaren irudiak. MAIALEN SANTOS

# Kalera Eguna ospatuko dute herrian, lehenengoz

Euskal preso eta iheslariak espetxeetatik kalera ateratzea eskatzeko, Kalera Eguna antolatu dute Bergaran, lehenbiziko aldiz, datorren azaroaren 23rako. Arratsaldetik hasita, musikak protagonismo handia izango duen egitarau oparoa antolatu dute

**Jone Olabarria** BERGARA

Aldarrikapen politiko eta sozialak lortzeko herri mobilizazio "indartsu" eta "iraunkorra" beharrezkoa dela iritzita, Kalera Eguna antolatu dute Bergaran, lehenengoz. "Aldarrikapenak eta jaia uztartuz" Bergarako herria kalera atera nahi dutela adierazi du Maren Belastegik, Kalera Eguneko antolatzaileetako batek.

Hala, azaroaren 23an, datorren zapatuan, Bergaran Kalera Eguna egingo dute, "euskal preso eta iheslariak espetxetik kalera ateratzea" eskatzeko. Horren harira, aldarrikapenak egiteko eguna izango dela adierazi dute antolakuntzatik: "Herri oso bat kalera irteteko eguna izango da. Presoak, iheslariak, bidean eroritakoak eta beraien familiak goxo eta bero babestuko ditugu". Gaineratu dutenez, "ozen" egingo dituzte aldarrikapenak, eta "dantza eta kantuz" bete nahi dituzte Bergarako kale eta herriarrak.

**Egitaraua, arratsaldetik hasita**

Jaia eta aldarrikapena uztartuz egitarau oparoa antolatu dute egun horretarako herriko kultur talde ezberdinekin elkarlanean.

Lehenik, 18:30ean, Manifesta egingo dute, "manifestazioa eta festa" uztartuko dituen ekintza. Herriko zenbait musikari manifestazioaren aurretik, kamioi batean, joango dira musika jotzen. Eguneko antolakuntzan diharduen Ibai Redondok azaldu du: "Bergarar guztiak gustura eta kalean aritzeko modu ona dela uste dugu".

Mobilizazioari epaitegian emanago diote amaiera, eta mezu irmo bat helarazi nahi dute, unea aprobetxatuz. "Injustiziak behinogoz amaiteza eta estatu faxista

**"HERRI OSO BAT KALERA IRTETEKO EGUNA IZANGO DA, PRESO ETA SENIDEAK GOXO BABESTEKOA"**

honek preso eta iheslarien eskubideak bete ditzala eskatuko dugu", argitu du antolatzaileak. Horretaz gain, preso iheslari eta deportatuak kalera irteteko "bidea" egin behar dela ere ekarriko dute gogora datorren zapatuko ekitaldietan.

**Hainbat kontzertu**

Manifesta amaitu ostean, gaztetxean ekitaldia egingo dute, eta, antolakuntzatik adierazi dutenez, laburra baina "potentea" izango da. Ikus-entzunezko piezak ikusteko aukera izango da bertan, eta herriko musikariek ere hartuko dute parte ekitaldian. Hain zuzen, kontzertu labur bat eskainiko dute.

Azkenik, Kaleko Urdangak taldearen emanaldiarekin emanago diote amaiera Kalera Egunari, eta Tximeleta taldeak ere eskainiko du kontzertua. Emanaldiak 22:30ean hasiko dira. Sarrerak arratsaldean bertan jarriko dituzte salgai, gaztetxean, bost euroren truke.

NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

## Adostasuna

Ez da hau *Nire ustez*-erako prestatuta neukan idatzia. Izan ere, bilobekin partekatu ohi dut zirriborroa, baina ez dut adostasunik sumatu gaiari dagokionez. Euren aurpegietan etsipena ikusi dut, pena agian, baina kontua da zakarrontzira bota dudala genero-indarkeriaz ziharduen orria; zoritxarrez, egunero izaten dugu horren berri komunikabideetan, batez ere audientzia handia dutenetan, eta horrek kutsatze-efektua izatearen arriskua dakar.

Agian, nire planteamendua erradikal samarra zen; izan daiteke, 50eko eta 60 hamarkadetako astekari zoragarri haren tituluak ditudalako buruan: *El caso* astekaria. Hala ere, nire etxeko errepublika txikian adostasuna ikusten dut, 155a aplikatu behar izanik gabe. Begirada batzuk eta komentario egoki bat nahiko izan dira, eta neure buruari galdetu diot ea horiek ere nahikoa izango diren politika munduan –begirada batzuk eta zentzuzko berba batzuk–, erabakiak hartzeko eta haiek aplikatzeko.

Zoritxarrez, ezetz uste dut; hortaz, segi garrasi egiten eta gezurrak esaten.

## 39 aparkaleku eta oinezko bidea egingo dituzte Goiauzorantz

Goiauzora bidean aparkalekuak eta oinezko bidea egiteko lanak hasi dira. Igoerako eskuinaldean aparkalekurako hamasei plaza kenduko dira, eta bertatik oinezkoen bide "segurua" jarriko dute. Oinezko bide horrek bi metroko zabalera izango duela jakinarazi du Udalak. Horrez gainera, sei farola jarriko dituzte, asfaltatutako eremua

handitu egingo dute eta 39 aparkaleku plaza egingo dituzte baterian. Construcciones Artzamendi SA enpresari esleitu dizkio lanak Udalak, eta 79.483 eurok aurrekontua izango dute –BEZa barne–.

Udaletik azaldu dutenez, 2007an Leder enpresak Goiauzoko bidearen zirkulazioaren azterketa egin zuen eta ondorioztatu zuen "oinekoendako bide segurua egiteko" ordura arteko aparkalekuak moldatu egin behar zirela.

## 1.000 lagun baino gehiago aurtengo ZTB jardunaldietan

Aurtengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldiak "arrakastatsu eta jendetsuak" izan dira, Udaletik adierazi dutenez. Guztira, 1.000 pertsona baino gehiagok parte hartu dute antolatutako jardunaldietan, eta, hain zuzen, "maila eta interes handiko hitzaldi eta ekitaldiak izan dira".

Ikasleendako antolatutako ekintzek "oso harrera ona" izan dutela aitortu dute, baita Dudley Herschbach Nobel saridunak eta Maria Veltell kimikari eza-gunak egindako aurkezpenak. Azpimarratu dute ZTBren has-tapenetatik urtez urte erakunde gehiago batzen dabilzala eta aurtur ia 30 izan direla.

## OHARRAK

### 'Meza beltza' antzerkia gaur

Kokoxa taldeak *Meza beltza* lana eskainiko du gaztetxean gaur. Bi emanaldi izango dira, 21:00etan eta 22:30ean, baina aurretik izena eman behar da, 20:00etan. Lekua mugatua da.

### 1957an jaiotakoek kintada

Azaroaren 30ean, Logroñora txangoa egingo dute. Goizeko bederatzietan Santa Marinatik irtengo dira; bisita gidatua, poteoa eta Meson Cid-en bazkaria egingo dituzte. Azaroaren 22a aurretik, 80 euro sartu behar dira: 3035 0189 31 1891038659 (Kutxa).



2019-2020 denboraldiko igerilarien talde argazkia. ANGEL EZKURRA

## Bergara igeri elkarteak denboraldiari ekin dio

Pasa den asteburuan Eibarren lehiatu ziren Bergarako igerilariak eta asteburu honetan ere hainbat hitzordu dituzte; benjaminak Oñatin eta alebinak Legazpin arituko dira. Hilaren 23rako, zapatua, txapelketa antolatu dute Agorrosinen

**Jone Olabarria** BERGARA

"Bergara eta inguruko ume eta gazteen artean igeriketa kirola sustatzea", hori da, hain zuzen, Bergarako kirol elkartearen helburua. Lan horretan dabilta aurtengoan ere, eta, hain zuzen, 2019-2020 denboraldian 7 eta 28 urte bitarteko Bergara, Antzuola eta Elgetako 80 igerilari ari dira Agorrosinen entrenatzen.

Ohikoa den moduan, aurten ere, lau kategorietan banatuta, benjaminak, alebinak, infantilak eta nagusiak, Gipuzkoako txapelketa eta topaketetan parte hartuko dute. Pasa den asteburuan, hilaren 9an eta 10ean, izan zituzten lehen hitzorduak: "Txapelketa garaia prestatzeko erabiltzen ditugu lehen proba hauek", adierazi du Xabier Labaka entrenatzaileak.

**Txapelketetarako lanean**

Aurten, Gipuzkoan, 52 ekitalditan parte hartzea aurreikusten dute, eta lortutako markaren arabera lehiaketa ezberdinetan

aritu daitezkeela azaldu dute. Adierazi dutenez, 12 urtetik gorako igerilariak igerilekutik kanpo ere parte hartu dezakete, itsaso edo urtegiatan.

Asteburu honetan ere hainbat hitzordu dituzte igerilariak: benjaminak lehen txapelketa izango dute Oñatin eta alebinak bigarrena; kasu honetan, Legazpin lehiatuko dira.

**Datorren asteburuan, Bergaran**

Datorren asteburuan, azaroaren 23an, Agorrosinen izango dute txapelketa, nagusien mailakoa. Txapelketa dela-eta zapatu horretan igerilekua itxita egongo da herritarrendako arratsaldean. Denboraldian zehar ere Bergarako igerilekuan hiruzpalau txapelketa ofizial antolatzeko asmoa dutela jakinarazi dute.

## Zortzi partidu irabazita, asteburu "ona" saskibaloian

Asteburu honetan hamar partidu jokatu dituzte saskibaloit talde bergararrek, horietatik lau etxean

**Jone Olabarria** BERGARA

Emaitza "onak" lortu zituzten Bergarako saskibaloit taldeek pasa den asteburuan. Hain zuzen, Bergarako taldeek jokatu zituzten hamar partiduetatik zortzi irabazi zituzten eta bi galdu.

Gizonezko seniorrek liderraren aurka irabazi zuten (52-51) eta laugarren postuan kokatu dira. Taldeko ordezkariak adierazi dutenez: "Partida oso bizia izan zen; azken segunduan hiruko bati esker irabazi genuen". Denboraldian jokatu dituzten zazpi partiduetatik, bi galdu dituzte, eta hirugarren sailkatuak beste puntu dituzte une honetan.

Emakumezko seniorrek, berriz, bi puntuko aldearekin irabazi zioten Saski Axular taldeari. "Lehia handiko" partida izan zen, eta momentuz taldea "ondo" hasi dela adierazi dute, lau partiduetatik hiru irabazita.



Jokalaria erasoan. GOIENA

**Asteburuan, hitzordu ugari**

Asteburu honetan hamar partidu jokatu dituzte Bergarako saskibaloit taldeek; lau, etxean. Gizonezko seniorrek puntu kopuru bera duen Alde Zaharra taldea hartuko dute etxean gaur, 20:30ean, Labegarrietan.

## Desfibriladore formakuntza

Bergara Kirol Elkarteak desfibriladore bat erosi berri du, entrenamenduetan eta partiduetan gerta daitezkeen egoera larrien aurrean erantzuna eman ahal izateko. Hala, zapatu goizean, taldeetako entrenatzaileek formakuntza saioa izan zuten, desfibriladorean zein egoeratan eta nola erabili behar den ikasteko eta praktikan jartzeko.



BERGARA KE

**UGARTE**  
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-arnairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROSZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com

**121**  
**K**  
KALITATEA

Enpresa Registratua N°00/025

disdira

ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

**Matxiategi 8. BERGARA**  
Tel.: 943 76 15 09



Santa Zezilia kontzertu bateko irudia, Gonzalez Chirlaqueren gidaritzapean. GOIENA

# Santa Zezilia kontzertua egingo du gaur Orkestrak

Mariaren Lagundiko elizan egingo du Bergarako Orkestra Sinfonikoak Santa Zezilia kontzertua gaur, hilak 15, 20:00etan hasita. Enrike Txurrukak lehen aldiz zuzenduko du Orkestra Sinfonikoa eta hamabi musikari gaztek ere egingo dute debuta

**Jone Olabarrria** BERGARA

Azaroaren 22an ospatzen da musikaren omenezko Santa Zezilia eguna, eta urtero egin ohi duten modura egunaren bueltan, ekitaldi "ugari" antolatutuzte aurten ere. Hain zuzen, "ekintza guztiak aste berean pilatu ez daitezten" Orkestrak bere kontzertua aste-bete aurreratu nahi izan duela adierazi du Enrike Txurruka zuzendariak. Hala, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 15, Mariaren Lagundiko elizan. Ekitaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera doan izango du.

**Orkestrarekin lehenengoz**

Hain zuzen, Alfredo Gonzalez Chirlaquek erretiroa hartu ostean, lehen aldia izango du Txurrukak Bergarako Orkestra Sinfonikoa zuzentzen, eta hitzordua iristeko "gogotsu" agertu da: "Orkestrarekin probatze-ko gogoia dut; egia esanda, ez nago oso urduri. Entseguak ondo

joan dira eta uste dut ondo joango dela".

**"Aurpegi berriak" gehituz**

Musika eskolako hamabi gaztek ere debuta egingo dute Orkestraren kontzertuan: Maitane Suinaga, Eider Elorza, Ainhoa Gisasola, Leire Gonzalez, Miren Ruiz de Eginola eta Kattalin Otxoa biolinarekin arituko dira, Xabier Igarza eta Enara Mujika biolarekin; Uxue Garitano txeloarekin; Jon Agiriano eta Jokin Azkargorta tronpetarekin; eta Saioa Leturia flautinarekin.

Hain zuzen, "aurpegi berrien ilusioa" azpimarratu du Txurrukak: "Jende berria pozik ikusten dut eta beteranoak ere ilusioz ikusten ditut, jende berria

**KONTZERTUAK BI ZATI  
IZANGO DITU; LEHEN  
ZATIAN, KIDE BATZUEK  
FOLK KANTUAK JOKO  
DITUZTE**

sartzen doala ikusita". Gazteak musika eskolako "harrobitik" datozela gogorarazi du Txurrukak, eta bertatik gainerako taldeak elikatzeke egiten den lana azpimarratu nahi izan du.

**Folk doinuak**

Kontzertua bi zatitan bereiziko dutela azaldu du Txurrukak: "Lehenik, Orkestrako kide Jon Prietok, Miriam Moñuxek, Nagore Sanzek, Eider Elorzak, Jokin Azkargortak eta Amaia Aranzabalek osatutako taldeak folk kantuak eskainiko ditu". Hain zuzen, Sver taldearen *Akhar* kantua, Galen Fraser-en *La luna sobre crisol*, Atlantic Folk trio taldearen *Never tell me odds* eta Sver taldearen *Love boat* piezak joko dituzte.

Ondoren, Orkestra Sinfoniko osoa arituko da, eta, kasu honetan, Jesus Guridiren *Mirentxu*, Gustav Holst-en *Jig*, Astor Piazzolaren *Oblivion* eta Txurrukak berak moldatutako Itoiz-en bost doinu ere joko dituzte.

## Dantza Askatu Txapelketan hamasei bikote lehiatuko dira

Domekan hartuko du Seminarixoak Euskal herriko bikote gazteen txapelketa, eguerdiko hamabietan hasita

**J.O. BERGARA**

Euskal Herriko bikote gazteen 42. Dantza Askatu Txapelketa Domekan iritsiko da Seminari-xora, eguerdiko hamabietan. Txapelketa antolatzen duen Bergarako musika eskolak jakinarazi duenez, hamasei bikote lehiatuko dira Bergaran.

**Debagoienarrak gabe**

"Hamalau bikote gipuzkoarrak diren arren, Arabako bikote batek ere parte hartuko du, baita Bizkaia-Gipuzkoako beste batek. Debagoieneko bikoterik, baina, ez da egongo txapelketan", adierazi dute musika eskolatik.

Domekako hitzorduan parte hartzen duten 16 urtetik beherako bikoteek fandangoa txistularien laguntzaz eta arin-arina trikitilarien laguntzaz dantzatu dute. Epaimahaia Gipuzkoako Dantzari Biltzarrak



lazio txapelketako irudiak. GOIENA

izendatutako lau kidek osatuko dute eta lehen bost postuetan sailkatuek sariak eskuratuko dituzte. Horretaz gain, garaikur bereziak ere izango dira: jantzi egokienarentzat eta 12 urte artekoen artean hobeto sailkatutako bikotearentzat ere.

## 'Erradikalak ginen' antzezlan Bergarara iritsiko da zapatuan

**Goiena komunitatea**

Jardun / BERGARA

Jardun euskara elkartetik *Erradikalak ginen, gara eta izango gara* antzezlan antolatu dugu biharko, hilak 16, arratsaldeko 18:00etan. Seminarixoak hartuko du antzezlan eta sarrerak 4 euroko prezioa izango du.

Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal antzerkilari

eta ipuin kontalariak *Neska gazte promesa* etiketaz, zahar-tzeaz, gorputzaren aldaketez, sexualitateaz, merkatu patriarkalaz, interseksionalitateaz, beldurraz, biolentziaz eta zeharkatzen gaituzten beste hainbat gaiez kantatu eta kontatu nahi dute. "Erradikalak zarete" esaten diete eta haiek "nahi eta behar baino gutxiago" erantzuten dute.

Bi emakume hauen elkartzetik sortua, maletak kontraesanez beteta dakartza, bertso eta bakkarriketa formatuan.

## Sara Zozaya eta Raitx musikari gazteak Seminarixoa gaur

Raitx eta Sara Zozaya musikariek kontzertua egingo dute gaur Seminarixoa, 21:00etan. Ema-naldia Katapulta Tour Gipuzkoa musikako eta formatu txikiko arte eszenikoetako zirkuituaren barruan dago eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak eta Kutxa Kultur-ek bultzatzen dute.

Raitx 2017an hasi zen gitarrarekin, eta une anarkiko pertsonaletan inprobisaturiko olerkiz beteriko koaderno batekin arituko da taula ganean. Koban taldearekin ere dihardu, baina proiektu pertsonal hau handitu egin berri du batera, baxu, gitarra eta zenbait ahotsekin.

Sara Zozaya donostiarrak, Nerabe taldeko abeslaria izateaz gain, bakarkako bideari ere ekin dio gitarra eta teklatuarekin, eta kontzertu ugari egiten dabil; kritika oso onak jaso ditu.

ASTE HONETAN

# LARA IZAGIRRE

## GURUTZ AGINAGALDE

## JON ZELESTINO



Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.

**DOAN**

**ttap**

Irakurri, ukitu,  
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:  
[ttap.eus](http://ttap.eus)



**DESKARGATU**  
Play Store-n

**DESKARGATU**  
APP Store-n



Martin-Tena familia, argazki zaharrak esku artean dituztela, etxeko sukaldean. MAIDER ARREGI

# Etorkizun bila, Alemaniara

Extremaduratik Gipuzkoara eta Gipuzkoatik Alemaniara; aukera bila migratu duen familia antzuolarraren istorioa esfortuz eta emozioz beterik dago. Juan Tenak eta Maria Antonia Martinek etxeko ateak eta bihotzak ireki dizkiote GOIENAr

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Esfortzuaren eta lanaren ondorioz bizitako migrazio istorio hunkigarria dute Juan Tenak eta Maria Antonia Martinek. Biak, Badajozeko Quitana de la Serena herrikoak. Sasoi hartan, Extremaduran industria ez zegoen horren aurreratua eta aukera berrien bila Juan Tenak Tolosaldera joateko aukera aprobetxatu zuen: "Lehengusu batek animatuta etorri nintzen Ibarrara 18 urterekin. Orduan lan asko zegoen Euskal Herrian eta aukera gehiagoren bila etorri nintzen. Gainera, Ibarrako paper fabrika nire osabak eta lehengusuak lan egiten zuten, familiaren babesarekin baneukan. Nik Tolosan egiten nuen lan".

Eta Tolosako Udalaren eskutik Alemaniako Paderborn herrian lan egitera joateko aukera sortu zitzaion. "Nire lehengusua eta

zenbait herrikide Alemanian zeuden lanean. Kontratuaz lan egiteko eta diru gehiago eskuratzeko aukera nuela ikusarazi zidaten. Extremaduran, aldiz, lan asko egiten zen, baina baldintzak eta soldatak oso kaxkarrak ziren".

Hunkituta azaldu du Maria Antonia Martin emazteak Alemaniara joateko egin zuen hautuaren arrazoiak: "Granitoaren edo nekazaritzaren esparruak besterik ez geneukan lan egiteko Extremaduran. Eta emakumezkoendako ezertxo ere ez, jakina. Etxean haurrak zaintzen geratzea, besterik ez. Aitonamonekin bizi ginen guztiok. Ni 7 urterekin hasi nintzen lanean, eta txurroak saltzera joaten nintzen goizean. Ondoren, haurrak zaintzen jarduten nuen. Lan egiteko, eskola utzi egin behar izan nuen, tamalez".

## Paderbon, aukeren herria

Senarrak hiru urte zeramatzanean Alemaniako Paderbon lantegian, Martinek argi zuen bere albara joan gura zuela: "26 urterekin eta ezkondu berri, zer egingo nuen, bada? Extremaduran geratu besterik ez nuen. Senarrarekin egoteko, familia bat sortzeko eta etxe bat erosteko asmoz animatu nintzen Alemaniara neu ere".

Jaioteritik irten zen lehen aldia izan zen. "Ez geneukan ezeren beldurrik. Beno, senarra han nuen -hiru urte zeramatzan Alemanian orduan- eta nolabait

**"40 URTE BAINO  
GEHIAGOREN OSTEAN,  
HARREMAN ESTUA  
DUGU BIZILAGUN  
GENITUENEKIN"**



Alemaniako Paderborn herriko lagun taldea goateke batean. DIEGO TENA



Urriari Paderborn-era egindako bidaiako erretratua. DIEGO TENA

## 40 urteren ostean, bisitan

Betidanik izan dute senar-emazteek berriro lan eta bizitoki izan zuten Paderborn-era itzultzeko nahia. Aurtun, arantzaxoa kendu dute eta Diego semearekin joan dira. Bizitako oroitzapenak bor-bor, hunkituta itzuli dira berriro Antzuolara.

babestua nengoen. Paperak eskuratzeko, ordea, baldintza bakarra jarri zidan lantegiak: lehen sei hilabeteak lanik egin gabe egotea. Baina aspertu egiten nintzen eta lagun baten emaztearekin bulegoak edo antzokiak garbitzera joaten nintzen".

## Elkarbizitza, Alemanian

Galiziako bikote batekin etxea konpartitu zuten. "Oso harreman estua egin genuen. Lana batera egiten genuen eta leku guztietara elkarrekin joaten ginen, baita erosketak egitera ere. Bizikidetzara oso ona izan genuen eta elkarrekin egon ginen lau urteetan oso ondo moldatu ginen. 40 urte baino gehiagoren ostean harremana mantentzen dugu eta elkarren berri dugu, pentsa". Esperientzia aparta izan zela diote senar-emazteek, eta komunitate propioa ere osatu zutela:

"Galziarrak, madrildarrak, murtziarrak... oso ondo moldatzen ginen. Alemanaren beharrik ez geneukan eta une jakinetan itzultzailea jartzen ziguten. Hango enpresariak gu langile finenak ginela zioten, gainera".

## Herri mina

Familiaren buruan, baina, Euskal Herrira bueltatzeko nahia beti egon da. "Argi geneukan Extremadurara ez ginela bueltatuko. Han nekazaritza besterik ez geneukan. Osaba Antzuolan izanik, bertan etxea erosi eta bizitzen geratzea erabaki genuen", dio Martinek.

Baina bada pasarte gogor bat Maria Antonia Martinek barruan gordeta daramana. "Haurdun geratu nintzen eta erditzera Extremadurara joan nintzen. Umeak 40 egun zituela, ordea, Alemaniara bueltatu nintzen lanera.



1972an eta 2019an ateratako argazkia zuhaitz berari helduta. DIEGO TENA FAMILIA



## Familia eta lagunak, helduleku

Martin eta Tena senar-emazteek harreman estua egin zuten Galiziako bikotearekin –argazkian lehenak ezkerretik hasita–. Erdian Tenaren lehengusua dago. Berak animatuta joan ziren Alemaniara lanera, etorkizun hobea baten bila.

13 hilabetez egon nintzen semea ikusi gabe; oso gogorra izan zen. Semea nire amak, amonak eta ahizpak zaindu zuten. Baina erosi berri genuen pisua ordaintzen amaitzeko lanera bueltatu beharra nuen", hunkituta kontatu du Martinek.

Antzuolan izan dute, aldiz, aukera berri bat. Tenak orduko Ariel enpresan lan egin zuen; Martinek, berriz, zaintza eta garbitasuna lanak egiten zituen. Babesa erakutsi dien komunitatea aurkitu dutela diote: "Antzuola ez dut ezergatik aldatzen. Hiru herrialdetan bizi izan gara, bakoitza bere kultura eta ohiturekin. Guztietara egokitu gara eta ez dugu inolako arazorik izan. Aitzitik, berriro egingo genuke guztia; beno, semea 13 hilabetez uztea izan ezik. Semeak ere antzuolarrak dira eta D erduan matrikulatu genituen. Oso

maitatuak sentitzen gara Antzuolan eta bihotzez eskertu gura diet guranako izan duten prestutasuna", azpimarratu du Maria Antonia Martinek.

### Alemaniarra 43 urteren bueltan

Famiak 43 urteren ostean kendu du arantzatxoa eta bizitoki izan zuten herrira bueltatu dira. "Istoria asko entzun ditugu eta Paderborn-era bidaia oparitu diegu gurasoei. Beti gura izan dute berriro itzuli. Egia esan, bidaia zoragarria izan da eta bizitako oroitzapen asko ekarri dituzte bueltan", dio Diego Tena semeak. "Kaleak, eliza, lantegia, bizi ginen etxea... berriro ikustea hunkigarria izan da. Lantegira ere sartu ginen eta harrekoari nominak erakutsi nizekion. Harrituta geratu zen langilea gure istorioarekin", azaldu du Martinek.

# Errekalden abiatu du gazte txokoak ikasturtea

Herri Eskolako obrak direla-eta, gazte txokoak Errekalde auzoko lokalean abiatua du ikasturtea. Apirileko lehen asteburura arte iraungo du kurtsoak. Baina, oraindik, hilaren 24ra arte, izena emateko epea zabalik dagoela aurreratu du Idolazek

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Ikasturtea abiatu du Antzuola-ko gazte txokoak. Hala ere, oraindik izena emateko aukera dute herriko neska-mutikoen, azaroaren 24ra bitartean. Apirileko lehen asteburura arte iraungo du ikasturtea eta, iaz ez bezala, Errekalde auzoko lokalean egingo dituzte ekintzak aurtien –Herri Eskolako obren ondorioz hartutako behin-behinekoro erabakia da–.

"Iaz, 12 eta 14 urte arteko 89 gazte parte hartu zuten eta aurtien, oraingo, 56k eman dute izena. Oraindik aukera badute; beraz, animatu daitezela. Esan behar da lokala ere asko gustatu zaiela, askotariko guneak baitaude", azaldu du Idolaz elkarte-ko koordinatzaile berriak, Zumaia Elkorok.

### Gazteen parte hartzea

Azken urtetan egin duten moduan, denen artean erabakiko dituzte gazte txokoan egingo dituzten ekintzak. Hala ere, Elkorok adierazi du dagoeneko adostasunez zenbait jardura erabakita dituztela: "Feminismoaren gaia lantzeko tailerra egingo dugu, hainbat adikzioaren gaineko solasaldiak izango ditugu eta sexualitateaz ere jardungo dugu. Asko eskatzen dute



Aurreko ikasturtean parte hartu zuten gaztetxoak. IDOLAZ AISIALDI ELKARTEA

aipatutako gai horiek jorratzea". Tailerretara eta hitzaldietara adituak ekarriko dituztela azaldu du Elkoroko koordinatzaileak.

### Azaroaren 25a, ate joka

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Eguna datorrela eta –azaroak 25–, indarkeria matxista izango da landuko duten gaia azaroaren 23ko eta 24ko asteburuan. "Gazte txokoko hezitzaile batek indarkeria matxistaren inguruko unibertsitate-lana egina dauka. Hori horrela, berak gidatuko ditu saioak,

eta gure asmoa da bideoklipetan jasotzen diren jarrera matxistak lantzea".

### Bizilagunak, kexaka

Hasiera, baina, katramilatsua izan dutela azaldu du Zumaia Elkorok. "Gazteei arauak argi utzi dizkiegun arren, hasiera zaila izan dugu, hainbat bizilagun zaratagatik kexatu baita. Neurriak hartuko ditugu berriro errepikatu ez dadin eta gazteekin berriro elkartzeko gara egoeraz jabetu daitezene eta arazoak ohartarazteko".

## OHARRAK

### Gaztaina erre jana

Urtero legez, Udalak antolatuta gaztaina erre jana egingo da domekan, azaroaren 17an, Herriko Plazan, 19:00etan hasita.

### Hika lantzeko saioa

Emakumeengana zuzentzeko hika nola erabili ikasteko saioa egingo da bihar, zapatua. 11:00etatik 13:00etara bitartean izango da, Olarango areto nagusian.

### Presoek egindako lanen erakusketa

Azaroaren 23tik abenduaren 1era bitartean, egunero, hainbat euskal preso politikok egindako lanak izango dira ikusgai Olaranen, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

## EH Bilduk Espainiako hauteskundeetan balorazio ona egin du

EH Bilduk eskerrak eman dizkie herritarrei: "Eskerrak eman nahi dizkiegu domekako hauteskundeetan ezkerreko independentismoa indartzeko hautua egin zuten guztiei. Herriko eta Hego Euskal Herriko emaitzen balorazio positiboa egiten dugu. Justizia sozialean oinarritutako Euskal Estatua sortzeko gure bidean berresten gara".

# Lehiaketa izan barik, pintxo aukera domekan

Bolatokiko, Haizeako, Rincon de Lolako eta Maialdeko sukaldeetan gogotik egingo dute lan hurrengo bi domeketan; izan ere, pintxo domekak datoz. Hitzorduak ez du aurtan lehiaketa formaturik izango eta pintxoek 1,30 euroko prezioa izango dute

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Herriko lau tabernak eta Elgetako Udalak bultzatuta datoz, aurtan ere, azaroko pintxo domekak. Urteroko hitzordua da dagoeneko, eta hamabigarren aldiz egingo da aurtan. Bi domeka izango dira; hilaren 17a eta 24a. Eta helburua da urte sasoi honetako domeka eguerdiei pizgarri berezia ematea.

Kultura eta Euskara zinegotzi Ane Bilbaok argi dauka jendeak oso ondo erantzuten duela pintxo domeken eskaintzaren aurrean. "Urtero egiten da, eta egia da jendea asko interesatu izan dela beti. Polita da, bizitasuna ematen diolako herriari".



Orain dela hiru urteko pintxo domeka bateko pintxoak gertu, Haizea tabernan. L.Z.L.

**Aurtan, lehiaketarik ez**

Aldaketa nagusi batekin datoz, aurtan, pintxo domekak; izan ere, oraingo honetan, tabernariak ez dituzte pintxoak lehiaketa baterako prestatuko. "Hainbat aldaketa egon dira hamabi urteotan; izan dira aste bukaera

gutxiago edo gehiago, bi pintxo edo bakarra tabernako... Bada, aurtan tabernariak elkartzerakoan erabakia izan zen lehiaketa formatua aldatzea. Lau partaide izanik eta pintxo bakarra tabernako, erabaki zuten

eskas izango zela, akaso, lehiaketa bat egiteko", azaldu du Bilbaok. "Pintxo bereziak ipiniko dituzte, prezioa izango da 1,30 euro, eta mantenduko dena da pintxo osagaiak asmatzeko lehiaketa. Lau tabernariak zeu-

den ados lehiaketa hori mantentzearekin. Joango gara ikusten formatu berriarekin kontuak nola eboluzionatzen duen", gaineratu du udal arduradunak.

Taberna bakoitzak, beraz, pintxo bat eskainiko du. Osagaiak asmatzen dituzten bezeroen artean botila bat txakolin eta botila bat ardo ondu zozketatuko ditu bakoitzak. Lau tabernetako asmatzaile guztien artean, berriz, Gabonetako saski bat zozketatuko dute ostalariek. Pintxoak 12:00etatik 14:30era egongo dira salgai, bi domeketan.

**Bestelako ikuskizunak**

Hurrengo bi domeketako eguerdiko txikiteoa girotzeko, berriz, bertsolariak eta magoa ekarriko ditu Udalak Elgetara.

Domeka honetan Ane Zuazubiskar eta Oihana Arana bertsolariak arituko dira bertsotan, tabernaz taberna. 12:00etan emango diote hasiera bertso-poteoari. Hurrengo domekan, berriz, Kidam magoa ibiliko da tabernaz taberna magia triki-mailuak egiten. Aurretik ere ezaguna da Kidam mago gasteiztarra Elgetan.

Argazki lehiaketak ere ez du hutsik egingo. Azaroaren 24an jokatuko da, 12:00etan. Lau gai jasota beste hainbeste argazki aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek 16:00ak aurretik. Saria izango da Elgetako taberna batean erabiltzeko 50 euroko bonua.

## Pintxoekin, ikuskizunak

**Azaroak 17**

- **12:30-14:30** Ane Zuazubiskar eta Oihana Arana bertsolariak, tabernaz taberna.

**Azaroak 24**

- **12:00** Argazki lehiaketa.
- **13:00-14:30** Kidam magoa tabernaz taberna.

## Ikasleen joko proposamena

Seigarren mailako ikasleek, berriz, ikasbidaiarako dirua ateratzeko joko berri bat proposatuko dute domekan. Sariak dira Mausitxa gazta bat eta bi botila ardo. Urdaibai Bird Center eta Leintz Gatzaga museoetarako bi sarrera ere zozketatuko dituzte.

## PINTXOEN OSAGIAK ASMATZEKO LEHIAKETA EGINGO DA ETA BOST SARI EGONGO DIRA JOKOAN

## Ikasteko, talde lanak prestatzeko eta batzarrak egiteko gela, prest

Kultura etxeko bigarren solairuan dago, ordutegi librea du eta zehaztuta daude erabilera egokirako arauak

**L.Z.L.** ELGETA

Erabilera askotariko gelak zortzi mahaiko bikoitz, entxufeak, wifia eta arbel bat ditu. Horrez gain, KZguneko bi ordenagailu ere badaude. "Aurreko agintalditik zetorren ikasketa gela bat zabalteko egitasmoa", adierazi du Kultura eta Euskara zinegotzi Ane Bilbaok. "Herritarrengandik jasotako eskaera izan zen. Liburutegia arratsaldean egoten da zabalik, eta ikasketa gela honek ordutegi librea izango du. Hala, erabiltzaileen beharretara egokitzeko aukera emango du".



Erabilera anitzeko gela. L.Z.L.

**Erabilera arauak, zehaztuta**

Ordutegi libreako eta doakoa izango da ikasketa gela. Arauek zehazten dute, besteak beste, 16 urtetik gorako erabiltzaileendako espazioa izango dela eta erreserba egiteko aukera egongo dela, betiere, talde-lanak egiteko zein batzarrak edo formakuntza saioak antolatuzko. Eskaera orria bete eta udaletxean edo liburutegian aurkeztu behar dute interesatuek. Mahaiak elkartzeko dago, eta mahaiak kontuan izan gabe hitzaldiak ere egin daitezke. Ikasteko edo bakarkako lanak egiteko ere erabilgarri egongo da gela. Betiere, aurrez aipaturiko kasu horietako baterako erreserbarik ez badago. Gelan ezin da ez erre, ez jan, eta ez edan. Mugikorrarekin hitz egiteko kanpora irten behar da.

## Elgetako Debagoiena Kirol Saria 2019 erabakitzeke unea da

Aurreko urtean, Iratxe Alonsok jaso zuen Elgetako Debagoiena Kirol Saria. Badator, berriz ere, sariketa eta Udalak herritarren iritzia jaso gura du. Hala, postontzia ipini du udaletxean eta elgetarren proposamenak jasotzeko erantzun orriak banatu ditu etxez etxe. Galdera argia da: "Nor uste duzu izan dela Elgetan Debagoieneko Kirol Saria 2019 irabaztea merezi duen herritarra edo taldea?". Hain zuzen, azaroaren 29ra arte dago erantzunak jasotzeko.

Debagoieneko Kirol Sariak urtean zehar kirol arloan esanguratsuak izan diren norbanakoak edo taldeak saritzea dute helburu.

## Azaroaren 25a aldarrikatzeko egitaraua gertu dago

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko beharra dago oraindik ere. 2019an lau emakume hil dituzte Euskal Herrian indarkeria matxistaren ondorioz: bat Nafarroan eta hiru Lapurdi. Hilketak horiek gogora ekartzeko eta indarkeria matxista arbuizatzeko bi elkarretaratze egingo dira Elgetan azaroaren 25ean, bata eguerdian eta bestea 19:00etan. Bezperan, azaroak 24, Uxue Alberdi eta Miren Amuriza bertsolariak izango dira herrian. Gogoetarako aukera emango duen bertso saioa egingo dute, 12:00etan, plazan. Eguraldi txarra bada, udaletxeko areto nagusian izango da saioa.



# Gaztaroko adikzioak identifikatzeko gakoak

Nerabezaroan gerta daitezkeen askotariko mendekotasunak izango dira aztergai, egunotan, Elgetan. Domekan, kasu erreal bat ezagutzeko aukera izango da gaztelekuan, eta astelehenean Emoki elkarteko aditu bat izango da udaletxean

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Julen Sanchez gazte donostiarren bisita jasoko dute domekan, 18:00etan, gaztelekuan. Ez ditu datu eta teoria pila emango. "Kasu erreal bat kontatuko dut; nirea. Jokoarekiko adikzioa izan dut. 18 bat urterekin sartu nintzen mundu horretan, eta gaur egun terapia bat bukatzen ari naiz Gizakia Helburu-Proyecto Hombre elkartean".


Neska-mutikoendako zein gurasoendako hitz egingo du, eta ematen duen lehenengo hitzaldia izango da. "Mendekotasun batek pertsona bat nora eramanez azaldu nahi dut. Kasu erreal eta pertsonala izanik ondo ulertuko dela uste dut".

Askotariko adikzio arriskuak daude: jokoak, bideo jokoak, drogak... Galdera da zergatik jotzen duen hainbatek horrelakoetara. "Kasu gehienetan, askatasun edo bake une baten bila jotzen da adikzioetara, baina bizitzako beste arazo batzuetatik ihes egiteko modu bat besterik ez da. Mendekotasun bat garatzen duzu, baina zu beste arazo batengatik zaude gaizki, eta kasu oso gogorak ikusten dira. Nik ez dut lana galdu, ez dut diru aldetik sekulako sarraskirik egin, baina arazo baten aurrean jokoak bilatu nuen irteera gisa, eta arazoa hori da".

**Adikzioetan jaustea, oso erraza**

Gaur egun oso erraza da edozein nerabe adikzio batean jaustea. Ez du zertan joko-areto batera sartu jokoan hasteko. "Mugikor bat eta Internet konexioa nahikoak dira edozein webgunetan sartzeko, eta hori da kezka-garriena", adierazten du Sanchezek.

Poker eta kasino moduko joko birtualetan garatu zuen berak jokoarekiko mendekotasuna. Uste du gurasoek oso adi egon behar dutela horrelako arriskuen aurrean. "Adi ibili behar da nerabe bat egunerokotasunare-



Xbox bateko urrutiko agintea eskuetan. HARDIK SHARMA

## DOMEKAKO GAZTELEKUKO HITZALDIA GAZTEEI ZEIN GURASOEI ZUZENDUA DA

kin lotutako galderei ihes egiten hasten bada edo lagunekin egon beharrean etxean ematen badi-tu ordu asko. Gaur egun, bestalde, badaude guraso kontrolerako hainbat aplikazio berri. Garrantzitsua da adi egotea".

Sanchezen esanetan lehenengo pausoa da arazo bat dagoela konturatzea, eta hurrengo aztertzea zergatik izan daitekeen eta nola bidera daitekeen. Espezializatutako psikologoak daude eta baita ere adikzioak lantzen esperientzia duten elkarte asko. "Niretzat Gizakia Helburu-Proyecto Hombre elkarte oso lagungarria izan da. Talde dinamikak egiten dituzte, eta nire kasuan taldea laguntza handikoa izan da arazoa identifikatzeko, eta aurrera egiteko gakoak topatzeko".

## Errealitate birtuala eta nerabezaroa

Teknologia berriek baliabide eta aukera berri ugari ipini dituzte denon eskura, eta erabiltzaileak adin txikikoak badira komeni da tentuz jokatzeko. Teknologia berriei ematen dieten erabilera da baloratu beharrekoa. Domekan gaztelekuan egitekoa den hitzaldian, jokoarekiko adikzio kasu bat ipiniko da mahai gainean. Astelehenean, berriz, gai horiek lantzen dituen Emoki elkarteko aditu batek egingo du hitzaldia. Gurasoei zuzendua izango da, 18:00etan, udaletxeko areto nagusian. Orokorrean, errealitate birtuala izango du hizpide adituak. Gero eta gazteago hasten dira umeak Internet, sare sozialak eta bestelako aplikazio berriak erabiltzen, eta baliabide horiek era kritikoa baloratzen gaitasunik gabe kontsumitzen eta barneratzen dituzte.



Zorua berritzeko lanak Espaloia kafe antzokian. ELGETAKO UDALA

## Tratamendu berezia eman diote Espaloia kafe antzokiko zoruari

Asteon amaitu dituzte 21.000 euroko aurrekontua izan duten lanak, eta aretoa erabilgarri dago atzera ere

**L.Z.L.** ELGETA

*Superfloor* izeneko tratamendua eman diote Espaloia kafe antzokiko beheko zoruari. Eguaztenean amaitu zituzten lanak, eta, pare bat eguneko epea pasa ostean, erabilgarri dago berriz ere aretoa. Iraitz Lazkano alkateak azaldu du lurreko pintura beltza altxatu, leundu, eta akabera berezia eman diotela. "*Superfloor* tratamendua eman diogu. Oso oso erresistentea da. Gainera, zikingunerik gelditzen ez dena eta garbitzeko erraza izatea espero dugu", esan du. Agertokian ere egin dituzte lanak. "Hondoratutako guneak zeuden. Horiek gogortu eta margotu egin dute agertokia ere".

**Bolatokiko parkean ere lanak**

Kaleko margotze-lanak egiterakoan, elbarriandako aparkaleku bat ipini zuen Udalak bolatokirako sarreran. "Irisgarria da,

orain, kirolgunea", esan du Lazkano. "Hala, ikusi genuen jolastokiak ere ezaugarri bera behar zuela". Malgukidun jolasak aurretik ipinitakoak dira, eta horiekin batera etxolotxo bat, xakean jolasteko mahaia eta lokomotorra bat badaude orain. Gorpil aukierdako irisgarria den estruktura bat ere badago: jeep motako ibilgailu bat, hain zuzen ere. "Falta da kautxuzko lurra botatzea. Ezinbestekoa da euririk ez egitea, eta akaso martxoan egin behar dugu", esan du alkateak. Lurra kolore bakarrekoa izango dela ere gaineratu du. Ura sartzeko da eta zartatu egiten dira zatika egindako kautxuzko lurrak. Halakoak saihesteko hartutako erabakia dela esan du.

Lanak 22.525 euroko aurrekontua dute, BEZa barne. Eusko Jaurlaritzatik 6.065,69 euroko dirulaguntza jasoko du Udalak.

## OHARRAK

### Mahai-futbol txapelketa

Txapelketa gaur, 17:30ean, Ozkarbin. Hiru kategoria. Izen-emateak, unean bertan.

### Mendi irteera, domekan

08:00etan irteera Urkora eta ondoren baba-jana Ozkarbin.

### Podologoaren kontsulta

Erretiratuendako kontsulta hilaren 21ean, eguena. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati).

## PILOTA TXAPELKETA

### AZKEN EMAITZAK

Sergio Bouzas-Jose Mari Zubiaurre / Zigor Martin-Gorka Bolinaga **18-09**  
Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar **10-18**  
Txomin de Vega-Diego Cantabrana / Andoni Elorza-Oskar Sarasua **10-18**

### PARTIDUAK, GAUR, 19:30EAN

Sergio Bouzas-Jose Mari Zubiaurre / Iban Retolaza-Enrike Elkoro  
Iker Valle-Etor Garate / Beñat Arabaolaza-Jon Irazabal  
Eneko Ormaetxea-Alain Valle / Txomin de Vega-Diego Cantabrana



Anton Sierra, Plaxido Ruiz eta Aratz Losada, martitzen goizean Bizipoz tabernan, Movember itsulapiko batekin. TXOMIN MADINA

## Prebentzioaren mezua du berriz Movember-ek

Plaxido Ruizek prostatatiko minbizia izan du eta bizitakoa kontatu du Movember Oñati taldearen babesarekin. Gaitzari aurre hartzeko modurik onena eta bakarra prebentzioa dela esan du. Ikerketarako dirua batzeko itsulapikoak jarri dituzte

### Oihana Elortza OÑATI

Duela urte batzuetatik hona, azaroa Movember ekimenaren hilabetea da; batez ere, barrabiletako eta prostatako minbizien inguruan sentsibilizatzeko eta ikerketarako dirua batzeko hilabetea. Bigarren minbizi hori, prostatakoa, ondo ezagutzen du Plaxido Ruiz oñatiarrak. Duela zazpi urte, erretiroa hartzean, osasun analisi batzuk egin zituen, eta prostataren egoera neurtzen duen adierazlea bereziki kezagarria ez izan arren, proba gehiago egiteko erabakia hartu zuen. Horrela atzeman zioten medikuek minbizia, eta orduan hasi zuen horren kontrako borroka.

### Prebentzioaren garrantzia

Movember Oñati ekimenaren barruan, bere kasua, berari gertatu zitzaionak kontatu gura izan du Ruizek, prebentzioaren mezua zabaltzeko. "Operatu egin ninduten, robotarekin. Dena ondo joan zen, ez nuen radio edo beselako tratamendurik hartu. Dena

ondo joan da harrezkero. Eta orain, nire testimonioa eman gura izan dut, esateko prebentzioa oso garrantzitsua dela. Gaixotasunari aurre hartzeko modurik onena eta bakarra da prebentzioa". Plaxido Ruizek prostataren adierazle bilakaera kontrolatzeko urologoarengana sarritan joateko dei egiten du, minbizia garaiz antzemanaz gero aukera handiak daudelako osatzeko. "Ibilgailuei, esaterako, egiten dizkiegu azterketak, ez dugulako nahi errepede bazterrean gelditzea autoa matxuratu delako. Baina norberaren osasunarekin lotutako azterketak ez ditugu egiten. Kontraesana dirudi, baina horrela gertatzen da, askotan".

**JON, SESIÑENA ETA IGONE ILE APAINDEGIETAN BIBOTEA DOAN KONPONTZEN DUTE**

Plaxido Ruizek ez du arazorik bizi izan duenaz berba egiteko, baina dio gizartean tabua dela gizonezkoiei eragiten dieten prostatako minbizia bezalako gaitzen inguruan berba egitea. "Emakumezkoak gure aurretik dabilta, adibidez, bularreko minbiziari buruz berba egiten eta hori gizarteratzen. Baina gizonezkoiei kosta egiten zaigu. Ez dakit zergatik, baina oraindik tabua da, eta ez da beldurrik izan behar gaitz horri buruz berba egiteko", adierazi du Ruizek.

### Itsulapikoak eta ile apaindegiak

Movember Oñatik, bestalde, azaroaren 30ean egingo du urteroko afaria. 23ra arte eman ahal izango da izena, Ongi tabernan eta Jon ile apaindegian. Bestalde, minbizien ikerketarako dirua batzeko itsulapikoak jarri dituzte Ongi eta Bizipoz tabernetan eta Jon, Sesiñena eta Igone ile apaindegietan. Horrez gain, azaroan zehar doan ari dira bibotea apaintzen.



Onintza Andres eta Anik Zubizarreta, Partaidetzako teknikaria eta zinegotzia. O.E.

## Partaidetzako prozesua lantzen esperientziatik araudira pasaz

Partaidetza prozesua arautuko du Udalak eta zirriborroa herritarrekin kontrastatzeko hiru saio egongo dira

### O.E. OÑATI

"Parte-hartzailea, hurbilekoa, irekia, harremanetan oinarritutakoa izango den gobernantza gura dugu Oñatin. Parte-hartze prozesuak izan ditugu eta esperientzia horretatik abiatuta eredu arautu gura dugu orain", azaldu du Anik Zubizarretak. Araudi propioa izango du Oñatik eta zirriborroan jasota dute.

### Batzar irekiak

Ordenantzen zirriborroaren aurkezpena datozen egunetan egingo dituzten hiru saioetan egingo dute. Saioak irekiak dira,

baina bakoitza herriko sektore bati zuzenduta. Hilaren 19koa, adibidez, elkartetako kideendako izango da. Elkartegintzarekin lotutako gaien lanketa egingo dute. 26koa herritarrekin egindako saioa izango da eta parte hartzeko eskubideen gainean arituko dira. Abenduaren 4a, berriz, eragileekin egingo dute eta parte hartzeko guneen atala landuko dute -kontseiluak, foroak, batzordeak...-. Arautegiaren zirriborroa kontrastatzeko saio guztiak 18:00etan izango dira, osoko bilkuren aretoan, eta Emun-ek dinamizatuko ditu.

## GORA ETA BEHERA



M.E.

## Arropak lurrean eta edozein modutara

"Edukiontzia zuriaren ondoan utzi dituzte arropak, baina ez behar bezala, poltsetan sartuta eta lotuta. Ez da batere jarrera egokia hori egitea". Horixe da herritar baten kexa.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



Atzegiko eta Bizipoz kafetegiko kideak Angelica Galindorekin Oñatin. O.E.

# Urrats bat gehiago egin du Pausu Berriak Oñatin

Atzegi eta Gureak arteko Pausu Berriak egitasmoak adimen urritasuna dutenak lan arruntetan aritzea du helburu. Txantxiku Ikastolan eta MUko Enpresagintza Fakultatean baziren bi, eta Bizipoz kafetegian hasi da beste bat aste honetan

## Oihana Elortza OÑATI

Duela bederatzi urte, Atzegiren 50. urteurrenean, familiekin bildu eta euren kezka eta beharrak zeintzuk ziren galdetuta, lan arruntetan aritzeko aukerak gehitzea izan zen Atzegiko familien erantzun nagusia. "Gure helburuak zehazteko egin genien galdera hori senideei. Eta erantzuna aztertuta sortu zen Pausu Berriak, Atzegiren eta Gureak-en arteko egitasmoa", azaldu du Atzegiko Patricia Ayok.

## Balorazio positiboa

Gipuzkoa mailan egiten dute lan Pausu Berriak programan, eta egun, 152 lagun daude barruan: formakuntzan batzuk, praktiketan beste batzuk eta lanean beste hainbat. "Adimen urritasuna dutenek asko dute emateko baina, batzuetan, ez dute aukerarik izaten, eta gauzak egokituz gero beraiek ere edozer egiteko gai direla erakutsi gura genuen. Euren autonomia maila hobetzeko egiten dute

lan. Orain arteko balorazioa oso positiboa da, gero eta enpresa gehiagotan gaude. Oso garrantzitsua da sentsibilizazioa, jendeak ikusteko besteek bezala direla gai lan egiteko eta euren eskubidea dela hori", dio Ayok.

## Hirugarrena

Oñatin badaude bi herritar Pausu Berriak egitasmoaren baitan lanean dihardutenak: Txantxiku Ikastolan Ainhoa Inda eta MUko fakultatean Kepa Luarizaristi. Aste honetan, Arrasateko Angelica Galindo hasi da Bizipoz kafetegian urtebete iraungo duten praktikak egiten.

Isabel Negreira oñatiarrak aspalditik du harremana Atzegirekin. Elkarteko kide den batek enpresaren batean hasteko gogo duela jakiten duenean saiatzen da berari ondo egokitu ahal zaion tokia topatzen. "Jakin genuen Angelicak taberna edo ostalaritzarekin lotura duen negozio batean lan egin gura zuela. Markel Irizarrekin hitz

egin nuen eta ideia ona iruditu zitzaion. Aurretik formakuntza saio bat jaso du Bizipozen hasi denak, Pausu Berriak-en hasten diren gainerakoek bezala".

Markel Irizarrek ez zuen zantalzarik izan proposamena jaso zuenean. "Bi arrazoik bultzatu naute, batez ere, baiezkoa ematera: bat da Bizipoz moduan negozioaren atzean filosofia bat dagoela, izaera bat, eta uste dut gizartearekin behar bat badugula. Partikularki, bizitza gogorra izan dut hasieran, baina gizartea oso ondo portatu da nirekin eta, nolabait, bueltan zerbait eman gura nuen, eta uste dut hau dela modu bat hori egiteko. Bera hemen gustura eta zoriontsu egotea da gure nahia".

## GIPUZKOAN 152 LAGUN DAUDE PAUSU BERRIAK EGITASMOAREN BARRUAN

ANGELICA GALINDO  
BIZIPOZ KAFETEGIAN

"Oso gogotsu nago hemen praktikak egiteko. Terraza jarri, kanpoko mahaiak garbitu, enkarguak egin eta horrelako zereginak izango ditut. Goizetan egongo naiz. Ez nuen tokia ezagutzen eta lanean hasi baino egun batzuk lehenago etorri eta aurkeztu egin nintzen".

KEPA LUARIZARISTI  
MU-KO FAKULTATEAN

"Duela hiru urte hasi nintzen eta oso gustura nago. Hondakinak birziklatzera eraman, posta banatu, egunkariak ekarri, postetxera eta banketxera joan eta fotokopiagailuetan papera jartzen dut, adibidez. Hemengo jendearekin oso pozik nago, benetan".

AINHOA INDA  
TXANTXIKU IKASTOLAN

"Duela zazpi bat urte hasi nintzen eta oso pozik nago. Egunero etortzen naiz, goizetan, eta umeei mahaia jarri eta ume txikiei jaten ematen diet. Eskuak garbitzen ere laguntzen diet eta, batzuetan, abestu egiten dugu. Kepa bezala, arratsaldeetan Gureak-eko lantegira joaten naiz".

## Biharko bazkariak emango dio hasiera Nagusien Asteari

Nagusien Astea ospatuko dute bihartik aurrera San Martin egoitzan. Senideekin eta lagunekin batera egindako bazkaria izango da asteko lehen ekitaldia. Bihar, zapatua, izango da hori: 12:00etan meza izango dute eta 14:00etan bazkaria. Arratsaldean, DJ Jabi Sound joango da musika jartzera.

Astelehenean egubakoitzera bitartean, berriz, urtero moduan, herriko hainbat talde joango dira San Martin egoitzara emanaldi bat edo beste eskaintzera. Esaterako, astelehenean, Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek kontzertua egingo dute. Martitzenean, bolo txapelketa eta txokolate-jana izango dute. Oñatz dantza taldekoak eguaztenean joango dira dantza saioa egitera. Eguenean, Oñati abesbatzaren emanaldia eta afari-merienda izango dituzte eta egubakoitzean, bingo berezia. Egoiliarrek euren senide eta lagunekin gozatzeko ekitaldiak dira guztiak.

## Autobusa egongo da miko-poteora eta hitzaldira joateko

Miko-poteoa egingo dute bihar Arantzazun, 19:00etan. Perretxiko-pintxoak izango dituzte Arantzazuko Santutegia Hotela, Goiko-Benta, Milikua, Sindika eta Zelai-Zabal jatetxeetan. 18:00etan, hitzaldia egingo du mikologian aditu Raul Frailek Gandiaga topalekuan. Autobusak egongo dira 17:20tik 22:00etara arte, 40 minutuan behin, postetxetik.

## OHARRAK

### Musika eta poesia

Eltzian, Lagun Lekuk antolatuta, Maite Mene abeslariak eta Koldo Pla poetak errezitaldia egingo dute gaur, 19:00etan.

### Odol ateratzea

Azaroko odol ateratzea gaur, egubakoitza, izango da, ohiko orduan, 17:00etatik 19:00etara. MUko Enpresagintza Fakultatean izango da gaur.



Aloña Mendiko igerilari bat Zubikoako igerilekuan egindako proba batean parte hartzen. GOIENA

# Igerilari gutxiago daude aurten igeriketa sailean

Datorren urtean ez da igerilekurik egongo Oñatin eta horrek eragina izan du igerilarien kopuruaren jaitsieran. Ekainean izan ohi den Txantxiku saririk ere ez da jokatu aurtan. Zapatuan, bestalde, benjamin mailakoen lehia egongo da Zubikoan

## Oihana Elortza OÑATI

Abuztuaren 1ean hasi zituzten Zubikoa handitzeko eta berri-tzeko lanak. Kanpoaldeko lane-kin dihardute eta urtarrilean igerileku barrukoekin hasiko dira. Igerileku berriak egin arte ez da eremu bustirik egongo kiroldegian eta horrek eragin zuzena izan du, esaterako, Aloña Mendiko igeriketa sailean. Hau-xe da Xabier Infante *Artza*-k emandako datua: "Egun, 84 igerilari daude taldean, benjamin mailatik hasi eta nagusietara. Normalean, baina, 140 inguru izaten dira sasoi honetan".

## Bergarako igerilekura

Jaitsiera oso esanguratsua dela onartu arren, baikor da *Artza* etorkizunari begira: "Obrak egin bitartean, Bergarako igerilekuan egingo dituzte entrenamenduak hemengo igerilariak, eta normala da horrek jendeak aurten igeriketa uztera bultzatu izana. Baina 2021ean ohiko taldea izango dugu".

Igerileku berriak izan arte, baina, Agosorrinera joango dira denboraldia hasi duten 84 igerilari oñatiarrak. "Txikienak astean birritan joango dira entrenatzera, maila ertaina dutenak astean hirutan eta nagusienak lautan edo bostetan", zehaztu du *Artza*-k. Entrenamenduak hango ordutegira moldatuta izango direla gaineratu du: "Oñatin goizeko seietan entrenatzen ziren asko, baina Bergaran arratsalde edo iluntzeetan dira pres-taketa saio guztiak, eta ordute-gi horietara moldatu behar dugu guk. Oñatitik Bergarara joateko autobus linea zuzenik ez dago eta gurasoekin egingo dituzte bidaiak igerilariak, gurasoak txandakatuz".

**NORMALEAN, 140 IGERILARI INGURU IZATEN DITU ALOÑA MENDI ELKARTEAK; ETA EGUN, 84 DAUDE**

## Txantxiku saririk ez

Igeriketa lehiaketei dagokienez, aurten ez da ekainean jokatu izan den Txantxiku saririk egongo. Bestalde, denboraldian zehar Oñatin egiten diren beste hiru lehiaketak urtea bukatu aurretik egingo dira: lehenengoa urrian izan zen, bigarrena zapatuan da eta hirugarrena abenduaren 14an izango da.

Zapatuko igeriketa lehiaketa benjamin mailakoena izango da. Oñatiko igerilariak batera, Eibarkoak, Azpeitikoak, Azkoitikoak, Bergarakoak eta Legazpikoak lehiatuko dira, besteak beste. Alebin mailakoek, bide batez, Legazpin izango dute proba zapatu arratsaldean.

## Itxita

Zubikoako zapatuko proba 15:30ean hasiko da, betiko orduan. Zapatu arratsaldean igerilekuak itxita egongo dira gainerako herritarrendako. Goizean, baina, zabalik egongo da ohiko ordutegian.



Agirre eta Mendizabal, Kalifornian dagoen granitozko haitezaren aurrean. J.A.

## AEBetan eskalatutako paretan gaineko ikus-entzunezkoa gaur

Jon Agirre eta Iñaki Mendizabal oñatiarrak bertan izango dira, argazki lehiaketako sari banaketaren ostean

## O.E. OÑATI

Jon Agirre eta Iñaki Mendizabal oñatiarrak AEBetan egindako eskaladen gaineko hitzaldia izango da gaur, egubakoitza, iluntzean. Mendi sailak antolatu duen mendu astearen azken ekitaldia izango da.

## 'Kapitaina' paret

Eskalada egiteko bidaia egin zuten iaz, abuztutik azarora, Agirrek eta Mendizabalek. Han grabatutako irudiekin eta ater-ratoko argazkiekin egindako ikus-entzunezkoa da, hain zuzen ere, gaurko ekitaldian aurkeztuko dutena. "Yosemite parkean dagoen *Kapitaina* paret aigotzea zen helburuetako bat. Eta egin genuen, lortu genuen. Bestalde, AEBetako mendiek, paretak, fisura asko dituzte, hemengoek ez bezala. Paret horiek eskalatzeko beste teknika bat behar da. Guk, normalean, beste modu

batean eskalatzen dugu eta han horrela egitea erronka txiki bat zen guretako. Teknika ez ezik, aseguratze modua ere ezberdina da fisurak dituzten paretetan", dio Jon Agirrek.

Iluntzeko ekitaldian hitza hartuko dute Agirrek eta Mendizabalek. Proiektatutako duten ikus-entzunezkoari sarrera txiki bat egingo diote, euren bidaiaren nondik norakoak aipatuz. Amaieran ikus-entzunezkoaren galderak erantzuteko gongo dira, eskaladaz berba egiteko.

## Sari banaketa

Ikus-entzunezkoaren aurretik, 19:00etan, zinema aretoan bertan, mendi sailak antolatutako argazki lehiaketako sari banaketa egingo dute. Lehiaketako bi sailetan emandako sariak banatuko dituzte. Argazki sarituak eta beste hainbat ikusgai daude erakusketa gelan 24ra arte.

## Denboraldiko lehen garaipena lortzen saiatuko da Mekalki

Mekalki-Aloña Mendi saskibaloitaldeak ez du oraindik partidurik irabazi denboraldi honetan eta lehenengoa domekakoa izaten saiatuko da. Laugarren postuak sailkatuta dagoen Unamuno taldearen aurka jokatu du Aitor Ugartek zuzentzen duen taldeak. Partidua Zubikoa kiroldegiko kantxan izango da domekan, 12:00etan.

## Hilaren 23ko spinning saiorako izen ematea zabalik dago

Spinning saioko bi txanda, gutxienez, egingo dituzte azaroaren 23an Zubikoa kiroldegian: 09:00etan eta 10:30ean. Maier Irazabal, Jon Regueiro eta Ander Agiriano izango dira gidariak. Izena ematea hilaren 20ra arte egingo da zabalik eta prezioak zazpi euro artekoak dira, bazkidetzak baldintzatuta. Posiblea da hiru txanda egotea.

# Gizon-abesbatza, Santa Anako agertokira etzi

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Suhar abesbatzak emanaldia eskainiko du domekan, Musikegunak egitasmoaren baitan. Kontzertua Santa Ana antzokian izango da, 19:00etan, eta sarrerak salgai daude sei euro eta erdian, txarteldegi digitalean

## Maialen Regueiro OÑATI

Musikegunak jardunaldien baitan, Esteban Urzelai zuzendari oñatiarraren Suhar abesbatzak ekimenaren hirugarren emanaldia eskainiko du domekan, 19:00etan, Santa Ana antzokian.

## Gizon-abesbatza

Urzelai urtetan aritu izan da Ganbara Abesbatzan, baina hura utzi eta proiektu pertsonala sortzeko gogoa piztu zitzaion: "Euskal Herriak baditu gizon-abesbatza asko, nahiz eta azken urteetan gutxitu egin diren. Hutsune hori betetzeko asmoz sortu genuen Suhar, eta 24 abeslarik osatzen dugu taldea". Ur-

zelaik azaldu duenez, gainera, Suhar abesbatzak maiatzean eman zuen lehen kontzertua, Donostian. Horren ondoren, Azkoitiko Musikaldian izan ziren eta hirugarren hitzordua domekakoa izango da.

## Ganbarako kideak

Suhar abesbatzan diharduten 24 abeslaritatik bi Urzelairekin Ganbaran aritutakoak dira: Gorka Aranburu eta Aitor Biain oñatiarrak, hain zuzen. "Abesbatza osatzerakoan, lagunengana eta musika aldetik maila altua duten horiengana jo nuen. Azken batean, lagun kuadrilla bat osatu dugu". Horrez gain,

gaur egun Ganbarako kide den Aitor Garitano bergararrak ere Suharren dihardu.

## "Programa ederra" domekarako

Amaia Zipitria piano-jotzailearekin, Maite Arruabarrena, mezzosopranoarekin eta Juan Ignacio Emme biolontxelo-jotzailearekin "programa ederra" osatu du Suhar abesbatzak, non maitasuna, gaua eta natura izango diren protagonista.

## Sarrerak salgai

Domekako kontzerturako sarrerak salgai daude, sei euro eta erdian, [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) atarian eta txarteldegi digitalean.

## Pablo Zamoranoren eskutik antzerki ikastaroa bihar

Irazan antzerki taldeak antolatuta, Pablo Zamorano txiletarrak *Arte eszenikoetarako mugimenduen ikerketa eta esplorazioa* izeneko antzerki ikastaroa gidatuko du bihar, zapatua, Eltzian, 10:00etan hasita. Zamorano dantzaria, performerra eta dantza irakaslea da eta biharko ikastaroan, mugimendua sortzen duten faktoreak landuko ditu parte-hartzaileekin: pisua, denbora, energia eta espazioa, besteak beste.

Gauzak horrela, inprobisazio gidatuak erabiliko ditu artista txiletarrak eta arreta handia jarriko du jario konstantean eta bertatik sortzen den dantzan eta mugimenduan. Horrez gain, mugitzeko, dantzatzeko eta komunikatzeko gaitasuna duen gorputz sentikorrena gerturatzeko zentzumenak suspertuko dira. Parte-hartzaile bakoitzak bere gorputz-hizkuntza propioa garatuko du ikastaroan, norbere gorputz bizi eta adierazkorra aurkitzeko.

## Rockabilly, country eta western doinuak etzi gaztelekuan

Gaztelekuak *matinee* saioa hartuko du, beste behin, domekan, 12:30ean hasita. Oraingoan, Sarah Vista londrestarra izango da taula gainean, eta rockabilly, country eta western musika estiloak eskainiko dizkie oñatiarrei. *Killing Fever* du izena Vistaren azken lanak, eta zuzeneko emanaldietan beste artista handi batzuekin inguratzen da.

## Santa Ana antzokiak 'Zaldi urdina' obra hartuko du gaur

Sarrera guztiak agortuta, gaur, egubakoitza, *Zaldi urdina* antzezlanak hartuko du Santa Ana antzokiko agertokia, 22:30ean hasita. Obra honek 80ko hamarkada markatu zuen heroina du ardatz, eta, horrekin batera, gazteria eta rock musika, hiesa eta heriotza, gatazka politikoa eta botereen esku beltza... jorratuko dituzte oholtzan.

## Debagoieneko GREMIOAK

### ARROZTEGIAK

#### AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukakleak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](mailto:blogak.goiena.net/azkarate)

### HONDEAKETAK

#### EXCAVACIONES Y CONTRATAS

##### ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

[e.arrasate@gmail.com](mailto:e.arrasate@gmail.com)

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

#### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

#### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta halzeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

### LOREZAINZA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Iragarkia jami nahil baduzu, deitu 943 25 05 05 zentbakira.



Antolatzaile taldeko Iker Beitia, Untzillan. AITZIBER ARANBURUZABALA

## Untzillako zirkuitua prest, domekako duatloirako

**DUATLOIA** Nafarroako Igantzi herrian abiatu zuten, irailaren 1ean, Euskal Herriko Mendi Duatloien Zirkuitua, eta domekan jokatuko dute azken aurreko proba, Aramaioko Untzilla auzoan. Handik abiatuko da lasterketa, 10:30ean, eta han izango du helmuga

### Oihana Elortza ARAMAIO

Estreinakoz egingo dute duatloia Untzillan. Hangoa da halako lasterketetan lehian aritu ohi den Iker Beitia, eta hari sortu zitzaion zirkuituko aurtengo probetako bat etxean antolatze-ko ideia, eta, besteak beste, Ander Agirre arrasatearraren eta Orixol mendi elkartearen laguntza izan du horretarako. "Ikus-

ten nuen ibilbide egokia egiteko ingurunean bagenuela tokia, horrelako lasterketa bat antolatze-ko gune aproposa zela hau. Hori ikusita, Udalarekin jarri nintzen harremanetan, udal ordezkariari zer iruditzen zaien jakiteko. Hasieratik ikusi zuten ondo ideia, eta horrela hasi ginen antolatzen", azaldu du Beitia. Txapelketaren Arabako

proba bakarra izango da Aramaiokoa.

### Lokatza alde eta lokatza kontra

Untzilla auzotik abiatuko da domekako lasterketa, 10:30ean, eta bertan izango du helmuga ere. Korrika egin beharreko bost kilometroekin hasiko da proba, hamasei kilometro egingo dituzte gero mendiko bizikletan,

eta, bukatzeko, beste kilometro eta erdi lasterka. "Untzillan hasi eta amaituko da, bai. Hasieran, soziedade paretik aterako gara. Plaza txiki bat dago han eta hura izango da abiapuntua; helmuga ere toki bera izango da. Plazatxo horretatik zuzenean abiatuko gara lasterka Murugain aldera. Lehen 500 metroak asfaltoan izango dira, berotzeko egokiak. Baina ibilbidea pistan sartzen denean, aldatu egiten da. Kilometro eta erdiko igoera bat egongo da hasieran, nahiko gogorra izango dena. Behin gora iristen garenean, 500 metroko ibilbide arriskutsua izango dugu, lokatza egongo delako eta kontuz ibili beharreko tokia delako. Baina behin gune hori pasata, pistara sartuko gara berriz, eta bizkor etorriko gara Untzillara".

Bizikleta gainean egiteko zatiari dagokionez, lokatzarekin egiteko moduko ibilbide aproposa dela dio antolatzaileak, behin Asentzio gainera igota gorabehera eta zuhaitz artean sigi-saga batzuk dituen ibilbide polita dela gaineratuta.

### Banaka edo binaka

Lasterketa bakarka zein binaka egin ahal izango da; hau da, bikoteko kide batek korrikako zatiak eginez eta besteak bizikletakoa.

Profil edo maila ezberdineko kirolarientzako proba dela adierazi dute antolatzaileek, eta pozik daudela orain arte jasotako erantzunarekin. Izena eman dutenen artean kirolari ezagunak ere badaudela gaineratu du Beitia; emakumeetan, Maria Gomez Grijalba errioxarra faboritoen artean dagoela dio eta gizonezkoetan lehia handiagoa aurreikusten duela. "Eneko Gurrutxaga eta Eneko Isasi

txapelaren bila dabiltza lehian. Bi lasterketa gelditzen dira txapelketa amaitzeko eta bi horiek ziur etorriko dira Aramaiora. Horiez gain, Jabier Goitia ere etorriko dela konfirmatu dugu. Duatloietan eta triatloietan ibiltzen da hori, eta beti aurrean, beti ondo. Errepidean zein mendian ibiltzen da hori. Uste dut, gizonezkoetan, hiru horien artean egon daitekeela irabazlea". Horixe da Orixoleko kide Iker Beitiaaren apustua.

### Izen ematea, zabalik

Orain arte duatloian parte hartzeko izena eman duten gehienak Debagoienekoak dira. Oñatiko, Antzuolako, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Elgetako, Arrasateko, Leintz Gatzagako eta Bergarako herritarrek daude izena emandakoen zerrendan. Horien artean daude, esaterako, Leintz Gatzagako Beñat eta Ibai Agirreureta anaiak, Eskoriatzako Iker Eskibel edo Arrasateko Ane Beraza. Baina Getariako, Bermeoko eta Gasteizko kirolariak ere etorriko dira, herri batzuk aipatze aldera, domekan Aramaioko proba.

150 parte-hartzaile izango dira, gehienez, eta *www.kirolprobak.eus* atarian eman daiteke izena zapatua gauerdia bitartean. Tokia egonez gero, domekan lasterketa hasi aurretik ere bai. Hamabost euro da lasterketa bakarka egiteko ordaindu beharrekoa eta 25 euro bikoteka parte hartzeko.

## BOST KILOMETRO KORRIKA, HAMASEI BIZIKLETAN ETA BESTE KILOMETRO ETA ERDI LASTERKA

## Azken postua albo batera uzten ahaleginduko da Bergara bihar

**FUTBOLA** Saillkapeneko azkenak dira mahoneroak eta bigarren garaipena lortu gura dute asteburuan

### O.E. BERGARA

Saillkapeneko azken postuan, 18.ean, dago egun Bergara futbol taldea, eta partidua irabazi eta zulo horretatik ateratzea izango da helburua zapatuko, biharko, partiduan. Touring taldearen

aurka jokatu dute, etxean, 15:30ean. Puntu bat gehiago bakarrik du aurkariak eta irabazteko gogoz zelairatuko dira Errenteriako jokalariek ere; horrenbestez, partidua lehiatua izango da.

Maila berean lehiatzen den Aretxabaletak ere bihar jokatu du, baina etxetik kanpora. Elgoibarko Mintxeta futbol zelaian izango du partidua, hango taldearen kontra, 16:30ean. Hamarna puntu dituzte talde biek, nahiz eta UDA postu bat aurretik dagoen saillkapenean.

UDAREN egun eta ordu berean jokatu du Mondrak, erregionaleko ohorezko mailako Debagoieneko beste taldeak: zapatuan, 16:30ean, Mojategin. Irungo taldearen kontra jokatu dute,

eta, irabaziz gero, denboraldi hasiberri honetan etxean irabazten duen lehen partidua izango da. Entrenatzaile berriak gidatuko du partidua, Aiser Olaizolak, eta Fernando Loiola izango du alboan gidaritzan hori egiten.

### Aloña Mendi eta Antzuola

Preferente mailan, berriz, Ikasberri taldea hartuko du Aloña Mendik domekan, Azkoagainen, 16:30ean. Antzuolak Tolosan jokatu du, domekan, 11:30ean.

## FUTBOLA Partidurik galdu barik jarraitzen du Leintz Arizmendik

Denboraldiko partidua guztiak irabazita, lehen postuan dago Leintz Arizmendi futbol taldea. Tolosa hartuko du liderrak zapatuan, 18:00etan, Ibarra futbol zelaian. Bergarako taldeak, berriz, jokatu dituen zortzi partiduetatik bost irabazi ditu eta zazpigarren postuan dago. Bergarak ere zapatuan jokatu du, 17:30ean, Zarautzen.

# Oñatiko Uribarri eta Lete, urteko lasterkari onenak

**MENDI LASTERKETAK** Joan den asteburuan Urduñan jokaturako lasterketarekin amaitu dute 2019ko Euskal Mendi Federazioak antolatzen duen Mendi Lasterketetako Rankinga. Ainara Uribarri eta Xabi Lete oñatiarrak izan dira erregularrenak

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Guztira, hogeita bi lasterketa erabili ditu Euskal Mendizale Federazioak 2019ko rankinga erabakitzeke. Urtarrilaren 19an Markina-Xemeingo -Bizkaia-Kalamuako jaitsiera izan zen txapelketari hasiera eman zion lasterketa. Orduan, Mayi Mujika emakumezkoetan eta Joseba Plaza gizonezkoetan izan ziren azkarrenak. Bederatzi hilabete geroago, joan den asteburuan Urduñan -Bizkaia- jokatu zuten azken lasterketan, berriz, Andrea Garay eta Kepa Vallejo izan ziren txapeldunak.

**Erregularitasuna, sari**

Hala, egutegiko lasterketetan puntu gehien batu dituzten korrikalariak izan dira, senior mailan, Ainara Uribarri eta Xabi Lete. Bi oñatiarrak izan dira erregularrenak urte guztian zehar. Uribarrik, zortzi lasterketa jokatu ditu denera. Bitan, bigarren postuan izan da, eta beste hiru probatan berriz hirugarren sailkatu da. Garaipenik lortu ez duen arren, berak eraman du sailkapen orokorra.

Gizonezkoetan, berriz, Xabi Letek beste zortzi probatan hartu du esku. Hala, lasterketa batean garaile eta beste batean hirugarren amaitzea lortu du aurtengo rankingean. Eta, ranking horretan ere aipatzekoa da Igor Olalde aretxabaletarrak lortutako hirugarren postua.

**Probak lurralde guztietan**

Hogeita bi lasterketa horiek Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan eta Araban jokatu dituzte. Lasterketa gehien egin dituen korrikalaria Asier Muguruza izan da -11 proba egin ditu guztira-. Beste hiru korrikalarik 10 proba jokatu dituzte, tartean, senior emakumeen artean bigarren sailkatu den Elorrioko Garazi Sampedrok. Rankingaren beste datu esanguratsua da 27 korri-



Ainara Uribarri eta Xabi Lete oñatiarrak. EMF



## URIBARRI BOST ALDIZ IGO DA PODIUMERA ETA LETEK GARAIPEN BAT ETA HIRUGARREN POSTU BAT BATU DITU

kalarik sei proba baina gehiagotan parte hartu dutela.

**Hiru diziplinak ere jokoan**

Azkenik, azken urteotan mendi lasterkari osoena nor den erabakitzeke hiru diziplina batu izan dituzte EMFko lagunek: ultra distantziako proba, linea-ko lasterketa eta kilometro bertikaleko proba.

Leitzan jokatu zuten Euskal Herria Mendi Erronka ultra distantziako lasterketan Uxue Fraile eta Ion Azpiroz gailendu ziren; Tolosako T3T lineako lasterketan Hassan Ait Chaou eta Amaia Amantegi izan ziren onenak, eta, Ttuturreko -Intza-lasterketa bertikalean Maite Etxezarreta eta Iñigo Alzola arrasatearra nabarmendu ziren. Alzola Euskal selekzioa ordezkatzeko ibili da, eta Anboton, esaterako, bigarren izan zen

## 2019ko EMFko sailkapen rankinga

**Kadete neskak**

- Irene Iturria
- Amaiur Zuazua
- Eider Irizar

**Kadete mutilak**

- Julen Goenaga
- Jon Cabada
- Jon Razkin

**Junior neskak**

- Nagore Uribarri
- Lide Urrestarazu
- Idoia Martinez

**Junior mutilak**

- Eki Imaz
- Ander Villanueva
- Iñaki Latasa

**Senior neskak**

- Ainara Uribarri
- Garazi Sanpedro
- Montse Morote

**Senior gizonezkoak**

- Xabi Lete
- Jon Vegas
- Igor Olalde



Iturripen jokaturako derbia. GOIENA

## Zubikoako derbia bai ala bai irabaztea dute buruan talde biek

**ESKUBALOIA** Bi puntuak baino gehiago, ondoko herriko taldeari irabazteak ematen duen poztasuna dute jokoan

**O.E. OÑATI**

Derbia jokaturako dute Fagor Industrial-Aloña Mendik eta Ford Mugarri-Arrasatek bihar, zapatua, Oñatiko Zubikoa kiroldegian, 18:15ean. Eta talde biek gura dute partidua irabazi. Ez bakarrik bi puntuengatik, baizik bi taldeen arteko lehia irabazteak eragiten dien gozatuagatik.

**Helburu bakarra dute biek**

Halaxe adierazi dute talde bietako ordezkariak. Oñatiko taldearen entrenatzaile Aitor Gartziaendako, adibidez, irabaztea da aukera bakarra: "Bi puntuak partidua irabaztearen emaitza, ondorioa da, baina derbi bat irabaztea beste gauza bat da. Gozatu hori bestelakoa da eta horren bila aterako gara zapatuko partiduan".

Arrasateko Ford Mugarri taldeko Josu Herrero jokalararen dako ere derbi bat irabaztea ez

da beste edozein partidua irabaztea bezala: "Ez da edozein partidua. Derbia irabazteak beste xarma bat du".

**Aurkari gogorrak**

Elkarren arteko lehia ahaztu barik, biek ikusten dute parean izango duten taldea kontuan hartu beharrekoa dela. "Fagor Industrial talde oso sendoa da. Egia esanda, harrituta nago sailkapenean gu baino beherago eta puntu hain gutxirekin ikusteaz. Maila handiko jokalariek daude talde horretan", dio Herrikerok. Gartzia ere Ford Mugarri tentuz hartu beharreko taldea dela adierazi du: "Derbietarako ez dago estrategiarik, partidua irauten dituen minutu guztiak jokatu behar dira ondo, ez dago erlaxatzerik. Hori izango da helburua bihar, ondo jokatzeko eta partidua polita eskaintzea zaleei".

## ORIENTAZIOA Espainiako Txapelketan lehiatuko dira lau oñatiar

Eneritz eta Malen Osinaga ahizpak, Malen Ugarte eta Idurre Caro gazte oñatiarrak Espainiako orientazio txapelketan lehiatuko dira abenduan. Gipuzkoako orientazio taldekoak dira laurak eta Euskadiko selekzioa ordezkatzeko lehiatuko dira. Cáceres-ko -Extremadura- Ambroz haranean izango da eskolako adinean dauden Espainiako

orientazio txapelketa abenduan 5etik 8ra bitartean. Osinaga ahizpak kadete mailan lehiatuko dira eta infantil mailan Ugarte eta Caro.

Lau neskek Oñatiko orientazio eskolako kide dira. Duela hiru urte sortu zen eskola, eta ia 40 lagun dira egun taldean. Brujula eta mapa baten laguntzarekin, erlojuaren kontra, bi puntuen arteko ibilbidea ahalik eta denbora txikienean egitea da orientazio lasterketa, kontrol puntuetatik pasatuz.

# Gordeta geratu direnak, agerian

Oñatin, Bergaran eta Arrasaten asteroko zineklub saioak eskaintzen dituzte; lanen zuzendariekin eta aktoreekin saioak ere antolatzen dituzte; domekan Aitor Arregirekin Arrasaten eta 'El hoyo'-ko Galder Gaztelurrutia zuzendariarekin abenduan Bergaran

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA  
Debagoieneko ia herri guztietan daude zinema aretoak, baina asteroko maiztasunarekin Arrasaten, Oñatin, Bergaran eta Aretxabaletan bakarrik eskaintzen dituzte filmak. Aste batzuetan emanaldi gutxiago egoten dira; izan ere, areto horietan bestelako ekitaldiak ere egiten dira eta zine emanaldien ordu-tegian eta egutegian eragiten dute.

Asteburueta helduentzako eta haurrentzako programazioa zirkuitu komertzialeko filmekin osatzen dute; horrez gainera, astean behin, helduentzako bestelako filmak eskaintzen dituzte zineklubetan.

## Bergaran elkarlanean hasita

Eguaztenetan 20:00etan izaten da Seminarixoa zinekluba. "Gai edo data zehatzetan oinarrituta multzokatzen dugu hileko eskaintza. Oraingoan, *Emakumea protagonista indarkeria harago* izan da gaia", azaldu du Kultura teknikari Edurne Kortak.

Gaur egun, Udaleko Kultura Sailak du antolaketaren ardura, baina herriko Zinema ON zine-

klub talde berriarekin elkarlanean hasi dira; solasaldi batzuk egin dituzte, eta elkarlana handitzeko asmoa dutela dio Kortak: "Laster, bigarren bilera egingo dugu, eta han zehaztuko dugu 2020ra begira nola antolatu funtzionamendua; gastuak, orain arte moduan, Udalaren kargu izango dira".

Zinema ON taldeak eskertzen du eguazteneko saioak antolatzeko aukera ematea. "Ez dugu finkatuta, baina buruan dugu hilean behin ekintza bat egitea, zinegileekin solasaldiak, zine klasikoari tokia egitea... Filmen zerrenda bat prestatu dugu. Jatorrizko bertsiotan eskaintzen saiatuko gara baina denetariokoak daude", azaldu du Zinema ON taldeko Nekane Muñozek.

## 'El hoyo', Gaztelurrutiarekin

Hainbat euskal filmen solasaldiak egin dituzte Seminarixoa: maiztzean *Soinujolearen semea* eskaini zuten eta Mireia Gabilondo eta Fernando Bernues izan ziren; irailean, *Agur; Etxebeste!* filmeko zuzendariak eta aktoreak izan ziren, eta abenduaren 18an *El hoyo* filma eskainiko dute eta

Galder Gaztelurrutia zuzendaria gonbidatu dute.

## Gaztetxeko areto txikian ere bai

Novedades zinea itxi zutenean herriko zinemazale batzuk gaztetxean film emanaldiak antolatzen hasi zirela kontatu du Dynamo zineklubeko Ugutz Basaurik: "Ez genuen horretarako prestatutako gelarik eta saio bakoitzak sekulako lana zuen: aulkiak, proiektorea... dena muntatu eta desmuntatu beharra zegoen. Halako batean, Novedades aretokoek aulkiak, gortinak eta behar genuena hartzeko esan ziguten, eta, hala, zine aretoa inauguratu genuen, iaz. Kartzela zaharreko ziega bat da, hamazortzi eserleku ditu eta tronua, hau da, beste ziegan moduan, komuna".

Eguaztenetan 21:00etan izaten dira -urtariletik aurrera egunez aldatzeko asmoa badute ere-, eta zortzi lagun inguru elkartzeko dira, normalean. Hilero gai bati buruzko askotariko genero eta garaietakoak eskaintzen dituzte. "Azaroko gaia irratia da, Txapa Irratiaren 30. urteurrenagatik; eta urriari, ibilgailuen bueltakoak ikusi genituen. Gehienetan, gaztelera eta euskaraz; guztiontzako zabalik daude, dohainik da".

## Oñatin urte askotako ibilbidea

Eguenetan 20:00etan izaten dira kultura etxeko zinema aretoan, urritik maiatzera. Herriko eta inguruko zinemazaleek estimuan dute: "Mimoz aukeratutako filmak dituzte".

Ibilbide luzea du. "23 urte darat kultur arduradun, eta ordurako finkatutako zegoen. Astero batez beste 80 lagun joaten dira; egon dira, baina, 120 ikusle ere. Askotariko filmak dira: batetik, autore-zinea deitzen



Zinema ON taldekoak, Udal ordezkariarekin eta Moriarti-ko zinegileekin. M. O.

zaiona; bestetik, herriko eragileekin eta elkarteekin antolatutakoak. Adibidez, asteon, Aloña Mendirekin; era berean, badira beste batzuk, aretoetan denbora gutxi egin dutelako ikusteko zailak izan direnak...

Oñatiko Udalak du programazioaren ardura: "Banatzaile batek egiten dizkigu asteroko proposamenak, baina malgutasuna daukagu bestelakoak proposatzeko. Zineklubeko filmen zerrenda Anton Txintxurretak eta Anton Azpiazuk eta horien gertukoek bideratu izan dute".

## Arrasaten, urtariletik aurrera

Orain dela urte batzuk, herritar talde batek antolatzen zuen zinekluba. Gaur egun ez da halako talderik, baina oraindik ere jarraitzen dute martitzenetan film "bereziak" eskaintzen Amaia antzokian.

Datozen asteetan zarzuelak eta akordeoak izango dira aretoan nagusi; hortaz, urtarrila bitartean ez da zineklubik izango. Asteburuan, *La trinchera infinita* eskainiko dute eta Aitor Arregi zuzendaria izango da domekan 19:30eko saioan".

## Aretxabaletan ere Udalak

Eguenetan da zinekluba Arkupe kultura etxean: Udalak antolatzen ditu, nahiz eta sarritan herriko eragileekin eta elkarteekin elkarlanean jardun.

## Debagoieneko zineklubak

### ARRASATE

- **Amaia antzokian**  
Martitzenetan, 20:30ean.

### BERGARA

- **Seminarixoa**  
Eguaztenetan, 20:00etan.
- **Gaztetxean**  
Eguaztenetan, 21:00etan.

### OÑATI

- **Kultura etxeko zinema aretoa** Eguenetan, 20:00etan.

### ARETXABALETA

- **Arkupe Kultura etxeko zine aretoa** Eguenetan, 19:30ean.



Bergarako kartzela zaharrean dagoen zinema areto txikia. IMANOL SORIANO



# Gipuzkoako bertsolariak, finalerako txartelen bila

Eñaut Martikorena, Agin Laburu, Nerea Elustondo, Unai Mendizabal, Iñaki Apalategi eta Unai Gaztelumendi izango dira lehian, domekan, Uarkape pilotalekuan; pozik daude antolatzaileak bertsolariak emandako mailarekin eta publikoaren harrerarekin

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Aurtengo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak bidearen erdia egin du dagoeneko, eta domekan abiatuko dituzte finalerako saioak Arrasateko Uarkape pilotalekuan, 17:00etan.

Arrasateko saiorako eta datozen asteetan Oiartzunen eta Tolosan jokatu direnetarako eta abenduaren 14an Donostia-ko Illunben izango den finalerako sarrerak eskuragarri daude *Bertsozale.eus* atarian, eta domekan, Uarkapeko leihatilan.

## Txapelketa "emankorra"

Antolatzaile taldekoek sentsazio onak dituzte txapelketak orain arte eman duenarekin; honela dio Iker Iriartek: "Final-zortzi-erenak eta final-laurdenak primeran joan dira; bertsolariak emandako mailak esperotako espektatibak gainditu ditu, entzuleek ere ondo erantzun dute, eta tokian tokiko bertso eskolen, kultura taldeen eta udalen inplikazioa handia izan da; esker-rona besterik ez dugu, beraz. Orain, finalerako eta final-lari ilusioz heltzeko gaude".

Bertsolariak lehenengo saiotik ari dira serio lanean, nahiz eta azken txanpan oraindik ere hortzak gehiago estutu. "Finala gerturatu ahala inbutua estutzen



Oñatiko Santa Ana antzokian abiatu zuten txapelketa. GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

joaten da, galbahea gero eta es-tuagoa da; horrek esan gura du finalerako jokatu dituzten hamazortzi bertsolarietatik edonork lor dezakeela finalerako txartel preziatua".

## Eskarmentudunak eta gazteak

Eñaut Martikorena, Agin Laburu, Nerea Elustondo, Unai Mendizabal, Iñaki Apalategi eta Unai Gaztelumendi lehiatuko dira finalerako lehen txartela eskuratzeko. Iriarteren esanetan, koktel polita da: "Itxura ona dauka Arrasateko saioak: ba-

tetik, Iñaki Apalategi eta Agin Laburu daude, orain dela lau urteko txapelketako finalean kantatu zuten eskarmentudun bi bertsolari; bestetik, Nerea Elustondo legazpiarra ere bada-go, esango nuke kantatu duen txapelketa guztietan finalerakoetara iritsi dela; eta, oholta gainera seikotea borobiltzeko, finalerakoetara lehenengo aldiz heldu diren beste hiru lagun. Nahasketa polita, beraz. Beste bi finalerakoetara begira ere irakurketa antzerakoa egin dezakegu".

## Amodiozko gutunak eta esaldiak jasotzeko proposamen berria

Urtarrilerako bidali behar dira Jardun Euskara Elkarteak urtero antolatzen duen lehiaketan parte hartzeko lanak

### A. Aranburuzabala BERGARA

28. aldia du Amodiozko Gutunen Sariketarako eta laugarren aldiz antolatu dute esaldien arlokoa. Urtarrilaren 6a da eskutitzak bidaltzeko azken eguna, eta urtarrilaren 17a esaldietarako.

Whatsapez edo mezuz bidal daitezke esaldiak, 605 71 24 69 zenbakira, edo postaz, *amodioz-kogutunak@gmail.com*-era; gutunak ere, posta elektronikoz edo elkarteak Errotalde jauregian duen egoitzara eramanda.

### Oinarriak 'Jardun.eus' atarian

2005ean edo lehenago jaiotakoek har dezakete parte aurtengo sariketarako, eta lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute; horrez gain, lanek gutun forma izan behar dute -DIN-A4 orrietan eskuz eta ordenagailuz idatzita aurkez daitezke-.

Bost sari banatuko dituzte, eta, urtero moduan, otsailaren 14an, San Valentín egunean, Irizar jauregian izango da sari banaketa ekitaldia, 19:00etan.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko azaroko sariak!

#### Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

Parte hartzeko azken eguna: azaroaren 22a



#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**ARRIKUTZ**  
antzerkiaz

#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harremundenda.org](http://www.harremundenda.org)  
Lurraldeko Merkataritza Produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileek artean egingo da zozketa.

Indarrendagun LEP 15/1999 legearen arabera, gure zerbitzuetan zure datu pertsonalari buruzko informazioa jakinarazteko, zure datu pertsonalaren erabilera onartzen duzun bitartean, zure datu pertsonalaren erabilera onartzen duzun bitartean, gure zerbitzuetan zure datu pertsonalaren erabilera onartzen duzun bitartean, gure zerbitzuetan zure datu pertsonalaren erabilera onartzen duzun bitartean, gure zerbitzuetan zure datu pertsonalaren erabilera onartzen duzun bitartean.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### GURE AMETSA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

KLUBA Jatetxea  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Izaskun Murgia Elkarte Lirikoari esker

Zarzuolako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Azaroaren 23-24an | 17:00etan

### Bergarako Udaleri esker

"Xokolat" haur antzerkirako sarrerak ditugu.

Bergara | Seminaritza | Azaroaren 23an | 18:00etan

#### PARTE HARTZEKO: AZAROAREN 21ERA ARTE

E-postaz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "Zarzuola / Xokolat" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileek artean egingo da zozketa. Indarrendagun LEP 15/1999 legearen arabera, gure zerbitzuetan zure datu pertsonalari buruzko informazioa jakinarazteko, zure datu pertsonalaren erabilera onartzen duzun bitartean, zure datu pertsonalaren erabilera onartzen duzun bitartean, gure zerbitzuetan zure datu pertsonalaren erabilera onartzen duzun bitartean, gure zerbitzuetan zure datu pertsonalaren erabilera onartzen duzun bitartean, gure zerbitzuetan zure datu pertsonalaren erabilera onartzen duzun bitartean.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez 2019ko azarotik aurrera: 15€  
Deitu: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!




ESKER ONA

**Matilde Arrese Aranburuzabala**

Abelino Esnalen alarguna

2019ko azaroaren 11n hil zen, 102 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Leintz Gatzagan, 2019ko azaroaren 15ean.

ESKER ONA

**Markos Balentziaga Larrañaga**

(Ugesarri baserria)

2019ko azaroaren 11n hil zen, Hondarribian.




Lerro hauen bidez Markosen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2019ko azaroaren 15ean.

ESKER ONA

**Jose Mari Galdos Aramburuzabala**

2019ko azaroaren 7an hil zen, 90 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2019ko azaroaren 15ean.

OROIGARRIA

**Matilde Arrese Aranburuzabala**

2019ko azaroaren 11n hil zen, 102 urte zituela.



*Ez zaitugu inoiz ahaztuko Gure bihotzean Eramango zaitugu betiko. Mila esker, Matilde!*



Sorginak Gatzagako emakume taldea.  
Leintz Gatzagan, 2019ko azaroaren 15ean.

OROIGARRIA



**Pili Iglesias Asensio**

2017ko azaroaren 19an hil zen, 58 urte zituela.



*Zure maitasunak gure bidea argitzen jarraitzen du.*

Etxekoak.  
Bergaran, 2019ko azaroaren 15ean.

URTEURRENA



**Ignacio Azcoaga Gordo**

2017ko irailaren 29an hil zen, 84 urte zituela.



**Ana Mari Crucelaegui Altuna**

2018ko azaroaren 11n hil zen, 77 urte zituela.

*Zuen izarrek argitzen gaituzte. Beti gurekin.*

Urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 16an, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Bertaratutako zaretenoi, aurrez eskerririk asko.  
Arrasaten, 2019ko azaroaren 15ean.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguria izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

**Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA**

URTEURRENA



**Cristina Romaratezabala Faido**

Jesus Olabariaren alarguna


2018ko azaroaren 26an hil zen, 94 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.


Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2019ko azaroaren 15ean.

URTEURRENA



**Carlos Gomez Gonzalez de San Pedro**

2009ko azaroaren 14an hil zen.



**Beñar Gonzalez de San Pedro Saenz**

2016ko azaroaren 12an hil zen, 57 urte zituela.

*Hainbeste maite zintuztegun, eta sekula ez itzultzeko joan zineten.*

Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, etxeko izenean.  
Bergaran, 2019ko azaroaren 15ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

| ARRASATE EGUNEZ       |   |
|-----------------------|---|
| Egubakoitza, 15       | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09         |
| Zapatua, 16           | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30   |
| Domeka, 17            | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |
| Astelehena, 18        | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99      |
| Martitzena, 19        | FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26             |
| Eguaztena, 20         | IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39                  |
| Eguena, 21            | SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74    |
| BERGARA EGUNEZ        |   |
| Egubakoitza, 15       | ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63               |
| Zapatua, 16           | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15               |
| Domeka, 17            | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15               |
| Astelehena, 18        | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 7     |
| Martitzena, 19        | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87             |
| Eguaztena, 20         | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05            |
| Eguena, 21            | ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63               |
| ORATI EGUNEZ BAKARRIK |   |
| Egubakoitza, 15       | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22            |
| Zapatua, 16           | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22            |
| Domeka, 17            | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22            |
| Astelehena, 18        | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28             |
| Martitzena, 19        | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28             |
| Eguaztena, 20         | ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16             |
| Eguena, 21            | ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16             |

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: CDF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA



**Susana Larrañaga Guillen**

2008ko azaroaren 13an hil zen.



Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2019ko azaroaren 15ean.

URTEURRENA

**Miguel Ojanguren Irazabal**

'Agarre'

2018ko azaroaren 15ean hil zen, 90 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 17an, 12:00etan, Elgetako Andra Mari Jasokundeko parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.  
Elgetan, 2019ko azaroaren 15ean.

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Gantzaga auzoan jaietan**

Sanmelixanak ospatu zituzten aurreko asteburuan Aramaioko Gantzaga auzoan. Askotariko ekitaldiak egon ziren; tartean, Aretxabaletako abesbatzaren emanaldia.

**2. Leintz Gatzagara korrika**

San Milixan jaien baitan, hainbat lagun korrika joan ziren Arrasatetik Leintz Gatzagaraino. Han, herritarren txaloak eta ongietorria jaso zituzten.

**3. Parke teknologikoa ezagutzen**

la 200 lagun elkartu ziren aurreko zapatuan Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan. Ate irekiak egin zituzten, eta, besteak beste, robotak gertutik ikusteko aukera izan zuten.

**4. Arrasateko kintoak, Oñatin**

1957an Arrasaten jaiotakoek urteko kintada egin zuten azaroaren 9an. Oñatiko Unibertsitatea eta Txokolateixan bisita gidatua egin zuten. Bazkaria, Txopekuan.

**5. Gaztainak danbolinean erreta**

Enrike Perez *Txikiturri*-k egindako gaztainak jan zituzten eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek. 25 kilo gaztaina erre zituzten, danbolinean. Kantuan ere egin zuten.

**6. Aitor Arregiren bisita**

Aitor Arregi zuzendari oñatiarra irazan Antzerki Guneko kide gazteenekin egon da astean. Zinemaren eta aktoreen zuzendaritzaren gainean egin dute berba.

**Kontatu, kontatu!**

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzue? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**


Zatzo Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.


## ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**Nahia Etxebarria**  
Azaroaren 21ean, 4 urte. Zorionak, Nahia! Familia osoaren partetik, egun zoragarria pasa ezazu! Patxo handi bat, maitea!



BERGARA  
**Pedro Urrutia Arribillaga**  
Azaroaren 21ean, 6 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat etxekoen partetik, gure eskalataile!




OÑATI  
**Ibai Buquete Diaz de Gereñu**  
Azaroaren 21ean, 11 urte. Zorionak, Ibai, 11 urte horiengatik! Egun zoragarria pasatu eta segi horrela, txapeldun! Milaka muxu, etxeko danon partetik.



ARETXABALETA  
**Ander Axpe**  
Azaroaren 20an, 3 urte. Zorionak, garbantz! Patxo potolo bat, etxeko danon partetik!



ANTZUOLA  
**Jare Iparragirre Etxebarria**  
Azaroaren 17an, 5 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo ospatu eta patxo pila, danon partetik!



ESKORIATZA  
**Kerman Petralanda Garate**  
Azaroaren 16an, 11 urte. Zorionak, Kerman, 11 urte betetzen dituzun honetan! Ederto ospatu zure eguna. Patxo potolo-potolo bat, etxeko danon partetik.




ANTZUOLA  
**Ainhoa Biteri Sopolana**  
Azaroaren 17an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako etxeko guztien partetik. Ondo pasatu zure eguna! Muxu potolo bat!



ARRASATE  
**Goiatz eta Maddi Belategi Galdos**  
Azaroaren 15ean, 9 urte. 4, 3, 2, 1... Heldu da azaroaren 15a, azkenean! Zein azkar pasatzen den denbora, 9 urte dagoeneko. Ondo-ondo pasatu eta jaso ezazue besarkada bero eta patxo handi bat, familiako partaide guztien partetik.



BERGARA  
**Uxue Iñurategi Altuna**  
Azaroaren 15ean, 5 urte. Zorionak, Uxue! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo erraldoi bat etxeko danon, eta bereziki, Maiaren partetik.



BERGARA  
**Urko Rodriguez**  
Azaroaren 15ean, 8 urte. Zorionak! Oso ondo pasatu eguna. Patxo handi bat, etxeko guztien partetik.



BERGARA  
**Garazi Aretxaga Arabaolaza**  
Azaroaren 14an, 5 urte. Azkenian heldu da eguna! Bost urte! Ondo-ondo ospatuko dou! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI  
**Ainhize Arregi Baseta**  
Azaroaren 13an, 9 urte. Zorionak, maitia! Horrenbeste itxaron duzun eguna heldu da! Infinitu maite zaitugu! Gure *terremotoa* zara! Muxu goxuk amatxoren, aitatxoren, eta bereziki, Ekhiaren partetik.



OÑATI  
**Eneko Bengoa Igartua**  
Azaroaren 11n, 8 urte. Zorionak, Eneko, etxeko guztien partetik! Bazoaz aurrera adinean poliki-poliki...



ARETXABALETA  
**Beñat Akizu Zabala**  
Azaroaren 11n, 5 urte. Zorionak, Beñat! Primeran pasatu zure eguna eta patxo handi bat, etxeko danon partetik. Asko maite zaitugu.



OÑATI  
**Izadi Garcia Aramburu**  
Azaroaren 9an, 7 urte. Zorionak, *guapisima!* Ze ondo pasatuko dun familia dana elkarturik! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI  
**Beñat Oleaga Mugarza**  
Azaroaren 8an, 10 urte. Zorionak, Beñat! Primeran pasatu zure eguna eta patxo handi bat etxekuen partetik! Pilia maitte zau!



OÑATI  
**Aitor Gonzalez Carbonell**  
Azaroaren 8an, 5 urte. Zorionak, Aitor! Ondo pasatu eguna eta asko jolastu mangeriarekin! Patxo handi bat, Oñatiko familiaren partetik. Nahiz eta Txilen egon, zutaz asko akordaitzen gara.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko  
17:00ak arte  
jasotako zorion  
agurak bakarrik  
iragarriko ditugu.

Hortik aurrera  
jasotakoak  
hurrengo astean  
argitaratuko  
ditugu.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 15

**ARRASATE Gaztaina erreak**  
Umeek banatuko dituzte gaztainak, bukatu arte.  
*Herriko Plazan, 16:30etan.*

**OÑATI Odol ateratzea**  
zAzaroko deialdia.  
*Enpresagintzan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Elikadura osagarriari buruzko hitzaldia**  
Haurra purerik eta ahirik gabe elikatzeak aholku eta gomendioak eskainiko ditu Sabeletik Mundurako Nahia Alkortak.  
*Kuku Miku elkartean, 17:00etan.*

**ELGETA Mahai-futbol txapelketa**  
Hiru maila: 17:30ean, 7-12 urtekoak; 18:30ean, 12-16 urtekoak; eta 19:30ean, helduak.  
*Ozkarbi elkartean.*

**OÑATI Maite Mene eta Koldo Pla**  
Musika eta poesia bateratzen dituen errezitaldia.  
*Eltzian, 18:00etan.*

**ARAMAIO San Martin eguneko ospakizuna**  
Triki-kalejira taldearen ekintzak: kalejira, pintxoak salgai, zozketa, diskoen salmenta...  
*Bizente Goikoetxea plazan, 19:00etan.*

**BERGARA Pintxo-potea mariatxiek**  
*Osintxu Gaztañatan* egitasmoaren baitan.  
*Osintxun, 19:00etan.*

**OÑATI 'Estatu Batuetako eskaladak' ikus-entzunezkoa**  
Jon Agirrek eta Iñaki Mendizabalek egingo dute berba. Aurretik, argazki lehiaketako sari banaketa.  
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ESKORIATZA 'Bide berriak'**  
Zinema emanaldia eta solasaldia.  
*Zaldibarren, 19:30ean.*

**ARETXABALETA 'Txarriboda'**  
Hika Teatroaren antzezlan, Kepa Errasti aretxabaletarrekin.  
Sarrerak, lau euro.  
*Arkupen, 20:00etan.*

**BERGARA Raitx eta Sara Zozaya**  
Katapultatuta Tour Gipuzkoa 2019 zirkuituko emanaldia. Debalde.  
*Seminarixoan, 21:00etan.*

**OÑATI Criminal Remains eta No Limits taldeak**  
Debalde.  
*Pako taberman, 21:00etan.*

**BERGARA 'Meza beltza' antzezlan**  
Kokoxa taldearen emanaldi bikoitza: 21:00etan eta 22:30ean. Aurrez eman behar da izena: 20:00etan.  
*Gaztetxean.*

**ESKORIATZA Siroka taldea**  
Bertan behera geratu da.  
*Inkernu tabernan.*

## ZAPATUA 16

**ARRASATE Udalatzeko bira**  
Bisitako irteera puntua Udala goikoa izango da.  
*Udala auzoan, 09:00etan.*

**OÑATI 'Espeleo-Arrikutz' irteera**  
Ohiko bisitan erakusten ez diren galeriak ikusteko aukera, 18 urtetik gorakoendako. Izena, aurrez: 943-08 20 00.  
*Arrikutzen, 09:30etan.*

**OÑATI 'Arte eszenikoetarako mugimenduaren ikerketa eta esplorazioa tailerra**  
Pablo Zamorano txiletarraren eskutik, Irazan antzerki taldeak gonbidatuta.  
*Eltzian, 10:00etan.*

**ARRASATE Meatzerrekara eta San Baleriora bisita**  
Arrasate historikoa ezagutzeko helburuarekin.  
*Meatzerrekan, 11:00etan.*

**ARETXABALETA 'Munduko musika tresnak' erakusketa**  
Hilaren 30era arte.  
*Arkupen, 11:00etan.*

**OÑATI San Martingo nagusien astea**  
12:00etan, meza; eta 14:00etan, bazkaria. Ostean, dantzaldia.  
*San Martin egoitzan.*

**BERGARA 'Festa familiarra'**  
Movember Gara taldearen eskutik.  
*Elorregin, 12:30etan.*

**OÑATI Frontenis txapelketa**  
Kuboko erabiltzaileendako.  
*Larrañan, 16:30etan.*

**OÑATI IX. Miko-poteoa**  
18:00etan, Raul Fraileren hitzaldia; eta 19:00etan, miko-poteoa, Arantzazuko tabernetan.  
*Arantzazun.*

**BERGARA Goikobalu Txiki Abesbatzaren 25. urteurrenoko kontzertua**  
Txiki eta Gazte taldeetako kide izan direnek parte hartuko dute kontzertuan, egungo kideekin.  
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**BERGARA 'Erradikalak ginen' antzezlan**  
Ane Labaka bertsolariaren eta Beatriz Egizabal ipuin kontalariaren lana. Sarrerak, lau euro.  
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**ARAMAIO 'El insulto' filma**  
Giza eskubideak eta zinema zikloaren baitan.  
*Kultura etxean, 21:00etan.*

## DOMEKA 17

**ELGETA Mendi ibilaldia eta baba-jana**  
Mendi buelta Urkora izango da, eta bazkaria Ozkarbin.  
*Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

**OÑATI 'Oñati, mugarriz mugarri' ibilaldia**  
Oñati-Jentiletze-Gorostiaga-Udana-Arratola-Barrendiola ibilaldia egingo dute. Hemeretzi kilometro.  
*Foruen plazan, 08:00etan.*

**ESKORIATZA Aloñara ibilaldia**  
Makila eskuen eta ibili basuen egitasmoaren baitan. 09:00etan Huhezin edo 09:30ean Urriagainen.  
*Irteera lekuetan.*

**BERGARA Bikote Gazteen Euskal Herriko Dantza Askatu Txapelketa**  
Hamasei bikote lehiatuko dira.  
*Seminarixoan, 12:00etan.*



ARTEDRAMA

**OÑATI 'Zaldi urdina' antzezlan**  
Igor Elortzak eta Unai Iturriagak idatzitako lana, Artedrama taldearen eskutik. Drogaren ondorioak noraino hel daitezkeen erakusten duen antzezlan gordina. Sarrerak agortuta daude.  
*Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 22:30etan.*

**ELGETA XII. pintxo domekak eta bertsolariak**  
Ane Zuazubiskar eta Oihana Arana bertsolariek girotuko dute poteoa.  
*Tabernetan, 12:00etan.*

**OÑATI Sara Vistha Banda**  
Western musika generoa ezagutzeko aukera.  
*Gaztelekuan, 12:30etan.*

**BERGARA Potx eta Lotx pailazoak**  
Etxean ikuskizuna aurkeztuko dute, *Osintxu Gaztañatan* egitasmoan.  
*Osintxuko frontoian, 17:30etan.*

**ELGETA 'Gaztaroa eta jokoarekiko mendekotasuna' hitzaldia**  
Julen Sanchezek egingo du berba.  
*Elgetako ludotekan, 18:00etan.*

**OÑATI Suhar abesbatza**  
26 abeslariz osaturiko gizonen korua, Esteban Urzelai oñatiar zuzendariarekin. Sarrerak, sei euro.  
*Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 18

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatzeko.  
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ELGETA 'Mundu digitala eta gaztaroa' formakuntza saioa**  
Gurasoendako, Emoki elkarteko hezitzaile baten eskutik.  
*Udaletxean, 18:00etan.*

**OÑATI San Martingo nagusien astea**  
Musika eskolako kontzertua.  
*San Martin egoitzan, 18:00etan.*

**OÑATI 'Ostegun kontalariak' gonbidapenak**  
Gaur banatuko dituzte hilaren 28an Ane Gebarak egingo duen saiorako gonbidapenak.  
*Haur liburutegian, 18:00etan.*

**OÑATI 'The work' hitzaldia**  
Zoriontsu izateko metodoaren aurkezpena, Isabel Morenorekin.  
*Bidebarrietan, 18:30etan.*

**BERGARA Arimen eguna**  
Osintxu Gaztañatan egitasmoaren baitan: 19:00etan, gaztainak eta sagardoa; eta 21:00etan, afaria.  
*Osintxun.*

## MARTITZENA 19

**ESKORIATZA Odol-ateratzea**  
Azaroko deialdia egin dute.  
*Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.*

**OÑATI Haurren motibazioaren gaineko hitzaldia**  
Haur psikologian aditu Mireia Centenorekin.  
*Kultura etxean, 17:30etan.*

**BERGARA Kirol argazkien erakusketa**  
Azaroko deialdia egin dute.  
*Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.*



BERGARA.EUS

**BERGARA Orkestra Sinfonikoaren Santa Zezilia kontzertua** Musikariaren zaindariaren omenezko emanaldia egingo dute. Enrike Txurrukak lehen aldiz zuzenduko du Orkestra Sinfonikoa eta hamabi musikari gaztek ere egingo dute debuta. Debalde. *Gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundian, 20:00etan.*

**OÑATI Bingo jokoa** Erretiratuendako. *Lagun Lekun, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Dantzaokoa** Koreografiak landuko dituzte gaztetxoek. *Ludotekan, 17:00etan.*

**OÑATI Haurren eta gurasoen irakurketa kluba** Lehen saioa egingo dute 6-8 urte arteko umeek eta euren gurasoek, Lur Kortaren laguntzarekin. *Haur liburutegian, 17:30etan.*

**OÑATI Literatura solasaldia** Samantha Schweblin idazlearen *Distancia de rescate* liburua gainera, Ivan Repilarekin. *Liburutegian, 18:45etan.*

**ARETXABALETA 'Indarkeria matxista Kolonbian' hitzaldia** Kombos hezkuntza elkarte kideek egingo dute berba. *Arkupen, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 20

**OÑATI Ipuin kontaketa** Coralía Rodríguez *Habia una vez un cocodrilo verde* delako saioa egingo du 7 urtetik gorakoendako. *Haur liburutegian, 17:00etan.*

**ARRASATE Literatura solasaldia** Cesar Vallejoren *Los heraldos negros* eta *Trilce* liburuen gaineko saioa, Ane Zapaterorekin. *Kulturaten, 18:15etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka** Garaiko produktuen salmenta. *Oxirondon, 18:15etan.*

**OÑATI Ipuin kontaketa** Coralía Rodríguez *Cosas de mujeres* delako saioa egingo du helduendako. *Liburutegian, 19:00etan.*

**ARRASATE 'El éxito de un arrasatearra en el Barroco: factores explicativos' hitzaldia** Koldo Larrañagak egingo du berba, gaztelaraz, Iragana Astintzen zikloan. *Kulturaten, 19:00etan.*

## EGUENA 21

**ARRASATE Sasoibiderekin ibilaldia** Bergarara joan-etorria egingo dute. *Biteri plazan, 10:00etan.*

**OÑATI Garbigune ibiltaria** Herritarren materiala batuko dute. *Olakuan, 10:30etan.*

**ELGETA Kontalaritza tailerra** Bigarren saioa, Maider Galartzarekin. *Liburutegian, 17:00etan.*

**OÑATI Bingo jokoa** Erretiratuendako. *Lagun Lekun, 17:00etan.*

**OÑATI 'Bizi bidaiatzeko irlak' ikus-entzunezkoa** Debalde. *Euskaltegian, 18:00etan.*

**OÑATI 'Baliabide pedagogikoak indarkeria matxistari aurre egiteko estrategia moduan' solasaldia** Kolonbiako Kombos hezkuntza erakundeko kideek euren esperientziak kontatuko dituzte. *Kultura etxeko atikoan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Musika eskolakoaren kontzertua** Santa Zeziliaren omenezko emanaldia. *Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Literatura solasaldia** Mariana Enriquezen *Las cosas que perdimos* liburua gainera, Ivan Repilarekin. *Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Microfísica sexista del poder' hitzaldia** 1992an ikusmin handia sortu zuen Alcasserko krimenari esanahi berria eman dio Nerea Barjolak, izen bereko liburuan. *Arkupen, 19:00etan.*

**OÑATI 'El hotel a orillas del río' filma** Hong Sang-soo zuzendariaren pelikula, zineklubean. *Kultura etxean, 20:00etan.*

**ARRASATE Sega Sound Killers** Kooltur Ostegunetako kontzertua. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

**ARRASATE**  
**AMAIA ANTZOKIA**  
**La trinchera infinita** Zapatua: 19:30, 20:30. Domeka: 19:30.  
**Abominable** Zapatua eta domeka: 17:00.

**BERGARA**  
**SEMINARIKOA**  
**El silencio de la ciudad blanca** Domeka: 19:30. Astelehena: 20:30.  
**Abominable** Zapatua eta domeka: 17:00.

**OÑATI**  
**KULTURA ETXEA**  
**Joker** Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domeka: 19:30, 22:30. Astelehena: 19:30.

**Playmobil** Zapatua eta domeka: 17:30.

**ARETXABALETA**  
**ARKUPE**  
**La directora de orquesta** Zapatua eta domeka: 22:00. Astelehena: 16:00.

**Angry birds 2** Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR**  
**COLISEO**  
**Estafadoras de Wall Street** Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00.

**Ventajas de viajar en tren** Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.  
**La oveja Shaun** Zapatua eta domeka: 17:00.

**Sorry we missed you** Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ**

**FLORIDA**  
**Joker** Zapatua eta domeka: 12:00. Egubakoitzetik domekara, eguaztena eta eguena: 22:30.  
**Abominable** Zapatua eta domeka: 12:00.

**Malefica** Egubakoitza, eta astelehenetik eguaztena: 17:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.

**El silencio de la ciudad blanca** Egubakoitza: 17:45, 20:00, 22:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:45, 20:00, 22:30. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30. Martitzena: 17:30.

**La familia Addams** Egubakoitza: 16:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00.

**Parasitos** Egubakoitzetik domekara, eguaztena eta eguena: 17:00.  
**La trinchera infinita** Egubakoitzetik domekara: 16:40, 19:30. Astelehenetik

eguztena: 17:00, 19:45. Eguena: 17:00.

**GORBEIA**  
**Joker** Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 22:30. Domeka: 20:35. Astelehenetik eguena: 20:30.

**Abominable** Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:05. Domeka: 12:15, 16:10, 18:05.

**Malefica** Egubakoitza eta zapatua: 16:25. Domeka: 12:00, 16:25. Astelehenetik eguena: 17:30.

**La oveja Shaun** Egubakoitza eta zapatua: 16:00. Domeka: 12:15, 16:00.

**Doctor sueño** Egubakoitza eta zapatua: 22:10. Domeka: 20:05.

## KRITIKA

**Parásitos** ★★☆☆

**Zuz.:** Bong Joon-ho. **Herr.:** Hego Korea (2019). **Aktoreak:** Song Kang-ho, Lee Sun-kyun, Jo Yeo-jeong, Choi Woo-sik.

## Vaudeville maltzurra

**ANTONIO ZABALA**

Bi etxebizitzatetik ikus daitekeen panoramaren argi eta argi uzten ditu film honetako pertsonaien egoera eta ametsak. Erdizoto bateko biztanleek edanda dagoen jendea pixa egitera joaten den kalezulo ziztrina ikusten dute. Etxe eder bateko biztanleek, oster, leihate handi batetik euren lorategia ikusten dute. Bi familien etxek biztanleak ikusten duten paisaiari lotuta daude. Aberatsak ez dira ohartzuten behartsuen existentziak eta behartsuek, gizartearen egoera aldatu nahi baino gehiago, aberatsak izaten jarraitu nahi dute.

Familia behartsuaren semea aberatsen etxean lanean sartzen da. Barruan dela, etxean lan egiten duten guztiak kaleratuak izatea lortzen du,

horien ordeztu bere ama, aita eta alaba sartzeko. *Parásitos* vaudeville maltzurra da. Familiak egin beharko dituen trikimailuak konplikatu joango dira. Etxeko geletatik irtiten sartu, ezkutatu... egin beharko dute, jabeak bere ibileraz ez ohartzeko. Izugarria da zuzendariaren planoaren konposizioarekin jokatzen duen ahalmena eta muntaiak eta musikaren erabilera eszenez ematen dieten jariatortasuna. *Parásitos* komedia dotorea eta basatia da. Jokoen pertsonaia gehiago sartzen direnean, pertsonaia egorrengatik gaitunduta sentituko dira, euren erreazioetan neurria galdu arte. Bukaerako zatian, umorea beltz joango da, dena hankaz gora jartzeko.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

## Bakarrik edo?

"Bakardadea egunero 15 zigarro erretzea bezain kaltegarria da". Hori esan du AEBetako Harvard unibertsitateko neurologo batek. Bakarrik egotea ez, bakarrik sentitzea. Ez baitira gauza bera. Egon gaitzke bakarrik eta primeran sentitu. Egon gaitzke jendez inguratuta eta bakarrik sentitu. Hori bai, bakarrik egonda errazagoa da bakarrik sentitzea, argi dago.

Bagenekien aro modernoko gaitzetako bat dela. Gero eta jende gehiago sentitzen dela bakarrik, teknologia berrien eta "aurrerapenaren" aro honetan. Baina 15 zigarro? Demonio! Berdina janda, ariketa fisiko bera eginda eta berdin lo eginda, bakarrik sentitzen dena askoz okerrago dagoela dio Alvaro Pascual-Leone ikerlariak: "Pentsatzen eta sentitzen dugunak gure garuna aldatzen du". Sentimendu negatiboek garuna gaixotzen ei dute. Eta garunak gorputza.

Garai batean ETB1en bazegoen *Bakarrik edo...* izeneko programa bat. Gaueko ordu txikietan zen. Irratsaio bat, baina telebistan. Estepan Aldamiz, mahai baten aurrean eserita, entzuleen deiei erantzuten. Aspergarri samarra iruditzen zitzaidan niri. Orain konturatzen naiz telebistan zegoen programarik osasungarriena izango zela.

## BUKATZEKO

# Txakur dalmaziarrak, pasio eta bidelagun bizitzan

Bartzelonan bizi den Maria Jodar oñatiarrak familiako kide ditu 'Digua', 'Izar', 'Aloña' eta 'Amets' txakur dalmaziarrak. Europa mailan arraza bereko txakurren edertasun txapelketetan aritzen da eta gaur egun Espainiako txapeldun da 'Amets' txakurra

Aitor Agiriano ARRASATE

2003an hasi zuen gaur egun daraman bizimodua. Betidanik izan du amets txakur bat edukitzea, eta argi zuen ez ziola hori inork oztapatuko: "Hasieran, ez nuen arraza konkretuko txakur bat nahi; erdi tamainako txakur familiar, jostagarri, alai eta kirol-txakur bat izan zedin nahi nuen. Golden retriever arrazako txakur bat erosteko asmotan joan nintzen Oñatiko animalia dendara". Berehala ohartu zen, baina, arraza bereko txakurra zutela herritar askok eta ezberdina nahi zuela: "Etxeko egongelan nintzela, aurrean nuen apalean, *101 dalmata* filmaren VHSa ikusi nuen. Filma ikusten hasi, eta dalmaziar arrazako txakurra morfologikoki nolakoa zen aztertzeko hasi nintzen. Interneten xaxatu, eta informazioa eskuratzeko liburu bat ere erosi nuen. Orduan, arraza honekin maitemindu, eta *Digua* iritsi zen etxera. Bizitzan eduki dudako txakurrik onena da, eta izango da", dio Jodarrek.

Hala, inguruan aukerarik ez, eta amarekin joaten zen noizean behin Bartzelona aldera, txakur dalmaziarren Espainiako klube-ra. Bertan, arraza bereko txaku-



Maria Jodar, oñatiarra, *Digua*, *Amets*, *Izar* eta *Aloña* txakurrekin. MARIA JODAR

rra zuten lagun asko egin, txapelketetara nola joaten ziren ikusi, irteerak egin eta, egun, Bartzelonako Osona eskualdean bizi da txakurrekin osatu duen familia ederrean: "Jabearekin egotea gustatzen zaie txakur dalmaziarrei, eta halaxe bizi dira nirekin, familian; zaintzea eta errespetatzea jabearekin bizitzea da, ez kaiola batean egotea".

## Europan mailan lehia

*Digua* txakurra 5 urte zituela, txakur dalmaziar bat erosi zuen txapelketetara aurkezteko, *Amets*. Eta, gaur egun, gainera, Espainiako txapelduna da txakur hori.

Bereziki, Espainian, Frantzia eta Portugalen egiten diren txapelketetan aritzen da lehia. Nahiz eta mundu mailako txapelketetan ibiltzeko helburua ere baduen. "Munduko erakusketak garrantzitsuena egiten da Ingalaterran, eta bertara joan nahiko nuke. Kalitate ona duen txakurra da eta aitortua izan dadin gustatuko litzaidake. Bestetik, mundu mailako txapelketa ere izaten da urtero hiri ezberdin batean. Milanon eta Bruselan ospatu eta gero, Madrilen izango da hurrengoa, eta han izango naiz", dio Jodarrek.



Jodar, txakurrekin txapelketan. M. J.

## HALA BAZAN

GOIENA TELEBISTA, 90. HAMARKADAKO GATAZKAK  
AZAROAREN 15EAN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN  
AZAROAREN 16AN, ZAPATUAN, 18:30EAN ETA 21:30EAN  
ARRASATE TELEBISTAKO ARTXIBOA OINARRI DUEN SAIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

